

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-02-06
ASTELEHENA
352. ZENBAKIA
8. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



ARANTZAZU EZKIBEL

"Etxe ondoan eskiatu ahal izatea izugarri eskertzen da entrenatzeko"

Aitor Otxoa | Eskiatzailea | 27

Kukutzako izpirituak arrakastaz hartu du Oñati asteen | 29



Lezetxikiko ondarea babestu eta ikerketari bultzada | 19



Juan Mari Agirreurretak irabazi du Jokin Zaitegi sariketa | 31



ELUR GOSEA ASETZEKO ASTEBURUA

Jolaserako eta elurretako kiroletarako aukera eman du aurreko egunetan botatakoak. Mendirako giro onik egin ez arren, iraun duen bitartean ondo aprobetxatu dute askok herriko edozein txokotan | 4

Mutikoa elurretan jauzia egiten, Arrasateko Udala auzoan. | IRATI GOITIA

Bailarako herri guztietan ospatu dute Santa Ageda

Dantzan eta kantuan jardun dute, kinto eta abesbatzek | 14



Eskoriatzan dantzan. | J.BEREZIARTUA

Seigarren amaitu du Pirena Itoitz Armendaritzek

Emitza bikaina lortu du, Europako onenen parean ibilita | 26

Aldundiari Foru Funtseko dirua nola itzuli erabaki behar dute orain udalek

Otsailean egin behar du bakoitzak dagokion kopuruaren erdieren ordainketa. Gainerakoa ordaintzeko aukera desberdinak eman dizkie Diputazioak udalei: norbere diruarekin aurten, hiru epetan, egin dezakete, edo kreditu berezi bat eskatuta. | 8

Gustura, zaintza konpartituaren aldeko sinadura kanpainarekin | 2

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 |
ELKARRIZKETA 11 | IRITZIA 12 | HERRIAK 13 | KIROLA 26
JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 |
TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 |
JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

Consultorio Ginecológico Miramón

Consultorio Ginecológico Miramón, EDERSALUD zentro mediko berrira aldatu da, helbide honetara:

Nafarroa etorbidea, 4
Arrasate
Tel.: 943 79 20 18

edersalud
ZENTRO MEDIKOA

- Ginekologia
- Mamografiak
- Dentsitometria
- Kirurgia orokorra
- Análisi klinikoak
- Fisioterapia
- Nutrizioa

Banandutako gurasoen umeen eskubideak, lehentasuna

- ▶ Zaintza konpartituaren aldeko kanpaina da abian
- ▶ Legebiltzarrera 45.000 sinadura eroan gura dituzte

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, 2009an, 4.811 dibortzio eskaera formalizatu ziren, 2008an baino 382 gutxiago. Dibortzio kopurua txikitu egin da, baina handitu, seme-alabak bi gurasoen artean zaintzeko eskaerena: kasuen %8tik %9ra pasatu zen. Hau da: 430 bat banandutako bikotek aukeratu zuten seme-alabak bien artean zaintzea, biek baldintza beretan.

Kopuru hori handiago izan dadin legea aldatzea nahi dute Euskadiko guraso bananduen elkarteek. Horretarako sinadurak batzen dabil Kidetza federazioa, eta horretan ibili da Debagoienan Agipase, Gipuzkoako Guraso Bananduen Elkarteak. Legebiltzarraren lege-proposamen izateko testua aurkeztu nahi dute. Legebiltzarrak testua eztabaida dezan, 30.000 sinadura behar dira, eta dagoeneko batu dituzte horrenbeste, baina beste 15.000 nahi dituzte.

Zaintza konpartitua lege-egoera bat da, non bikotea banandu egiten denean, bi gurasoek adingabeko seme-alaben legezko zaintza baldintza berdinetan eta esku-bide berberekin egiten duten.

Horren aurkakoa guraso bakarren zaintza da: umeen zaintza gurasoetako bati bakarrik ematen zaio -kasu gehienetan, amari-, eta besteak bisita-eskubidea eta elikadura-ordainketa egin beharra jasotzen ditu.

Bi gurasoekin egoteko

EAEn, Espainiako 2005eko Dibortzioaren Legea jarraituz, eredu hori aplikatzen da, bi gurasoek zaintza konpartitua aplikatzeko eskatzen dutenean salbu. Kidetza federazioak eskatzen du zaintza konpartitua izan dadila legez ezartzen den zaintza eredu. Argumentu nagusia hau da: bi gurasoekin egotea seme-alaben eskubidea dela, eta seme-alabon eskubideak izan behar direla

lehentasuna. *Goiena Magazine* -n izan ziren Agipaseko gizarte laguntzaile Oihana Urrutia eta psikologo Itziar Alkorta, eta Agipaseren ikuspuntua azaldu zuten: "Orain arte umeak bi gurasoak izan baditu, zergatik galdu behar du bat?", esaten dute. "Dibortzioa ez da arazoa; arazoa horren aurretik zegoen, eta dibortzioa konponbide bat da", gaineratzen dute. Horrela, zaintza konpartitua beste konponbide bat gisa proposatzen dute banandutako gurasoen elkarteok.

Galera ekonomiko

Umeen sufrimendua ez da ondorio txar bakarra izaten; dibortzioak izan ditzakeen ondorio negatiboak areagotu egiten dira

zaintzaren kontuarengatik, esaten du Agipasek.

Hala, bietako bat -gizonezkoa, gehienetan- bikotearen etxetik joan egin behar da, horrek dakarren diru-ondorioekin; bestetik, emazte ohiari seme-alaben elikadura-pentsioa eman behar dio. Horrez gain, seme-alabak epaileak ezarritako erregimenean bakarrik ikus ditzake. Horregatik, Agipaseren bigarren eskaera hau da: legeak jaso dezala alokairu erregimen bat ere, etxebizitzatik joateko behartuta dagoenari -normalean, gizonari- babes ofizialeko etxebizitza errentan hartzeko aukera emateko.

Horri gehitu behar zaio aiten sufrimendu psikologikoa seme-alabenganako harreman txikia

Hainbat gako, begirada baten

PROPOSAMENA Kidetzaren proposamena hau da: guraso bakoitzak epaileari plan bat aurkeztea, norberak zelako zaintza planteatzen duen eta beste gurasoarendako zer proposatzen duen, eta epaileak erabaki dezala.

AURREKARIAK EAEn 2005eko Dibortzioaren Legea ezartzen da, Espainiako. Nafarroan zaintza konpartitua dute. Espainian ere badaude zaintza konpartituaren aldeko legeak Aragoi eta Katalunian.

EUROPAN Herrialde gehienek zaintza konpartitua hobesten dute guraso bakarrenaren gainetik: Erresuma Batuak, Frantziak, Alemaniak...

ARAGOIN Zaintza konpartituaren aldeko legea ez da berbera leku guztietan. Hala, Aragoiko legea "hitz

egiteko abiapuntu neutrua" da, eta "berdintasun" arau bat da. "Familia-harreman plan bat adostea" gomendatzen du, Aragoiko guraso elkarte baten ordezkari Victor Salvadorren hitzetan.

KATALUNIAN EA Erako proposatzen duten antzeko formula jarraitzen da. Bestalde, etxebizitza ematen dio ahalmen ekonomiko txikiena duenari.

IKERKETAK Hainbat unibertsitate-ikerketaren arabera, bi gurasoekin elkarbizitza duten umeek autoestimua hobea izaten dute eta zoriontsuago hazten dira.

AGIPASE Donostian dute egoitza; goizetan, Txara 1-en, eta arratsaldeetan, Egian. Telefonoak: 943 29 24 96 eta 666 55 81 97.



Sinadurak batzeko mahaia. | SERGIO PIQUER COSTEA

izateagatik: "Aitaren rola ezin dute garatu, astean bizpahiru arratsalde eta bi aste bukaeratik bat bakarrik pasa dezaketelako seme-alabekin. Gainera, umeak ere aita galtzeko beldur handia izaten du eta aitak sufritu egiten du hori ikustean", esaten du Itziar Alkortak.

Helduondako ere ona

Zaintza konpartitua aldeko asko ditu: besteak beste, Europako Giza-Eskubideen Auzitegiak eta Nazio Batuen Erakundeak dei egiten dute zaintza konpartitua legezatzeko eta bultzatzeko, berdintasuna eta umearen eskubideak babesteko bide gisa. Euskadin, Arartekoak ere zaintza konpartitua defendatu du.

Modalitate horren aldekoek esaten dutenez, bi gurasoendako da ona zaintza konpartitua: hala, bi gurasoak guraso onak direla jakinekotzat ematen da, eta bat ere ez da zalantzan ipintzen; guraso biek denbora libre gehiago dute, eta batek bakarrik ez du hezkuntzaren zama osoa eraman behar; seme-alaben gastuak bien artean erosten dituzte, eta aldekoek azpimarratzen dute zaintza konpartitzen duen guraso batek ere ez duela bere erantzukizuna alde batera utzi; eta samurragoa da bi gurasoak elkarrekin ondo konpontzea eta seme-alaben onerako akordioak lortzea.

Seme-alabei dagokienez, euren eskubidea betetzeaz gain, autoestimua handiagotzea izaten dute guraso batengandik borondatez kon-

tra urrunduta bizi direnek baino; guraso bakoitzaren familian integrazten da umea, eta familia-kide berriekin aberasten da bere bizitza; komunikazio hobea dauka guraso bakoitzarekin; umeak ez du leialtasun-gatazkarik, ez du sentitzen guraso bat aukeratu behar duenik; eta arazoak akordio bidez konpontzen ikasten du.

Europar, salbuespena da Espainiako legedia. Alemanian, Frantzia eta Erresuma Batuan, zaintza konpartitua hobesten da. Baina, pixkana-pixkana, hala ez den herrialdeetan ere gauzak aldatzen doaz, jendarteak hala eskatuta. Hego Euskal Herrian ere, Nafarroak dagoeneko badauka halako legea, hango legebiltzarrak 2010eko irailean horren alde bozkatu ondoren. Dena dela, lege hori ez dago polemika barik, izan ere, legeak epailearen esku uzten du azken erabakia, eta, horretarako, gurasoak elkarrekin ondo konpontzen diren "baloratu" behar du. Anapase elkartearen iritziz, horrek, praktikan, esan nahi du "gurasoak zaintza konpartitzeko ados daudenean bakarrik aplikatuko dela".

Euskal Autonomia Erkidegoan Espainiako legea aplikatzen da. Baina Espainian ere badaude beste salbuespen batzuk: Aragoiko erkidegoa izan zen lehena, eta hango legearen arabera, gurasoak ez direnean ados ipintzen, epaileak erabakitzen du, eta zaintza konpartitua hobesten du, seme-alaben hobe beharrez.



Maolo Rodriguez, sinadurak batzeko ekitaldian, Bergaran. | OIHANA ELORTZA

MAOLO RODRIGUEZ | AITA DIBORTZIATUA

"Aita eta ama izateko berdintasuna eskatzen dugu, besterik ez"

Maolo Rodriguez antzuolarraren esanetan, "umearen eskubidea da bi gurasookin egotea".

Zergatik ikusten duzue beharrezkoa legea aldatzea?

Dibortziatzerakoan, gizonen %97ak ekonomia-galbidean geratzen dira, eta kasu batzuetan seme-alabekin harremanik izan gabe. Neu zazpigarren urtez nabil Bergarako epaitegian, epaileari eta gizarteari ere, aita nahi dudala izan, eta arren eta mesedez eskatzen aita izaten utz diezadate. Gizonoi, orokorrean, dirua atera besterik ez digute egiten; eta umea ezin ikustea, dena norbere aurka izatea... oso gogorra da. Horregatik, oso garrantzitsua da legea aldatzea eta, minimo batzuk betetzen direnean, zaintza bioi ematea. Izan ere, umearen eskubidea da bi gurasookin egotea.

Zein da zure kasua?

Semeak urte bete zuenean banandu ginen eta segituan okertu zen dena. Orain, semeak 8 urte ditu eta dagoeneko gauza asko galdu ditut, berreskuratuko ez ditudan gauzak: adibidez, sekula ez naiz berarekin eskolara joan.

Behin, eskaera batekin joan nintzen epaitegira, semea 19:30ean entregatu behar nuelako; .eskatu nuen hori luzatzea, udan hondartzan bagaude, bueltan izateko, 17:30ean irten behar ginelako, eta umearen jarduerak moztu egin behar zirelako. Epaileak esan zidan aste bukaerak zapatua eta dome-

ka duela, eta zapatuan egin nitzala gauzak eta domekan umea buelta nezala. Beste behin, fiskalari esan nion diru gutxiarekin bizi nintzela, eta hark aurpegiatu zidan alokairuan bizi izateko. Nik esan nion: eta gero, zubipera joango naiz? Eta isilik geratu zen.

Guraso asko ezagutzen dituzu kasu horretan?

Biak, aitak eta amak ezagutzen ditut. Ezagutzen ditudan kasuak nirearen antzekoak dira: etxebizitza ordaintzen egon eta emazte ohia beste batekin bizi izaten; gainera, bi semearen mantenua ordaintzen... Bergaran, gurasoengana bizi izatera joan behar izan duten bi gizon ezagutzen ditut.

Ze proposatzen duzue zuek?

Guraso bakoitzak epaileari plan bat aurkeztea, zelan eramango lukeen aurrera zaintza norberak, eta beste gurasoarendako zer proposatzen duen. Epaileak bi planak aurrean izanda, umearendako onena zein den erabakiko luke, eta fiskalak ere zeresana izango luke. Hau da, ez da gurasoon esku geratuko.

Ze esan nahi diezu gurasoei?

Ez dudala ulertzen orain dagoen sistema: emakumea emakume izateagatik ama ona dela sinisten da, eta gizona, gizon izateagatik, aita txarra dela. Beste mezu bat behar dugu, beste ikuspuntu batekin: berdintasuna leku guztietan ezarri behar dela, baita aita eta ama izateko ere.

ARANTXA BERGARA | AGIPASEKO GIZARTE LAGUNTZAILEA

"Sinadura ematen digutenek esaten digute badela gauzak aldatzeko garaia"

Arantxa Bergara gizarte laguntzailea oso pozik dago ikusita zenbat sinadura batu dituzten Debagoienan.

Zaintza konpartituaren inguruko kontsulta asko dituzue?

Bai. Jendea etortzen denean, orokorrean, euren eskaera zaintza konpartitua izaten da. Guraso gazteak izaten dira, jende gehiena oso gazte dibortziatzen da-eta.

Kanpaina hau EAEn da, ezta?

Bai. Nafarroan, Aragoian eta Katalunian, legea aldatuta daukate.

Sinadurekin zer egingo duzue?

Legebiltzarrerara eramango ditugu. Horrela, behartzen ditugu biltzera eta legea aldatzera. Izan ere, jendeak



OIHANA ELORTZA

eskatzen du aldaketa hori; lege popularra da, zentzu horretan.

Alderdi politikoekin egon zarete? Zer diote?

Orain arte, ia alderdi guztiak lege berriaren alde daude; denak, PSOE eta IU izan ezik. Horiak aurka daukela esan dute.

Esan dizute zergatik?

Eurek esaten dute Euskadiko jendartea ez dagoela gertatuta horretarako. Baina legea jendartearen atzetik doa, eta hori ikusten ari gara gure kanpainan: zaintza partekatua-aren aldeko sinadura behar dugula esaten diogunean, jendeak "baina nolatan? Oraindik ez dago onartuta ala?", esaten dizu.

Gustura zaudete sinadura kanpainak izan duen harrerarekin?

Bai, oso pozik gaude. Jendeak esaten digu badela gauzak aldatzeko garaia.

ARRASATEKOBASERRIKO
PRODUKTUENAZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

2012
otsailak 11

martxoak 17
apirilak 21
maiatzak 19
ekainak 16
uztailak 21
irailak 15
urriak 20
azaroak 17

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
■ Enplegu eta Garapen
Ekonomikoren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariek konfiantza,
herbilhasuna eta kalitate
eskaerak dituzte.



Elurrarekin gozatu dute etxeko txiki eta handienek

Debagoiendarrek pozik hartu dute neguko lehen elurtea; gaztetxoak gustura ibili dira elurrarekin jolasean eta eskiatzaileek mendiaz gozatu dute

AMAIA TXINTXURRETA | DEBAGOIENA

Eguenean hasi ziren aurtengo neguko lehen elur malutak erortzen eta asteburuan inguruko mendi eta zelaia zurituta zeuden. Ondorioz, herritarrek jai egunak elurrarekin disfrutatzeko aprobetxatu dituzte.

Tenperatura baxuei eta eguraldi txarrari aurre eginez, mugimendua izan da inguruko mendi eta berdeguneetan. Etxeko txikiak eta nagusiagoak euren beroki, eskularru, txano eta bufandak hartuta, elurraz gozatzera irten dira.

Ume eta gazteak pozik

Ume eta gaztetxoak hainbat tokitan ikusi ditugu jolasean. Txikiak euren gurasoen laguntzarekin elurretako panpinak egiten ikusi ditugu, osagarri eta guzti zeuzkaten gainera; botoiak begietan jartzeko, makila bastoi bezala ipintzeko, edota lorontziak txano bezala jartzeko erabili dituenik ere izan da asteburuan.

Gaztetxoek ere disfrutatu dute elurraz. Batzuk elur pilotak egin eta talde bat beste baten aurka aritu dira jolasean euren artean indarrak neurtzen, betiere umore onean eta ondo pasatzeko asmoarekin. Beste batzuk, trineoa edo lera eskuan hartuta aldapak igotzen ikusi ditugu, ondoren jaisteko. Lerak ez zeuzkatenak bestelako pala moduko batzuk ere bazituzten bereziki elurretan ibiltzeko prestatutakoak. Horrelakorik ez zutenek, betidanik egin izan den bezala, plastikozko poltsak hartu eta euren moduan gozatu dute gora eta behera. Ausartagoak izan diren beste gazte batzuk ere ibili dira han eta hemen euren *snow-board* taularekin inguruko mendi edota aldapak jaisten.

Guztiek jaso dute ipurdikoren bat edo beste, baina oraingoan ez dira kexatu, elurra ez dugulako sarri izaten hain behean, eta pozik ibili dira jolasean.

Eskiatzaileak Butreaitzen

Ganbaratik edo garajetik eskiak ateratzeko zain zeuden beste asko eta asteburu honetan bai, asteburu honetan, inguruan eskiatu ahal izan dute azkenean.

Arantzazu aldean esaterako, debagoiendar ugari ikusi ditugu egunotan eskiak aldean zituztela. Inguruetak herrietako jendea ere etorri da gurera elurretan ibiltzera; Urretxu, Donostia eta Astigarragako gazteekin izan gara, besteak beste. Gehienek Butreaitz aldera egin dute eta kontatu digute bertan jende dextente zebilela eta gustura ibili direla hemengo parajeetan.

Hala ere, une batzuetan hai-zeak gogor jo du asteburuan eta hori ez da ona izan eskiatzaileendako ez eta mendira joan den jendearendako ere; eguraldiak ez du asko lagundu. Euskal Mendi Federazioak gomendatu zuen asteburu osoan mendira ez joatea, eguraldi txarragatik. Hala ere, askok muzin egin zioten horri eta inguruko mendietan gustura ibili dira.

Gorlan eta Udalan ere jendea

Bergarako Gorlan eta Arrasateko Udalan ere izan da jendea asteburuan elurraz gozaten. Familia guztia autoan sartu eta elurrez inguratutako berdeguneetara joan dira. Han hainbat modutara jolas egin dute: elur pilotekin, lerekin, plastikoarekin... Eta hoztutakoan eta gosea egingakoan, autoan sartu berriro, berogailua topera jarri eta etxera joan dira salda beroa edan eta atsedan hartzera.



Lagun koadrila Oñatiko hilerri ondoko zelaian plastiko eta lerekin. | AMAIA TXINTXURRETA



Bergarako hiru mutiko Gorlan lera eta *snow-board*-eko taularekin. | AT.



Eguraldi txarra izan da mendian. | IKER LASKURAIN



Arantzazun bi eskiatzaile mendirako bidean. | JOS



Eskuak hoztu arte, elur panpinak egiten Oñatiko hilerri ondoko zelaian. | AT.



Elurretan ere lanean. | JA.



Bi neskatila plastikozko poltsarekin Gorlan maldatik behera. | JA.



Aita-alabak elurretan. | AT.



Elur pilotak argazkilariori botatzeko prest mutikoak Udalan. | IRATI GOITIA



Familiako txikitxoek lehen aldiz zapaldu zuen elurra Arantzazun. | AT.



Eskiatzaileak menditik iritsi berri. | JA.



Leintz Gatzagako mutikoek ez dute beldurrik. | JOKIN BEREZIARTUA



ETXO ARANTZABAL



Primeran pasatuz, urteko lehen elurtean Arantzazun. | AT.



Izeba-ilobek plastiko gainean jolastu zuten Udalan. | I.G.



Urbiara bidean dagoen iturria, izoztuta. | GOIATZ ARANA



Eskiatzailea Butreaitzerako bidean. | BENITO CANTERO



Anai-arrebak pozik lera gainean, Murun. | A.T.



Gorlako maldak jendez bete ziren zapatu arratsaldean elurraz disfrutatzeke. | J.A.



GOIENA

PELLO ZABALA
EGURALDIAN ADITUA

"Eurirako joera izango du datozen hiruzpalau egunetan"

Datozen egunotan eguraldiak zein norabidetan jarraituko duen galdetu diogu Pello Zabalari.


Asteburuan elur gehiago egitea espero zen, ezta?

Bai, hori alde batetik eta, bestetik, iragarrita zegoen aste honetarako izugarriko hotza etorriko zela berriro Europatik. Mapa askok hori markatzen dute, beste batzuek diote itsasotik euria etorriko dela. Nik uste euritarako joera izango duela datozen hiruzpalau egunetan, izan ere, itsasoko haizea sartzen ari da. Hala ere, ez dago ziur esaterik gure inguruan dabilen antizikloiak ez daukalako tokirik.

Zein temperatura izango dugu datozen egunotan?

Datozen hiruzpalau egunetan itsasotik datorren haize horrekin, espero da temperatura baxuenek pixka bat gora egitea. Baxuenak gradu bat eta bi gradu positiboren inguruan ibiliko dira. Espero da lehenengo egunak euritsuak izango direla, hiruzpalau egun, eta orain arte izan dugun tenperaturarekin alderatuta epeltxoagoekin; bi eta zortzi graduren artean ibiliko garela ematen du. Ez dago ziurtatzerik, baina nik uste dagoeneko negu honek eman dizkigula momenturik latzenak.

"Negu honek eman ditu dagoeneko momentu latzenak"



JOXE MENDIOLA
OÑATI

"Butreaitz aldean egon naiz, gero Artzanbururantz joan naiz eta gustura jaitsi naiz. Hotz egiten du, baina elurra dagoenez aprobeixatu egin behar da".



URKO CASADO
ASTIGARRAGA

"Elurretara etorri gara eskiatzera eta Butreaitzera igo gara; jende asko zebilen eta goian hotz egiten zuen. Orain pintxo bat jatera joango gara Oñati aldera".



TATIANA MAECHA, UXUE SANZ, MICHELE RAJADO, ELENE SASIETA
BERGARA

"Gorlara etorri gara lerarekin elurretan jolastera. Zapatu goiza elurretan pasa nahi genuen eta gurasoek ekarri gaituzte autoan. Argazki kamera ere ekarri dugu elurretan argazki politak ateratzeko. Egia esan, hotz handia egiten du baina pozik gabilta. Hala ere, etxera joaten garenean gustura hartuko dugu hango berotasuna".



NIEVES MARTIN
BILBO

"Oñatiko Santa Marinako merkatura zapatuetan etortzen garen dendarietatik sei bakarrik etorri gara eguraldiagatik. Ez dabil jendea asko erosten".

Elur mailak eta temperaturak gora

URBIA

- ▶ Elurra 30 zentimetrotara iritsi zen, baina domekan behera egin zuen euriaren ondorioz.
- ▶ Normalean gurean praktikatu ezin diren kirolak egiteko aukera izan da asteburuan gure mendietan eta, hala Urbian jende ugari ibili da eskiak eta raketak jantzita.
- ▶ Zero azpitik hamar gradu; horixe asteko tenperaturarik baxuena Urbian. Zapatuan ere hotz egin zuen, -7 gradu izan zituzten. Domekan, berriz, gora egin zuen tenperaturak eta mugan gelditu zen (0 gradu).

GORLA

- ▶ Bost zentimetro hartu zituen elurak Gorlako gainean eta jende ugari ibili zen zapatuan lera eta plastikoekin maldetan gora eta behera.
- ▶ Domekan eginiko euriak tenperaturaren gorakada ekarri zuen eta ondorioz, elurra urtu egin zen.
- ▶ Atzo, domeka, termometroak sei gradu markatzen zituen eta zapatuan, oster, zero.

UDALA

- ▶ Eguenean izan zen elur gehien, 20 zentimetro inguru. Astebururako bost zentimetro besterik ez ziren geratzen; hala ere, haur zein heldu, gustura ibili ziren jolasean.
- ▶ Domekan euria eta haizea izan ziren eta horrelako eguraldiaz inor gutxi ibili zen. Gainera, elurra ere ordurako urtuta zegoen.
- ▶ Zerapeko tenperaturak izan ziren eguen eta egubakoitzean; zero azpitik hiru eta bat, hurrenez hurren. Zapatuan, berriz, termometroak zertxobait gora egin eta gradu bat eta bi artean ibili zen. Domekan, oster, 4,5 gradu.

URKULU

- ▶ Zapatu goizean elurra izan zuten, baina domeka goizean euriak hartu zion lekukoa.
- ▶ Egubakoitzea izan zen egunik hotzena -3 gradurekin. Domeka, berriz, epelena 5 gradurekin.
- ▶ Bertaratutakoek hamar zentimetrotako elur geruzaz gozatu ahal izan zuten.

ARANTZAZU

- ▶ Joan zen astean zero azpiko bost graduko tenperaturak izan ziren Arantzazun eta domekan igotzen hasi ziren; zero gradoak gainditu eta lau gradura igo zen termometroa.
- ▶ Elurra sei eta zortzi zentimetro inguruan ibili da. Domekarako pare bat zentimetrorra jaitsi zen.
- ▶ Jende ugari ibili da; gaztetxoak lerarekin jolasean eta mendizale eta eskiatzailak mendian.

ELGETA

- ▶ Elur asko zegoen iragarrita zaturako eta Udalak hartuta zituen prebentziorako neurriak. Hala ere, esperotakoa baino gutxiago egin zuen.
- ▶ Zapatuan eginiko elur gehiena, baina, domekan urtu egin zen, euriaren ondorioz.
- ▶ Hotz, kalean oinez ibiltzeko hotz egin du; asteburuan zero eta gradu bat bitartean ibili da termometroa.

ARAMAIO

- ▶ Zapatuan elur mailak bi-hiru zentimetro egin zuen gora Aramaioko Gantzaga auzoan.
- ▶ Domekan, berriz, euria izan zen protagonista eta ia elur guztia urtu zuen.
- ▶ Ikaragarriko hotza eta haize bortitza izan ziren nagusi atzoko egunez.



Autoari bultzaka Arantzazun, gidari bati balaztak izoztu ostean. | JOSETXO ARANTZABAL

Bati baino gehiagori egin die kale autoak, baina errepideetan ez da arazo larririk izan

Espero zena baino elur gutxiago egin du asteburuan, eta ez da aparteko arazorik sortu gure bailarako errepide eta mendateetan

AMAIA TXINTXURRETA | DEBAGOIENA

Elurak izan du ondorioren bat edo beste gurean: autoren batzuk ezin mugituta gelditu dira eta parke batzuk itxita egon dira oinezkoendako. Hala ere, asteburuan gure bailarako errepideetan ez da aparteko arazorik izan elurraren ondorioz. Halaxe adierazi digute Ertzaintzatik.

Mendateei dagokienez, guztiak egon dira zabalik Kurtzetakoa izan ezik; Aramaio eta Legutio arteko errepidea itxita egon da kamioi eta ibilgailu artikulatuentzat. Autoentzat, bestalde, irekita egon da, kontu handiz gidatzea gomendatzen zuten arren.

Mendira ez joateko gomendioa

Euskal Mendi Federazioak mendira ez joateko gomendioa egin zuen asteburuan eguraldi txarra zela-eta. Askok baina, muzin egin zioten gomendio horri eta gogotsu hartu zuten elurra mendian.

Autobusik ez Arantzazurako

Pesak bertan behera utzi zuen Oñati eta Arantzazu arteko domekako autobus zerbitzua.



Oñatiko Antia jauregiaren ondoko parkea oinezkoendako itxita. | I.G.



Kurtzeta zabalik domekan, nahiz eta itxita ere egon zen. | J.A.



ANDER ARMENTEROS
URRETXU

"Eski zeharkaldia egin dut Butreaitzen; elurra ez dago soberan, baina tira. Piriniotan ibili gara orain arte baina ilusioa egiten du herrian elurra egiteak".



JAIONE UGARTE
OÑATI

"Elurra asko gustatzen zait eta gogoz hartu dut. Dezente egin du gainera eta argazkiak ateratzen nabil hemen egon zen nire Kolonbiako lagun bati bidaltzeko".



UNAI ETA IKER ALONSO, AIMAR RIOS, ANDER GONZALEZ
ARRASATE

"Udalara etorri gara elurretan jolastera. Horretarako, lera eta plastikoa ekarri ditugu eta denbora askoan jolasteko asmoarekin gatoz. Momentuz, oso gustura gabiltza. Elurra asko gustatzen zaigu gainera eta hemen ibiliko gara gora eta behera, dagoenean aprobetxatu behar! Bihar ere elurra baldin badago, etorriko gara".



AITZOL ARREGI
OÑATI

"Eski estazioa ematen du Butreaitzek! Jaisteko primeran dago azkeneko zati bat kenduta, hori oinez egin behar da harri asko daudelako".



Arrasateko udaletxea. | ARTXIBOA

Diputazioari dirua nola itzuli da orain erabaki beharrekoa

Foru Funtseko itzulketaren erdia otsailean egin beharko dute udalek

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Martin Garitano ahaldun nagusia buru, bilera egin zuen egubakoitzean herrialdeko alkate eta udal ordezkariekin, Foru Funtseko itzulketa egiteko aukeren gaineko azalpenak emateko. Bilera horretan Debagoieneko hainbat ordezkari izan ziren, Arrasate,

Bergara eta Antzuolako alkateak, besteak beste, eta gainerakoek ere jaso dute bertan azaldukoen gaineko informazioa.

Goiena bailarako hainbat herritako alkateekin jarri da harremanetan, eta hauek adierazitakoaren arabera Debagoieneko udalek ez lukete arazorik izan behar aurreneko ordainke-

ta egiteko; hori da, adibidez, Arrasate, Eskoriatza eta Antzuolaren kasua.

Diputazioak ezarritako epeen arabera, udalek otsailean egin beharko dute itzuli beharreko diru kopuruaren erdiaren ordainketa. Arrasate, Eskoriatza eta Antzuolako alkateen arabera, aurtengo aurreikuspenetan kon-

tuan izan zuten diru hori, eta Aldundiak eskatutakoa beteko dute.

Beste erdia, hiru epetan

Beste erdiaren itzulketa egiteko, aukera desberdinak eman ditu Diputazioak. Nondik ordaindu baduten udalek, hiru epetan itzuli beharko dute, aurtun bertan.

ESANAK

"Beste erdia nola itzuli aztertu egin behar dugu"

INAZIO AZKARRAGA-URIZAR

"Kopuru osoa orain itzultzea ere posible izango genuen"

BEÑAT HERCE

Gizartekintza planari buruz

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du, bestetik, ez duela Kutzaren gizartekintza planean parte hartuko, "bazterketa politikoari eusten zaion arden".

Lau urteko plangintza diseinatzen parte hartzeko zen Aldundia, baina EAJ, PSE, PP eta UPyDren bazterketa salatu eta uko egin dio.

Bestela, 2014 urtera bitartean ordaindu ahal izango duten kreditu berezi bat eskatzeko aukera eman die Diputazioak udalei.

Azkenik, egoera larriena duten udalen diru kontuen kudeaketan Diputazioak parte hartzeko aukera ere eman zuten. Goienak kontsultatutako udalen kasua, behintzat, ez da hau izango.

Bizikidetzarako bost puntu aurkeztu ditu Baketik

Hainbat arlotarako proposamenak egin ditu '2012 indargunea' izeneko txostenean

J.I. | ARRASATE

Iaz hasitako ekimenari jarraipena emanez, bizikidetzeta eta berradiskidetzeta kultura berria bultzatzen hasteko bost proposamen egin ditu Baketik 2012 indargunea txostenean.

Politika eremuan, iraganaren berrikuspen kritikoari dagokionez, "gutxienez" azken 50 urteetan gertatutako giza eskubideen urraketa guztiei buruzko "egiazko txostena" egitea adostea proposatzen du. Lengoaiari edo jarrerai dagozkien iraganeko inertziak gindituko eta bizikidetzeta integratuaren "on gorena" sendotzera bideratutako politika, legegintza eta espetxe-ekintzak artikulatuko dituzten humanizazio neurriak adostea ere bai.

Beste maila batean, biziki-

detza eta berradiskidetzeta kultura berri bati etengabe laguntzeko herri mailako politikak bultzatzea iradokitzen die Baketik udalei.

Hezkuntza-eremuan, berriz, errespetuan eta giza duintasunaren eta giza eskubideen sustatzean oinarritutako bizitzarako, bizikidetzarako eta elkartasunerako hezkuntza proiektuak bultzatzea proposatzen du.

Gizarte zibilari dagokionez, desberdinen arteko elkarriketeta, topagune eta formazio eremuak sortzea proposatzen du, eta eguneroko bizitza pertsonalaren eremuan, azkenik, giza harremanetan eta harreman sozialetan bizikidetzeta kultura berriarekin bat datozen bizitzarako eta bizikidetzarako hautaketak bultzatzea.

Bi langile zauritu dira AHTren lanetan, Antzuolan

J.I. | ARRASATE

Egubakoitz arratsaldean gertatu zen istripua, Antzuola eta Ezkio-Itsaso arteko zatiko tuneletako baten lanetan, leherketa batean. Oraingo ezagutzen ez diren arrazoiengatik harrapatu zituen langileak leherketak; anbulantzia iritsi eta ezbeharraren lekuan hartatu zituzten aurrena, eta Gurutzetako ospitalera eraman zituzten gero, erreduren sailera. Langile bat anbulantzia eraman zuten eta bestea, berriz, helikopteroz.

Ez da AHTren Antzuola eta Ezkio-Itsaso arteko zati honen lanetan gertatu den lehenengo istripua; iazko abuztuan, 29 urteko langile batek hanka galdu zuen beharrean ziharduera izandako istripuan. Duela urtebete hasi zituzten AHTren zati honetako lanak.

Gipuzkoa atzeraldian sartuko da, Adegik dioenez

J.I. | ARRASATE

Adegiren arabera "oso-oso urte gogorra izango da" 2012a. Barne produktu gordinak %0,5 egingo omen du atzera, eta enpresen %5 itxiko ei dituzte.

Honela, iragarri dute aurtengo izango dela duela bost urte krisia hasi zenetik urterik gogorrena. Izan ere, herrialdea atzeraldian sartuko dela aurreikusi dute: "Alarma guztiak piztu dira", diote Adegitik.

Beraz, lanpostu galera izango dela deritzo Adegik. Uste du 1.500 lanpostu sortuko direla Gipuzkoan, baina 2.800 galduko direla ere bai; ondorioz, 1.300ekoa izango da galera. Lanpostu gehien erakuntza eta industria arloetan galduko ei da.

Migel Lazpiur, Asepeyoren Kontseiluko kide berri

J.I. | ARRASATE

Asepeyo mutuaren Iparraldeko Kontseilu Erregionaleko kide izendatu dute Migel Lazpiur bergararra. Confeskual eskual enpresaburuen elkarretako presidentea izan da 2005etik iazko uztailera arte eta Adegiko burua ere izan zen; baita CEOeko presidenteordea eta Innobasque berrikuntzaren eskual agentziakoa ere.

Bergarako Jose Lazpiur SA enpresa familiarreko ugazaba —anaiarekin batera— eta burua da. 1964 urtean sortutako enpresa da Lazpiur eta 2003. urtetik makina bereziak eta prezisioko utilajeak fabrikatzen dituzte bertan. Lazpiur Taldeko enpresetako bat da Bergaran kokatutakoa. Holding hori hainbat patenteren jabe da.

Nikaraguako umeen eskolatzea posible egiteko laguntza eske

- ▶ 'Etagukzergatikez!' egitasmoaren ikasturte berria
- ▶ 42 umerendako laguntza bideratzen dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Ane Pico, Maddi Urkia, Axier Arriaga eta Leire Larrañaga Huheziko Haur Hezkuntzako Magistritzako ikasleak ziren 2009an, eta hirugarren ikasturteko praktikak egitera Nikaraguara joan ziren: Diriamba herrira, 2009ko urtarrilean eta otsailean.

Hango umeek eskolatzeko zituzten arazoak aintzat hartuta *Etagukzergatikez!* egitasmoa ipini zuten abian. "Urtarrilean heldu ginenean umeak oporretan zeuden, eta udalekuak antolatu genituen. Ume mordoa egon zen gurekin, baina, otsailean eskolak hasi zirenean, gehienak kanpoan geratu ziren. Harri eta zur geratu ginen. Arrazoa? Ba eskola pribatua zen, eta gurasoek ez zuten ordaintzeko dirurik. Hileroko kuota bi euro bakarrik zen, baina ezin zuten ordaindu!", kontatu digu Ane Pico oñatiarrak.

Horrek elkartasun grina piztu zien, eta ume bakoitzari ikasturte bateko eskolak emateko zenbat diru beharko luketen kalkulatu zuten: 30 euro.

Zifra horrekin dei egin zuten lagunen eta etxekoaren artean, eta

ikasturte baterako laguntza batzea lortu zuten. "42 umerendako laguntza lortu genuen. Eskolako zuzendariak ez zigun trabarik ipini. Gurasoekin berba egin genuen. Garbi esan genien dirua hezkuntzarako izango zela, eta urtebeterako konpromisoa hartzen genuela", dio Maddi Urkia oñatiarrak.

"Eskerrik asko"

Baina, proiektua hazten joan da, eta oraingo otsailean laugarren ikasturtea hasiko dute, *Etagukzergatikez!* egitasmoko lau lagunek jasotako diruarekin.

"Urte urte garatu dugun proiektua da. Ikasturtea bukatuta kontuak egin, eta aurrera segitzeko aukera dugun ikusten dugu", diote.

Lehen deialditik herritarren erantzuna ikaragarria izan da, eta horregatik eskerrak eman gura dute. "Batez ere lehen deialdia egin genuenean, erantzun ikaragarria jaso genuen. Ondorengo urtetan apur bat txikiagoa. Baina pozik gaude. Horregatik, laguntza emandako guztiei eskerrak eman gura dizkiegu", esan digute Urkiak eta Picok. Partikularren laguntza ez ezik, ikastetxe eta enpresa batzue-na ere jaso dute.

Laguntzak non?

Gobernu kanpoko erakunde moduan eratuta ez daudenez, zailagoa zaie erakunde publikoek ematen dituzten dirulaguntzak lortzea. Horregatik, deialdia egin gura dute berriro ere herritarren artean. Informazio gehiago: etaguszergatikez.wordpress.com, etaguszergatikez@gmail.com edo Facebooken (Etagukzergatikez Diriamba) edo Euskadiko Kutxa-ko 30350170591700024710 zenbakian.

DATUA
30
EURO
Hori da Nikaraguako Diriamba herriko ume bakoitza eskolatzeko behar den dirua. Otsailean hasten dute ikasturtea.



Maddi Urkia, Ane Pico eta Amaia, Nikaraguako umeekin. | ANE PICO



Maddi Urkia eta Ane Pico eskolak ematen. | ANE PICO



Mondragon Unibertsitateko ikasleak eta arduradunak | MU

Trokelak diseinatu eta fabrikatzeko espezializazioa bukatu berri dute

M.B. | ARRASATE

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko hamar ikaslek trokelak diseinatu eta fabrikatzeko espezializazioa bukatu dute. Hori horrela, Fagor Arrasate, Copreci, Ulma Forja eta Loramendi enpresek sei hilabeteko kontratua egiteko asmoa azaldu dute. Ikastaroa 490 ordukoa izan da.

Espezializazioa indartzeko

Goi mailako heziketa zikloa egin dutenei prestakuntza espezializatu eskaintzeko sortu den eskaintza berriaren barruan antolatu dute ikastaroa.

Trokelak eta forja osagaiak aldatzeko sektorean antzeman diren beharrei aurre egitera bideratuta dago aipatutako espezializazioa.

Baionako ikasleak bisitan gurean

Arizmendi Ikastolak eta Baionako Lizeoak lehen trukea egin dute oraingo egunetan. Baionarrak gurera etorri dira. Eguraldiaren erruz ezin izan zituzten ekimen batzuk egin, baina Goiena ezagutzera etorri ziren.



XABI URTZELAI

Mondragonek geotermia proiektua bideratuko du

Etxebizitzetan energiaren erabilera murriztean datza egitasmo hori

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Stirlingek, Mondragon Componenteseko berrikuntza-guneak, berotasun geotermikoari buruzko proiektua lideratuko du Europan. Etxebizitzetan energiaren erabilera murriztean datza egitasmo berri hori.

Berrikuntza-guneak eskaintako datuen arabera, Europako Batasunean kontsumitzen den energiaren %40 etxean eta erakuntzetan kontsumitzen da. Hango Jabier Arantzetaren esanetan, energia gutxiago kontsumitzea eta iturri berriztagarrietako energia erabiltzea datozen urteotan Europako Batasunean hartu behar diren neurri garrantzitsuak dira, energiarekiko mendekotasuna txikitze eta negutegi-efektua eragiten duten gas gutxiago botatzeko.

Stirling zentroak arlo hori ikertu du, eta hainbat herrialde-tako teknologia zentroekin eta enprekin batera, EFFiHEAT izeneko proiektuaren liderra izango da.

Arantzetak proiektuaren berri eman digu: "Etxea berotu behar duzunean, berogailu elektrikoa jartzan baduzu, kilowatt bat erabiltzen baduzu, kilowatt bateko

berotasuna izango duzu; gasarekin kopuru hori biderkatu egiten da, eta bero-ponparekin hiruzpalau gehiago lortzen da. Proiektu berri honekin, kilowatt bakoitzeko bost kilowatt berotasun lortu nahi dugu".

10 eta 13 gradu artean

Horretarako, aipatu du geotermia erabiliko dutela. Honakoa esan du: "Kanpoan hotz egiten duenean zaila da hortik beroa ateratzea, eta ez da eraginkorra. Horregatik, geotermia erabiliko dugu; hain justu, metro bateko sakontasunean lurra tenperatuta egonkorra izaten du, 10 eta 13 gradu artekoa,



Abenduaren 13an eta 14an Otaloran batzartu ziren. | GOIENA

normalean. Berotasuna ateratzea askoz samurragoa da". Geotermia eta bero-ponpa bateratuz, energia kontsumoa asko murriztuko da. Arantzetak jakinarazi du filosofia hori dagoeneko erabiltzen dela, baina proiektu berri honen bidez eraginkortasuna handitu nahi dela. Honakoa esan du: "Orain kilowatt bat elektrizitatearekin hiru eta lau artean dago; guk bostetik gora lortu nahi dugu, eta teknologia hori garatu ahal izateko ez dugu kanpora joan beharrik, bailaran bertan daukagu".

Urte erdialderako, prototipoa

Abenduaren erdialdean Aretxabaletako Otalora jauregian batzartu ziren hainbat ikertzaile eta arduradun, proiektua martxan jartzeko. Besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko, Lituaniako, Bulgariako, Italiako eta Portugalgo ikertzaileak batu ziren han. Horren ondoren, urtea amaitu aurretik horren gaineko prototipoa gertu izango dutela aipatu du Arantzetak.

Honakoa azaldu digu: "Prototipoa abian izanda, datorren urte erdialderako proiektua amaitzeko asmoa dugu. Horrek esan gura du

ordurako amaituta izan beharko ditugula aparailua eta instalazioak, eta orduan prototipoa probatuko dugula".

78 bilioi aurreztu

Europako Batzordearen asmoa da 2020rako Europako Batasuneko estatuek %20 energia gutxiago kontsumitzea. Horretarako,

eraikin berri guztiek energia-kontsumo murriztua izan beharko dute, eta eraikin publikoek zero-energia eraikinak izan beharko dute. Mondragon Componenteseko berrikuntza gunearen datuen arabera, hori lortuz gero, urtean 78 bilioi euro aurreztuko lirarteke, milioi bat lanpostu sortu eta CO2 560 Mt gutxiago aireratu litzateke.

Bestetik, Arantzetak nabarmendu du orain arte Mondragon Componentesek ez duela ohiturarik izan horrelako proiektuaren lidergoa izateko. Horren harira, gogorarazi du teknologia berri batez ari direla berba egiten, eta horrelako egitasmoak abian jartzeko ohiturarik ez dela izan. Honakoa gaineratu du: "Horrek esan nahi du hasi gaitela teknologia arloan kolaborazioak egiten eta Europako sareetan sartzen. Beste hainbat dibisiotan aspaldi daude horrelako proiektuetan sartuta. Nik uste dut horrelako ohiturak hartzen baditugu, errazagoa izango dela teknologia berriak geureganatzea edo, gutxienez, gurrera ekartzeko aukera gehiago izango dugula".

DATUA

%75

AURREZTU

Berotasun geotermiko-ponparen teknologia berriarekin, energian %75 aurrezteko aukera emango du.

ESANAK

"Kilowatt bakoitzeko bost kilowatt berotasun lortu nahi da"

"2012. urte amaieran proiektua amaituko dugu"

JABIER ARANTZETA
MONDRAGON COMPONENTESEKO KIDEA

Ulma Fundazioaren jarduna, 2011ko ekintzen txostenean

Ulma Fundazioak antolatutako ekintza eta ekimenak Ulma Taldeak argitaratu duen iazko ekintzen txostenean jaso dira. Besteak beste, boligrafoak jasotzeko kanpaina, erretiratuendako yoga ikastaroa, nerabeendako sare sozialen gaineko tailerra eta menu osasun-garrien kanpaina jasotzen dira txostenean.

Fundaziotik gogorarazi dute ekintza horiek gertuko inguruneari zuzendu direla. Bada, horiek ikusteko interesa dutenek fundazioaren webgunean (www.ulmafundazioa.com) dago txostena eskuragarri, *Argitalpenak* atalean.

Eroski eta supermerkatu-kate handiak, kezkatuta

ACES elkarteko kide diren Eroski eta Espainiako supermerkatu-kate handienak "oso kezkatuta" azaldu dira zergak handitu direlako. Beldur dira kontsumoak txikitzen segituko ote duen, eta egoera horri buelta emateko, berau suspertzeo neurriak eskatu dituzte.

ACESek (Espainiako Supermerkatu Kateen Elkar-tea) Eroski (Center eta City supermerkatu formatuan), Carrefour, Dia, Lidl, Supercor eta Sabeco batzen ditu. Prentsa ohar baten bidez, joan den urtean txikizkariako salmentak %5,8 txikitu zirela ohartarazi dute.

Eguneroko kontsumo ohiturak aztertzekeo kanpaina Arrasaten

L.K. / M.B. | ARRASATE

Bihar, martitzena, iritsiko da Arrasatera Setem-Hego Haizea gobernuz kanpoko erakundeak abian jarri duen *Estonoesloqueparece.org* izeneko kanpaina. Bada, erakusketa ibiltariaren bidez eguneroko kontsumo ohiturak "kolo-kan" jarri nahi ditu; hain justu ere, moda, finantza eta elikaduraren gaineko begirada egiten da. Horretarako, Seber Altube plazan karpina informatiboa jarriko dute, 17:00etatik 20:00etara.

Kanpaina, esan bezala, hiru arlotan dago banatuta: batetik, erakunde horren Arropa Garbia kanpaina, arropen etiketaren atzean zer dagoen azalerazi nahi

dute, jantzi merkeen ordainetan zeintzuk diren ondorioak. Horren harira, Setemek honakoa uste du: "Modaren multinazional handiek ekoizten dituzten arropak herri txiroetako emakumeek egiten dituzte, gehienetan, eta haien lan-baldintzak esklabotzatik gertuegi daude, askotan. Guk, kontsumitzaile moduan, badugu zeregirik".

Elikagai fresko eta naturalak

Bestalde, janari-erosketaren gainean honakoa aipatu du erakundeak: "Munduan 925 milioi pertsona goseak daude, historian zehar elikagai gehien ekoizten den aroa gurea den neurrian.

Elikadura arloko enpresa handiek munduko merkatuaren %70 gobernatzen dute, mundu osoko pertsona ekoizleak estutzearen bidez lortuta". Horren harira, erakundetik nabarmendu dute "bidegabeko" kontsumo horren aurrean irtenbideak egon badaudela: hain justu ere, elikagai fresko eta naturalak, bertokoak eta bidezko merkataritzakoak.

Finantzak armak egiteko

Hirugarren ardatza finantza etikoa dira. "Ohiko bankuetako bezeroak eta akzionistak gara, oharkabeen, beraien etikoki zaltzako inbertsioetan laguntzen dugunok, besteak beste, debekatutako armen fabrikazioan, ingurumena suntsitzen ahalbideratzen edo esplotazio era anitzak baitmentzen dutenak", dio, azkenik, Setem-Hego Haizeakek.

Julio Sandoval | Etxeko ospitalizazio zerbitzuko burua

"Garrantzitsua da erabiltzaileen iritzia: erabili dutenen %100ek errepikatu egingo lukete"

- ▶ Etxeko ospitalizazioa zer den azaltzen dabil egunotan Julio Sandoval zerbitzu burua
- ▶ Debagoiengan 2008an hasi ziren zerbitzua eskaintzen; eguneko 20 paziente dituzte

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua tratamenduen eta bizitza estilo osasuntsuen gainean informatzen dabil egunotan. Bergaran egin zuten lehenengo hitzaldia; bihar, martitzena, Oñatin egingo dute 19:00etan, Kultura etxean. Etxeko ospitalizazioari buruz berba egingo dute.

Zer da etxeko ospitalizazioa?

Etxean ematen den zaintza da baina ospitalean dauden baliabide pertsonal eta teknikoekin.

Nori zuzenduta dago zerbitzu hau?

Edonork erabil dezake zerbitzu mota hau, beti ere eskatzen ditugun irizpideak betetzen badituzte. Irizpide mediko batzuk kontuan hartu beha dira. Gaixo ezegonkorrak, esaterako, ospitalean egoten dira, logelan edo UCIan. Horiek izan ezik, gainerako gaixo egonkorrek erabil dezakete zerbitzu mota hau. Beste irizpide batzuk ere baditugu; adibidez, gaixoa baimena eman behar du. Gaixoak nola lan egiten dugun jakin behar du eta bere baiezkora eman. Baita eskatzen dugu gaixoak zaintzaile bat izatea eta harremanetan jartzeko telefono bat izatea. Patologiari dagokionez, gaixo ezegonkorra izan ezik ia beste guztiak onartzen ditugu.

Hortaz, gaixoaren baimena ezinbestekoa da.

Bai, lehenengo azaltzen diegu euren patologia ze onura izango dituen zerbitzu hau jaso ezker. Gure lan egiteko modua erakusten diegu eta bere beharretara zela egokituko garen azaltzen diegu. Hala bada, informazio orria onarpen orria ematen dizkiegu. Onarpen orrian jartzen duen bakarra da ezagutzen dela nola lan egiten duen. Gaixoak jakin behar du bisitak noiz diren eta bisita horietatik kanpo gurekin kontaktuan jartzeko telefono bat dagoela. Urteko egun gutzietan, 24 orduz ematen dugu estaldura.

Zerbitzu hau onartzen ez dutenak ospitalean geratzen dira?

Guregana iristen diren pazienteak lehenengo mailako arreta zerbitzutik baldin badatoz, ohikoena da zerbitzuaren berri izatea eta auren onarpena izatea. Pazientea plantatik baldin badator, euren gana joaten gara eta azaltzen diegu zergatik uste dugun etxean jaso ahal dezakeela zerbitzua. Ados baldin badaude etxera joaten dira. Pazientea larrialdi zerbitzuko baldin bada, min zorroztzoak izaten dituztenez, zailagoa izaten da onartzea.



Julio Sandoval etxeko ospitalizazio zerbitzuko burua. | A.E.

Noiz hasi zineten Debagoieneko ospitalean zerbitzu hau ematen?

2008ko ekainaren 2an hasi ginen zerbitzu hau ematen gurean. Helburua izan da Debagoieneko pazienteei zerbitzu hobe ematea. Zerbitzu mota hau aspalditik eskaintzen da; Gurutzetan, esa-

terako, 30 urte doaz zerbitzuarekin. Helburu nagusia zerbitzua etxean ematea da uste dugulako ona dela euren gaixotasunerako. Euren ohean daude, etxeko komunean... jatorduak ere euren arabera egiten dute eta eurek gura duten jana. Gure bisita orduak ere euren arabera molda dezakegu; batez ere, familia artekoen arabera. Familia artekoei autoa hartzea ekiditen dio zerbitzu honek. Izan ere, ospitalea Arrasaten dago, eta paziente batzuk autoz 30 minutu behar dezakete hona etortzeko. Bidaia ekiditea ona da ez bakarrik denboragatik eta merkeagoa delako; baita, sor dezakeen nahasteagatik ere. Gainera, uste dugu komunikazio handiagoa dagoela, banakakoagoa da. Familiari gaixotasunaren gaineko azalpen gehiago ematen dizkiegu eta modu horretan familia artekoek hobeto ezagutzen dute euren senitartekoaren gaixotasuna.

"Etxean ematen da zaintza baina ospitaleko baliabideekin"

"Irizpide medikuak kontuan hartuta edonork erabil dezake zerbitzua"

Zeintzuk dira zerbitzu hau erabiltzearen abantailak?

Gestioan abantaila asko daude. Kostua plantan egotea baino txikiagoa da: ostalaritza kostua kentzen da, plantan ematen diren zaintza zerbitzua... eta, gainera, ohe gutxiago erabiltzen direnez,

"Plantan egoteak baino kostu txikiagoa du zerbitzu honek"

"Pazientearekin komunikazio handiagoa dagoela uste dugu"

ohea erabiltzea beharrezkoa dutenendako ohe gehiago uzten ditugu.

Gauetz eskaintzen duzue zerbitzua?

Ez, gauetz ez. Guk bi txanda ditugu: goizekoa eta arratsaldekoa, 21:00etan amaitzen dugu. Begira, guk abisu bat edo bi izaten ditugu hilean; hortaz, ez dugu gauetz zerbitzurik. Konbenio bat egin dugu emergentziekin eta eurak arduratzen dira gauetz sor ditezkeen abisuez. Etxe bakoitzean gaixoaren historia guztia uzten dugu: orriak karpeta garden batean uzten ditugu, alde batean harremanetarako kontaktua uzten diegu, eta beste aldean tratamendua. Barruan historia guztia dago; hala, gauetz emergentzietako medikua baldin badao pazientearen historia guztia eskura du.

Erabiltzaileek ze iritzi dute zerbitzuaren gainean?

Nire ustez garrantzitsuena da pazienteek duten iritzia. Pazienteek iritzi ona dute. Urtero egiten du Osakidetza asebetetze inkestak bat. Pazienteek hau da baloratzen dutena: erosotasuna, tratu, osasun langileen kompetentzia maila, informazioa, intimitatea, mina arintzea eta ordutegiaren malgutasuna. Zerbitzua erabili duten %100ak errepikatu egingo luke.

Zenbat zaudete lanean?

Lau mediko eta bost erizain gaude, eta hiru auto ditugu.

Eta zenbat pazientek erabiltzen dute zerbitzua?

Iaz, esaterako, 580 alta izan genituen. Esan genezake egunean, gutxi gora behera, hogeitazientz izaten ditugula.

Pazienteak epe motzekoak eta epe luzekoak izan daitezke?

Bai, patologia oso ezberdinak artatzen ditugu. Zeintzuk artatzen ez ditugun esatea samurragoa izango da. Ez ditugu hartzen: gaixo ezegonkorrak, ez duenak zerbitzua onartzen, gaixo psikiatrikoak ez ditugu hartzen (etxean sor dezaketen arazoagatik) eta lehenengo mailako arreta zerbitzuko gaixoak. Egiten dugun %25a kirurgia patologia izaten dira: kirurgia generala, digestiboa, baskularra, traumatologia, ginekologikoa, urologia... Patologia mediko zorroztzak eta kronikoak ere etxean artatzen ditugu.

Martitzenean Bergaran egin zenuen hitzaldia. Zer galdetzen du jendeak?

Galdetzen dutena da ea eurek zerbitzu hau erabil dezaketen. Zalantza asko izaten dituzte horren inguruan.

ZABALIK

IÑAKI CASAS
http://goiena.net/iritzia/



'72ko erreserba handia'

Aurten muga gaindituko dugu, 40 urte beteko ditugu. Ematen du atzo bertan sartu ginela San Viatorren, 6 urterekin. Sagarrio andereñoa lehen letra eta kalkuluak irakasten hasi zitzaigun, eraikin garai hartan, Santa Barbararen magalean.

Mari Flor, Najera, Alberto, Clara, Begoña, Donfer, Txalo, Mikel, Igone, Joxe Arkaute, Cimiano, Txintxu, Koldo eta Goio zuzendariak euren eskuetan izan zuten gure prestakuntza akademikoa. Eskerririk asko, guztiei. Oso lan ona egin zuten, nahiz eta batzuetan gauzak erraz jarri ez bagenizkien ere. Aitzakia genuen, edo hori pentsatzen genuen: Debagoieneko azken unisex-gela zen gurea, munduaren %50ekin ez genuen harremanik, eta, jakina, EGBko 6. ikasturtetik aurrera aztoratuta geunden.

Bada, une egokia da balantzea egin, eta aurrera egiteko; izan ere, 40 urteak beteta ditugun kideok, guri dagokigu zezenari adarretatik heltzea, galdutako distira ekonomikoa eta soziala berreskuratzeko.

Industria-birmoldaketaren garaian hazi ginen, baina kooperatibismoaren babesean; izan ere, kooperatibismoak Arrasate eta inguruak babestu zituen gure herrialdeko beste zona batzuek bizi izan zuten krisialdi sakonetik –Bilbok, adibidez–. Kooperatibismoaren babesetik ihes egiten zuten enpresa batzuek bakarrik bizi izan zituzten itxierak eta deslokalizazioak. Gaztaroa, unibertsitatea, lanean sartzea... hazten zihon ekonomia baten pean eman genuen. Ez genuen zailtasun handirik izan, baina argi ikusi genuen nolako esfortzua egin zuten gure aita-amek euren etorkizuna eta geurea eraikitzeko.

80ko eta 90eko hamarkadetan jaio zirenek ez zuten sakrifizio-garai hura bizi izan, baina ikusten ari dira euren lan-etorkizuna kolokan dagoela. Bada, haien haserreari gehitzen badiegu gure esperientzia eta gure aita-amek egin zutenaren oroimena, emaitza izango da etorkizun ziuerra, distira txikiagokoa, orekatuagoa eta neurritsuagoa. Bada garaia *72ko erreserba handia* osatzen dugunok gure kupel-urteak praktikan jartzeko.

USTEAK USTE

JON BEREZIBAR | jberezibar@goiena.com

Urtebete kea itzultzeko

Urtebete igaro da Tabakoaren Legearen azkeneko erreformatik, tabakoa jatetxe eta tabernetatik kanporatu zituen horretatik. Baina itzuli da kea tabernetara, edo bai, behintzat, askotara. Ordu batetik aurrera isileko lege batek esaten du ez dakit nongo tabernan erretzea libre dela. Egia da gutxi batzuk direla eta erretzaile ongi heziak asko direla eta kanpoan erretzen dela, baina nahikoa da lau *errebelderen* zigarroak etxera jertsea tabako kiratsez eta gogoa sutan itzultzeko. Aldamenekoaren osasun kalteari buruz ez dugu ezer esango. Legea inposatzailea dela esango dute askok, baina tabernetako erretzaileak inposatzaileagoak ez ote dira baimen faltarengatik?

KALE INKESTA

Zer iruditzen Aldundiak Nafarroako ikastola bat laguntzea?



MIGEL GASTAÑAGA
ARRASATE

"Ondo iruditzen zait, baina betiere, hemen falta ez zaigun bitartean eta eurek gu baino behar handiagoa izanez gero, gu ere beharrean gaude-eta".



ASIER ARRIOLA
ARRASATE

"Oso ondo iruditzen zait. Izan ere, Nafarroako ikastola batek ez badu dirurik jasotzen eta beharrean badago, laguntzea ondo dago".



KONTXI DEL CAMPO
ARRASATE

"Ikastoletan baino, eskola publikoetan inbertitu beharko luke; ni horren aldekoa naiz. Gainera, Nafarroako Gobernuak lagundu beharko luke".



OXEL URRA
ARRASATE

"Egia esan ez dut oso zentzuzkoa ikusten ikastola bati laguntzea. Nire iritziz Diputazioak eskola publikoei lagundu beharko lieke".

HANDIK ETA HEMENDIK

Pussy Riot: Anonymous + punk feminista Errusian

Gorka Bereziartua
http://argia.com/boligrafo-gorria/

Zortzi lagun aurpegiak kolorez estalita Kremlinaren aurrean abesti hardcoreta batekin Vladimir Putin egurtzen.

Protesta hori egiteagatik atxilotu zituzten urtarilaren 20an Pussy Riot taldeko zortzi kide Moskun. Anonymousen estiloa gustuko baduzu hau gehiago gustatuko zaizu: Anonymous da, gehi punk feminista; bonba bat, Plaza Gorrian bezain ondo lehertuko litzatekeena Ajuria Enean –esateko modu bat da, ez nuke nahi Rafael Bengoak noizbait ez-dakit-zer artxibo desagerrarazi izana leporatzea–.

Iazko irailean sortu zen Pussy Riot, Vladimir Putinek herrialdeko presidentzia berriz hartu nahi zuela jakinaraztean; emakumez osatua dago %100 eta ez dute nor diren esan nahi. [...]

Bikini Kill taldearen eta Riot Grrrl mugimenduaren

inspirazioa aipatu dute egin dieten elkarrizketaren batean: "Amankomunean daukagu lotsagabekeria, politikaz kargatutako hitzak, diskurtso feministaren garrantzia, estandarra ez den emakume-irudia..." azaldu dute; "diferentzia da Bikini Killek musika-aretoetan jotzen zuela eta guk baimenik gabeko kontzertuak ematen ditugula. Orokorrean, Riot Grrrl oso lotua zegoen Mendebaldeko instituzio kulturaletara eta horien parekorik ez dago Errusian". Plaza Gorriko ekintzarekin (behean irudiak) mundu osoko hedabideetara iritsi da taldea; ea zenbat denbora pasatzen den diskoetxe multinazional bateko "pentsalari" batek antzeko talde bat aurrefabrikatu baino lehen –edukiz hustuta eta probokatzen, baina pasa gabe, noski–. [Sarean bideoa]

Puntillista

Amagoia Iban
http://berria.info/blogak/begia/

Robot bat Picassoren *Guernica*-ren barrunbeak arakatzen ari da, zaharberritu beharko ote den ala ez erabakitzeko. Txatartegitik

atera berria ematen du *Síndrome de Guernica (Gernika Síndrome)* artelanak. Madrilen ikus daitezke biak: Reina Sofia museoa robotak; garai batean hiltegi izandako Matadero guneko hozkailu erraldoian (sic) Fernando Sanchez Castilloren obra.

Donostiako No-do laborategian hain ezaguna zen Francoren Azor ontziko pieza gutxi batzuk apartatu eta gainerako guztia txatarra kubo bihurtu. Horixe *Gernika Síndrome*. Boterea eta propaganda ikurrak, diktadura eta ondoren galeria batean salgai. Manuel Fraga Iribarne ministro frankista kameleoiak bazekien halakoez. Berak sorturiko alderdia Espainian gehiengo osoz nagusi dela hil da, konturik inon eman gabe eta demokrata domina jasota. Baltasar Garzon epailea 36ko gerrako eta frankismoko zapalduen zaindaria nagusi eta bakar agertzea, berriz, puntu bat gehiago da etengabe zaharberritutako oihal horretan. Halakoxea da Picasso, kubismo eta Gernika guztien gainetik egoskor ageri den koadroa. Puntillista erabat.

Francisco Francoren Azor laketontzi handia, kubo sorta bihurtuta, Madrilgo Matadero gunean. 2012-01-23. EFE

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatibismo Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Aregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Julen Iriando
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

Sahararen aldeko kanpainaren erantzunarekin pozik Bergaran

- ▶ Bubisher elkarteak zazpigarren urtez burutu du sahararren aldeko kanpaina
- ▶ Sahararen aldeko euskal karabana datozen egunotan aterako da Alacant aldera

EDU MENDIBIL | BERGARA

Aurreko urteotan bezala, egoskariak (dilstak, garbantzuak eta beste), pasta, olioak, azukrea, atun eta sardina latak, helduendako fardelak eta konpresak batzen izan dira Bubisher elkarteak lagunak Gabonen ataririk hona. Aurreko astean amaitu zuten bilketarekin eta pozik dira jasotako erantzunarekin: 4.528 kilo jaso dituzte. Eskatutako denetik jaso badute ere, antza arrosa jaso dute gehien aurten deitutako kanpainan.

Nubi eta Iesbaa elkarteak desagertu ondoren, Debagoienean, gaur egun, Bubisher da Sahararen alde lanean jarraitzen duen bakarra. Esandako moduan, Gabonen atarian, abenduaren 20an ekin zioten bilketari eta hilabete batez jardun dute. Elgeta, Antzuola eta Soraluze herrietara ere jo dute eta hauek izan dira herriz herri batutakoa: Elgetan 25 kilo jaso dituztela adierazi digute Bubisherreko arduradunek; Soraluzen 212; Antzuolan 560 kilo eta, azkenik, Bergaran, 3.731 kilo izan dira jasotakoak. Gabonen ostean eskoletan jarri zuten kanpaina abian. Joan den astean Oxironoko azokako satora, garai batean Super BM supermerkatua egon zen lokalera eraman zuten material guztia eta gaur, astelehena, Donostiara bidaliko dute.



Bubisher elkarteak materiala kaxetan sailkatzen. Gaur bidaliko dute Bergaran jasotako materiala Donostiara. | JON ANDUEZA

Jendearen erantzun ona

Iazko Gabonetako janari bilketa udaberrira arte atzeratu zuten eta hain denbora laburrean bi bilketa egiteagatik zertxobait beldur ziren Bubisherrekoak. Bestalde, krisiarekin-eta gobernu kanpoko erakundeekiko konpromisoa jaisten hasi dela zabaldu da han eta hemen. Baina Bubisherrekoak pozik daude azken kanpaina honetan lortutakoarekin. Bibi Andueza taldeko ordezkariak zera esan digu: "Hasieran pentsatutakoa baino gehiago batu dugu. Izan ere, ekainean bukatu genuen aurreko kanpaina eta tarte gutxi egon da bataren eta bestearen artean... Baina zorionez aurreko urteotako kopuruengandik hurbil ibili gara, bost tona biltzetik gertu hain zuzen".

Esan beharrik ez dago eskerrak eman nahi dizkietela laguntza eman duten guztiei, bereziki Soraluze, Elgeta, Antzuola eta Bergarako udalei, ikastetxeei eta



bilketan kolaboratu duten denda eta komertzioei. DHL garraio enpresak egindako lana ere azpimarratu dute, izan ere beraiek arduratuko direlako materiala gaur Donostiara kamioetan bidaltzeaz.

Euskal karabana, gertu

Euskal Herrian batutako material guztia batu eta Sahararen aldeko

euskal karabana Alacant aldera aterako datozen egunotan. Handik itsasontziz bideratuko dute laguntza Oranera eta handik Aljeriako Tindoufeko errefuxiatuen eremuetara. Fronte Polisarioaren eta Aljeriako ejerzitoaren babesa izango du karabana solidarioak.

20 bat lagun Bubisherren

Sahararen subiranotasunaren aldeko Bubisher elkarteak 2005ean sortu zuten Bergaran. 20 bat lagun ari dira elkartearen bueltan gaur. Elkarteak sortu aurretik ere herritar talde batek Sahararen aldeko janari bilketa egiten zuten Gabonen inguruan. Debagoieneko beste zenbait herritan ere antzeko kanpainak egiten zituzten. Gaur, esan bezala, Bubisherrek bakarrik eusten dio sahararrekiko lotura estuari. Hurrengo urtean ere, ziur egon, ez dute hutsik egingo.



Oxirondo azoka sotoan batu dute jasotako material guztia. | JON ANDUEZA



Aranzadi ikasleek giro paregabea jarri zuten Bergarako kaleetan zapatu goizean zehar. | JOSETXO ARANTZABAL



Leire Zurututza eskoriatzarra banakoan, plaza osoa begira duela. | JOKIN BEREZIARTUA



Oñatin 87 kinto elkartu ziren atzo; Etxe Haundi jatetxean bazkaldu aurretik harrapatu genituen. | JULEN IRIONDO



Aretxabaletako kintoak atzo, Herriko plazara heldu berri. | JOSETXO ARANTZABAL

DEBAGOIENA

Santa Ageda: giro hotzean, baina ez-tarriz sano eta kanturako gogotsu

Eguraldiak ez zuen lagundu baina zapatua izanik, besteetan baino jende gehiago aritu da kantuan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Santa Ageda bezperak hamaika irudi utzi dizkigu aste bukaeran, Debagoiena osoan. Herri bakoitzeko ohituretatik haratago, kantuan eta eskean irten ziren guztiek hotzaren aurrean ez-tarriak berotzeko borondate irmoa erakutsi zuten, baserri inguruak eta herrietako kaleak alaituz.

Aurten, gainera, eguraldiak lagundu ez arren baina zapatua zenez, ohi baino jende gehiago animatu zen kantuan eta eskean

irtetera. Arrasaten, 70 bat lagun elkartu eta bi taldetan banatu ziren: batzuk Zigarrola aldean eta besteak, berriz, Bedoña eta San Andres auzoetan. Goizeko lehen ordutik gaua ondo sartu arte aritu ziren kantuan eta eskean. Bazkaldu aurretik udal-letxeko eskaileretan eskainitako emanaldia urtero bezain polita eta hunkigarria izan zen. Udal ordezkariak eta hainbat herritar elkartu ziren. Bazkalostean, besteak beste, Iturbide egoitzan eta

Portaloian abestu zuten. Amaitzeko, 21:00etan Herriko plazan eskaini zuten azken saioa.

Bergaran, bestalde, Aranzadi ikastolako ikasleak eta helduen abesbatzak alaitu zituzten kaleak. Herriko plaza eta Irala kalean giro paregabea izan zen goizean zehar. Eta arratsaldean, nola ez, Alai Taldea abesbatzak ez zuen hutsik egin.

Leintz Gatzagan, berriz, zapatu arratsaldean zenbait haur eta guraso aritu ziren kantuan, giro

hotzari aurre eginez. Bestalde, Oñatiko kintoak atzo irten ziren Santa Ageda eskean. Guztira, 87 lagun elkartu ziren. Goizean kantuen han eta hemen aritu ostean Etxe Haundi jatetxera joan ziren bazkaltzera. Datorren zapatuan, ohitura denez, baserri auzoetan ibiliko dira.

Kintoen tradizio berezia

Aretxabaleta eta Eskoriatzan modu berezian bizi da jaia. Eskoriatzan aurten kinto izatea toka-

tu zaienez aparte, Kinttada Eguna deitu zuten Eingeinke elkarteak. Hala, zapatuan 19:00etan banako dantza herrikoa egin zuten koa-drilek. Hori baino lehenago, noski, aurtengo kinto bakoitzak bere banakoa eskaini zion herriari. Saioa hasi aurretik urduri zeuden gehienak. Ez zen gutxiagorako, plaza jendez lepo zegoen-eta.

Aretxabaletan ere kintoek ez zuten hutsik egin. Atzo, goiz eta arratsalde etxer etxe abesten eta eskean aritu ostean –bapo bazkalduta, noski– 19:00etan Herriko plazan zuten hitzordua, herritarren aurrean dantza egiteko. Jon Ander Alberdi eta Nagore Uriarte izan ziren saioa hasteko ardura hartu zutenak. Plaza aretxabaletarrez lepo, eta hasieratik txaloak eta hitz politak. Banakoak etorri ziren gero eta baita beste zenbait dantza. Bi hitzetan esanda, giro paregabea.



IKER ESTEBAN
ESKORIATZAKO KINTOA

"Elurra egin arren, ondo joan da eguna eta diru asko batu dugu baserri berriz. Dantzak ondo entseatu ditugu eta ondo irten da. Orain parranda egiteko unea da".



NAGORE URIARTE
ARETXABALETAKO KINTOA

"Oso ondo joan da eguna. Goizean abestu egin dugu eta ederto bazkaldu ostean giro paregabean ibili gara. Dantzak ondo entseatu ditugu eta ederto irten dira".



RAFA AZKOAGA
KOROKO KIDEA ARRASATEN

"Zigarrolakoa naiz eta Bartzelonan bizi arren, urtero etortzen naiz. Abestea asko gustatzen zait; giro ederra izaten da beti. Hiru edo lau egun egoteko aprobetxatzen dut".



JON ANDER ALBERDI
ARETXABALETAKO KINTOA

"Luzea izan da eguna, etxer etxe aritu garela, gora eta behera; azkenerako nekatuta. Dantzan irten aurretik urduri geunden baina azkenean ondo irten da dena".



GREGORIO IGARTUA
SOINU JOLEA BERGARAN

"Azken urteetan beti irten naiz soinuarekin Santa Ageda bezperan. Eguraldiak ez du lagundu; ahotsa ez dugu zaindu eta zigortu egin gaitu...".



Gatzagan haur eta gurasoak elkartu ziren kantuan egiteko. | JOKIN BEREZIARTUA



Iñaki Maidagan, koroa zuzentzen. | J.B.



Jon Ander Alberdi, dantzarako gertu. | J.A.



Santa Agedako koroa Arrasateko udaletxeko eskaileretan, zapatuan. | J.B.



Haurra makila eta guzti, Bergaran. | J.A.



Eskoriatzako kintoa, txapela bota eta dantzarako gertu. | J.B.



San Martin eskolako haurrak, egubakoitzean. | A. AJURIAGERRA



ISABEL GALLASTEGI ETA MERTXE SALABERRI
ABESBATAZAKO KIDEAK ARRASATEN

"Udaletxeko emanaldia hunkigarria izan da, jendea ikusi besterik ez zegoen. Abesteko ohitura dugu aspalditik eta aurten, zapatua izanik, gu ere animatu gara. Eta gu moduan, beste batzuk. Orain, bazkaltzera; desiatzen gaude tarte batez esertzeko".



MAIALEN SALIDO ETA LEIRE ZURUTUTZA
KINTOAK ESKORIATZAN

"Eguraldia txarra izan arren ondo joan da. Baserrietan ibili gara eta hotza pasa arren gustura aritu gara. Diru asko batu dugu, gainera. Plazan egin dugun banako dantzan erritmoa hartzea apur bat kosta arren gero berriro irteteko gogoekin geratu gara".



ELGETA

JOSETXO ARANTZABAL

Meza ostean, salda eta txorizoa

Elgetako Arantzeta auzoko San Blas ermitan atzo egin zuten San Blas eguneko ospakizuna. Elgetako parrokoak esan zuen meza, 13:00etatik aurrera. Mezaren ostean, hotzari aurre egiteko, salda eta txorizoa gozatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Aurten Zezeaga baserriak izan du ermitako giltza eta haren ardura, eta beraz, eurak antolatu behar izan dute ospakizuna.



BERGARA

JOSETXO ARANTZABAL

San Blas: txerria, protagonista

San Blas eguneko ospakizuna giro ederrean joan zen atzo Bergarako Buruñao auzoan, trikitilari eta dantzarien saioez girotuta. Mezaren ostean elkartean txorizoa eta salda beroa hartzeko aukera egon zen; hotzari aurre egiteko errezetarik eraginkorrena. Jende askotxo batu zen eta, urtero moduan, ekitaldi arrakastatsuenen artean izan zen txerri harrapaketa. Aurten ere ez zuen ihes egiterik izan.



LEINTZ GATZAGA

JOSETXO ARANTZABAL

Lizaso eta Zubeldiarekin, ederto

Egubakoitzean Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldia bertsolarien eskutik bertso afaria izan zen Leintz Gatzagako Soran jauregian. 53 lagun elkartu ziren mahaiaren bueltan eta giro ederrean aritu ziren bertsolariak zein bertaratutakoak, bi ordu inguru iraun zuen bertso saioan: "Kanpoko hotza ahazteko epeltasun ederrean ibili ginen", adierazi du Ibon Oñederra gatzagarrak.

Iturrieta sagardotegia

BEREZITASUNA: etxeko sagardoa (aurten, Eusko Labelarekin)

ERREZETA

Osagaiak:

- Sagardo on bat (nahiz eta kupela ezberdinak izan).
- Lagun batzuk (ez gutxi, ez gehiegi)
- Ondo pasatzeko gogoa.
- Lotsatia ez izatea
- Dantza egiteko eta abesteko prest egotea.
- Euskaraz berba egitea (ikasten bazaude, aukera ezin hobea).

Urratsak:

- Ez daude! Berehala konturatuko zara kupelen aurrean zaudela ezezagun batzuekin berba egiten eta... nork daki!
- Ez egin nahasketarik, sagardoa bakarrik edan. Sagardoak bakarrik ez du arriskurik.
- Nahiz eta gaizki abestu edo dantza egin, animatu eta gozatu, zure gorputzak esker-tuko du eta.

Ondo ibili eta ondo etorri!



Jatetxe Gida



Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
www.errekajatetxea.eu

Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



GARAIA
JATETXEA

Garaia jatetxea

Garaia Berrikuntza Gunea / Goiru kalea 1 / ARRASATE
943 71 02 28 / 647 83 23 86
ostalaritza@grupogureak.com

Eskaintza

- Self-service bazkari merkeak.
- Urtebetetzeak
- Taldeentzako eta ospakizunentzako bazkari eta afariak.
- 160 pertsonarentzako jangela
- Aparkalekua eta terraza



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Eguenetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua.
- Etxeko sukaldaritza bailarako produktuekin.
- Karta zabala. Menu bereziak.
- Bertako sagardoa.



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria
Mas Gastronomía 2009.



Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Asun Billar | EAJko zinegotzia (1991-2003)

- ▶ EAJko zinegotzi moduan hiru agintaldi egin zituen Angel Iturbe alkatearekin
- ▶ Gizarte Zerbitzuetako batzordeburu izan zen 12 urtean
- ▶ Besteak beste, eguneko zentroa egin eta Pake Leku eraberritu zuten

"Orain ez nintzateke zinegotzi aurkeztuko, baina udal jarduna oso aberasgarria da"

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Asun Billar (Oñati, 1948) EAJko zinegotzi izan zen 12 urtez. Agintaldi "gogorak" izan zirela esan digu, "batez ere lehena. Diru gutxi genuen", baina, era berean, udal jarduna "aberasgarria" dela esan digu. Gizarte Zerbitzuetako batzordeburu izan zen hiru agintalditan. Orduan egindako proiektu esanguratsuen errebasoa egin dugu haren etxean, Zubillagan.

12 urtez zinegotzi. Nolatan heldu ziren Udalera?

Orduan, Oñatiko Caritasen nengoen lanean, eta askotan joaten nintzen Udalera laguntza eta diru bila eta proiektuak aurkeztera. Angel Iturbek, alkatetzara aurkeztu zen lehen urtean, proposatu zidan zerrendan joatea. "Diru eske etorri ordez, zatoz lanera", esan zidan. Caritasekin laguntza eske joaten ginean, Angel zen batzordeburu. Etxekoekin kontsultatu, eta baiezkoa eman nuen.

Esango nuke zinegotzi izan zinen garaiko oroitzapen ona duzula?

Bai, zalantza barik. Oso aberasgarria da udal jarduna. Hiru agintalditan Gizarte Zerbitzuetako batzordeburu izan nintzen eta herritar askorekin izan nuen hartu-eman. Gainera, beste hainbat batzordetako kide ere izan nintzen eta aukera izan nuen elkarte, kolektibo eta pertsona asko eza-gutzeko.

Oroitzapen onak ditut, bai udal langileekin eta teknikariek izandako jardunarekin, baita gainerako alderdietako zinegotzietan izandakoarekin.

Hiru agintaldi egin zenituen.

Nik bete ez nuen arren, beti pentsatu izan dut bi agintalditan behin aldatu egin beharko lira-



Asun Billar, etxean, Zubillagan, sarreran dituen zuhaitzen ondoan. | MIREIA BIKUÑA

tekeela politikariak. Zortzi urteko zortzi urtera, pertsona berriak, ideia berriak sartzea ezinbestekoa eta onuragarria dela uste dut. Izan ere, pentsamendu poli-

tiko bat edo beste izan, aldatzea komenigarria da. Nik uste dut ekarpen interesagarriak egin ditzakeela Udalera heldu berri den pertsona batek.

Bai, baina zuk hiru egin zenituen?

Hala da. Lehen urtea oso gogorra izan zen. Ez genuen dirurik eta Udalak 40ko zorpetze maila zuen. Izugarri handia. Hark

agintaldi osoa baldintzatu zigun. Bigarrena hala-moduzkoa izan zen eta hirugarrena ona. Zortzi urte nahiko txar pasata, hirugarren agintaldira aurkeztea erabaki nuen.

12 urte haietan abian jarritako ze proiektu azpimarratuko zenituzke?

Eguneko zentroa, zaharren egoitza handitzea, Txiki Txoko haurreskola, Pake Leku eraberritzea, etxebizitza sozialak, eta Gizarte Zerbitzuak Bidebarrietan duen bulegoa. Horiek abian ipini ziren. Ni irten nintzenetik, eraikin horietan berrikuntzak, lanak eta beste egin dituzte.

Arautegi batzuk ere ipini genituen abian: hirugarren munduarendako laguntzak zehazteko arautegia eta preso senideei bidaietarako laguntzak emateko arautegia. Lehenak izan ginen arautegi hori egiten. 1998an egin genuen. Gainera, emakumeendako ikastaroak antolatzen hasi ginen eta drogamenpekotasun prebentzio zerbitzua ematen hasi ginen Agipad-ekin.

Lehen agintaldian etxerik etxeko zerbitzua ematen zuten langileekin enpresa bat sortu genuen. Banaka egiten zuten lan, eta ikusi genuen elkarrekin lan eginez euren baldintzak asko hobetuko zirela.

Asko aldatu da herriaren egoera politika utzi zenuenetik?

Bai. Maiatzean bederatzi urte beteko dira udal jarduna utzi nuenetik. Zinegotzi izan nintzen urteetan asko aldatu zen Oñati, eta ordutik gaur egunera arte, ere bai. Gainera, esango nuke aldatetak hoberako izan direla.



Asun Billar, EAJko zinegotzietan eta Angel Iturbe alkatearekin. | GOIENA

"Nire ustez, zortzi urtean behin aldatu egin beharko lirateke politikariak"

"Lehen urtean 40ko zorpetze maila zuen Udalak, eta ez geneukan dirurik"

MAGAZINEA

GOIENA TELEBISTA | GOIENA MAGAZINEA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA, 19:45 | ARRITXU BARRUSOK AURKEZTUA



HAPO: erakusketa itxita, Hirigintza Kontseiluak helduko die ekarpenei

Hilaren 15era arte zabalik dago oraindik Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aurrerapenaren gainean edozein iradokizun egiteko epea

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Zapatuan itxi zuten Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) aurrerapena herritarren artean zabaltzeko erakusketa. Abenduaren 16a ezkerrean egon da zabalik eta ordutik, Juan Antonio Urdangarin Hirigintza Saileko teknikari buruaren arabera, "jende askotxo" gerturatu da Kulturatera. Oraindik ez dago parte hartzearen gaineko datu zehatzik; asteon emango dituztela adierazi du Urdangarin.

Hirigintza Kontseiluaren ordua

Erakusketa itxi arren, otsailaren 15era arte egin daitezke ekarpenak BAZen. Herritarren proposamenak jaso ostean, plana idazteko oinarritzko irizpide eta helburuak zehaztuko dira. Hausnarketa lan horretan Hirigintza Kontseilua arituko da.

Kontseilu hori aspaldi osatu zen denetarik talde, elkarte eta eragileetako ordezkariak osatuta. Izan ere, helburua da arrasatear guztiak ordezkatzeko dituen taldea egotea kontseiluan. Urdangarinaren arabera, 30 lagunetik gora daude Hirigintza Kontseiluan eta aldatetarik ezean, martxoaren 29an egingo dute lehen bilera. Bilera bat baino gehiago egin beharko dute eta, beraz, Hirigintza Sailek kalkulatu du Aste Santu ostean



Urtarrilaren 19an Juan Antonio Urdangarin Hirigintza Saileko teknikari buruak bisita gidatua egin zuen. | JOKIN BEREZIARTUA

jartzea buru-belarri kontseiluak ateratako ondorioekin lanean.

Ondorio horiek jasotzen dituen agiria jendaurrean erakutsiko da hilabetez, eta eskumenak dituzten bestelako administrazioei ere jakinaraziko zaie. Erakusketa horretako emaitzak jaso eta behin behineko onartuko da agiria,

dagozkion aldatetekin. Aldaketok egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute Udalak hasierako onespina eman beharko dio agiriari eta jendaurrean irekiko du berriz, beste behin onartu aurretik. Horren ostean Udalak agiria EAEko Lurraldearen Antolamendurako batzordea-

ri igorriko dio eta batzorde horren txostena loteslea izango da lurralde antolamenduko tresnei, eta Udalez haratago dauden proiektuei. Hiru hilabete izango du batzorde horrek txostena egiteko. Eta aldateta horiek guztiak egin ostean, behin betiko onartuko da HAPO berria.

Bi jardunaldi jokatu dira asteon Zaldibarko futbito txapelketan

Zaldibarko futbito txapelketaren 12. jardunaldia jokatu behar zen atzean utzi berri dugun aste bukaeran, baina eguraldiagatik antolatzaileek erabaki dute asteburu honetara atzeratzea. Hala, zapatuan eta domekan jokatu dira 12. eta 13. jardunaldiak.

Antolatzaileek behin-behineko egutegia zehaztu dute. Zapatuan zein domekan partiduak 10:30ean hasi eta 16:30ean bukatzea proposatzen dute. Hala ere, taldeek ikusgai dute plan zehatza www.zaldibarkofutbitotxapelketa.com webgunean, edozein aldaketa eskatzeko. Horretarako, gaur da azken eguna.

Ikastaroak eta musika eskaintza zabala dago asteon gaztetxean

Arrasateko gaztetxeak eskaintza zabala izaten jarraitzen du herriko gazteei begira. Ohiko ikastaro eta tailerrak ez dira falta; gaur, Djembe eta zirko ikastaroak; bihar, dantza ikastaroa; eguaztenean, soinu teknikari ikastaroa, eskalada topaketak eta goma-apar tailerra.

Horrez gain, musika eskaintza zabala egongo da: eguenean Vomitok joko du *Kooltur Ostegunak* ekimenaren barruan, egubakoitzean Governors eta Drop! taldeek joko dute eta zapatuan, Aggressive Combat, Dubling Boys eta Maraboots taldeak izango dira gaztetxeako agertokian.

Gesalibarko jaietako ekitaldi gehienetan, parte hartze altua eta giro ederra

Aspertzeko astirik ez: Toka txapelketa, bertso afaria, patata tortilla, luncha...

J.B. | ARRASATE

"Oso balorazio ona egiten dugu. Parte hartze altua izan da eta auzotarrak gustura aritu direnez, gu oso pozik gaude". Manex Barrenexea Gesalibarko jai batzordeko kidearen hitzak dira. Eguba-

koitzean, txupinazoaren ostean, Toka lehiaketaren hasi ziren jaiak; 12 bat lagun elkartu ziren: "Lehen aldia izateko, jende askotxo". Gero, bertso afaria izan zen Jentil-Ola elkartean. Jokin Labaien ezin izan zen agertu eta haren

ordez Urko Egaña aritu zen Manex Agirre aramaioarrarekin batera. 60 lagun elkartu ziren: "Bertsolariak oso ondo aritu ziren eta giro ederra jarri zuten".

Kantuan, elurra mara-mara

Zapatu eguerdian lehenengoz egin zuten patata tortilla lehiaketa. Zazpi lagun elkartu ziren eta auzotarrez osatutako epaimahaiak lan zaila izan zuen onena aukeratzen. Aurten nobedaderik ez da falta izan, beraz.

Arratsaldean auzotarrak kantuan irten ziren Santa Ageda bezpera ospatzeko. Eguraldiak ez zuen lagundu: "Kantuan irten ziren adineko auzotarrak esan ziguten aspaldian ez zirela kantuan irteten elurra mara-mara zebilela", azaldu du jai batzordeko kideak. Atzo, luncha egin zuten jaiekin amaitzeko.



Patata tortilla lehiaketako epaimahaia, zazpietatik onenak aukeratzen. | M.B.



Zapatu arratsaldean Santa Ageda kantuan irten ziren auzotarrak. | M.B.



Manex Agirre eta Urko Egaña, egubakoitzeko bertso afarian. | MIREN BARRENETXEA

Lezetxikiko ondarea babestu eta bertako ikerketa bultzatuko dute

Aranzadi Zientzia Elkarte eta Udala elkarlanean dabilta babes hori lortzeko

UBANE MADERA | ARRASATE

Lezetxiki babesteko prozesua hasita dago. Arrasateko Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak hitzarmena sinatuko dute laster Arrasateko arkeologi ondarea babestu eta Lezetxikiko ikerketa zientifikoarekin segi dezaten.

Hitzarmenaren barruan, Arrasateko Udalak 18.000 euro emango ditu hiru urtean; eta Aranzadi elkartearekin batera, Eusko Jaurlaritzari eskatuko diote Lezetxikiri merezi duen babesa eman diezaiola. "Uste dugu oso garran-

tzitsua dela babestuta egotea. Oso garrantzitsuak dira egindako aurkikuntzak eta uste dugu beharrezkoa dela haiek babestu, ikerketa zientifikoa gaurkotu eta jendartera taularatu", adierazi du Kepa Urteaga Kultura zinegotziak Arrasate Irratian.

350.000 euro ekintzetarako

Bada, hori da Udaleko Kultura Sailak 2012rako duen helburuetako bat. Garrantzitsuenen berri eman du Urteaga zinegotziak herriko irratan.

Besteak beste, nabarmendu du kultura ekintzetarako aurrekontua 350.000 eurokoa dela. "Udal aurrekontuan murrizketa handienetako bat izan du kulturak, eta nahi genuena zen hori eguneroko jardunean ez igartzea; beraz, kopuru hori ekintzetarako bakarrik erabiliko da", azpimarratu du.

Kafe antzokirik ez

Bestalde, Arrasaten kafe antzoki bat egiteko kalean dagoen interesaren harira jakinarazi du

aurten behintzat, ez dela halakorik egingo. "Agian lehen pausoak eman daitezke, baina aurten ez dut uste urterik hoberena izango denik. Bestalde, ez dakit halako zerbait Udaletik lantzea komenigarria den. Koolturek gaztetxean egiten duenaren antzeko zerbait landu ahal izango litzateke, hori bai. Arrasaten leku asko daude, aproposak izan daitezke eta proposamen ugari egon dira".

3D filmak

Eta bestelakoan artean, Amaia antzokiaren digitalizazioak ematen dituen aukera berriak azpimarratu ditu Urteagak, besteak beste, filmak 3D formatuan ematea. "Nahi duguna da Arrasateko jendeak Arrasaten gozatzea kultur eskaintzak. Halakoak orain arte bakarrik zeuden Gasteizen, Donostian, Bilbon... eta arrakasta handia izan du Arrasatekoak."

ESANAK

"Parte hartzea, parte hartzea eta parte hartzea; hori da herritarrei eskatuko niekeena"

KEPA URTEAGA | KULTURA ZINEGOTZIA

"Koolturek oso lan ona egiten du eta eguenero kalitatezko ikuskizunak ekartzen ditu"

KEPA URTEAGA | KULTURA ZINEGOTZIA

Arrasateko koloreak eta sardina, Aratusteetako iragarle

Maitane Mazmela arrasatearrak egindako lanak irabazi du Aratusteetako kartel lehiaketa

UBANE MADERA | ARRASATE

Sardinaren Oreka. Izenburu hori duen kartela aukeratu du Udalak Arrasateko Aratusteak iragaritzeko.

Maitane Mazmela (Arrasate, 1986) da egilea: "Platerekin oreka jokoak egiten dituzten pailazo bat irudikatu gura nuen eta Aratusteekin lotura izateko jaien bereizgarri den sardina ekarri dut. Bestalde, Arrasateren koloreak ere erabili gura nituen, eta pailazoaren tutuan sartu dut kolore morea".

Ordenadorearekin egin du kartela, "collage itxura eman gura nion eta benetako irudiak tartekatu ditut ilustrazioekin", gaineratu du industria diseinuan ingeniaria den Mazmelak.

400 euroko saria

Bada, herriko Aratusteak iragaritzeko bidea izateaz gainera, 400 euro poltsikoratuko ditu gazte arrasatearrak.



Maitane Mazmela, berak egindako kartela erakusten. | U.M.

Bandaloaren grazia: 15 zentimo herritar bakoitzari

Bizkaia etorbideko igogailuaren konponketak herritar guztien poltsikoan du eragina

U.M. | ARRASATE

15 zentimo ordaindu beharko du arrasatear bakoitzak Bizkaia etorbideko igogailua konponetzearen.

Hori da aurreko asteburuko bandalismoak herritarrengan izango duen eragina. Izan ere, 3.500 euro kosta zaio Arrasateko Udalari asteburu gauean apurtutakoa konpontzea.

Urbanoan gorakada

Bestalde, Arrasateko urbanoan ere igarri dute apurketaren eragina: normalean 29 bidaiari izaten ditu hango geltokian; bada, urtarrilaren 31n 53 lagu-

DATUA
80
BIDAIARI
Normalean 29 bidaiarik erabiltzen duten urbanoa 80 bidaiarik erabili dute.

nek erabili zuten eta otsailaren leian, berriz, 80 bidaiarik.

Ikusten den moduan, baten graziak beste askoren desgrazia ekar dezake.

Fibromialgia eta nutrizioa berbagai izango du Dorleta Martinez medikuak bihar, martitzena

18:30erako Amaia Udal Antzokian egin du hitzordua Dorleta Martinez medikuak elikaduraren gaineko hirugarren hitzaldirako. *Fibromialgia, nutrizioa eta beste terapia natural batzuk* izenburupean, halako gaixotasunen arazoak azalduko ditu eta gaitz horiek dituztenen bizi kalitatea hobetzeko gomendioak emango ditu, betiere elikadura zaintzea oinarri hartuta. Martinezek Arrasaten egingo duen azkenareko hitzaldia izango da martitzenekoa. Azkena hilaren 21ean izango da. Kantzerraren eta elikaduraren arteko lotura, hura prebenitzeko nutrizio gomendioak eta bestelakoak azalduko ditu medikuak orduan.

Jakinarazle postuaren aldi baterako beharrak betetzeko lan-poltsa osatuko du Arrasateko Udalak

Lan-poltsa osatzeko hautaketa prozesua deituko du Arrasateko Udalak. Hain zuzen ere, jakinarazle postuaren aldi bateko beharrak betetzeko gura du osatu lan-poltsa. Gobernuaren gaurko batzarrean landuko duten puntuetako bat da hori. Horrekin batera, kexu kontuak ere izango dituzte mahai gainean: Biteri plazan ipini duten feria aparailuak auzotarren artean eragindako kexuak, hain zuzen. Eta bestelako gairen bat nabarmentzearen, alde zaharreko oinezkoen gunea antolatzeko Hirigintza Sailetik egindako proposamena ere izango dute aztergaiaren artean Udal Gobernuak kideek.

OHARRAK

BASERRITARREN AZOKA:

ALDAKETA

Berez hileko hirugarren zapatuan tokatzen den baserritarren azoka egunez aldatu eta oraingo zapatuan, otsailaren 11n, egingo dute. Hitzordua, betiko moduan, 09:00etan hasi eta 14:00ak arte.

DOAKO ESKOLAK, AUKEAN

Gimnasia abdominal hipopresiboan doan probatzeko aukera emango du AUKEAk oraingo egubakoi-

tzear. Parte hartzeko betebeharrak bakarrik da alde aurretik izena ematea. Abdominal mota horiek ikasteko beste bi hitzordu ere egin dituzte: martxoaren 16an eta apirilaren 20an.

SUKALDARITZA ETA ARGAZKIGINTZA

Gazte Sailak bi ikastaro antolatuko ditu Aste Santura bitartean: bate-tik, argazkigintza ikastaroa eman- go du Antonio Murillok. Otsaila-

ren 20tik apirilaren 2ra bitartekoa izango da. Eskolak astelehenetan izango dira, 18:00etatik 20:00etara, Kulturatan.

Eta bestetik, hastapen mailako sukaldaritza erakutsiko dute Igor Otaduiren eskutik. Kasu horretan ikastaroa otsailaren 22tik martxoaren 28ra izango da, eguaztenetan, 18:00etatik 20:00etara, Lanbide Hastapeneko sukaldetan. Izena Gazte Bulegoan eman beharra dago.



EAJko udal taldea, joan den abenduan egindako osoko bilkura baten ateratako argazkian. | E.M.

Alkatearen jarrera salatu du EAJk bilkurako irainengatik

Osoko bilkuran EAJren kontrako irainak baimentzearen, EAJren ustez alkateak ez luke karguan jarraitu behar

EDU MENDIBIL | BERGARA

Asteleheneko osoko bilkuran EAJren kontrako irainak baimentzearen Jesus Elortza alkatearen jarrera salatu dute. "Ez du egoerak eskatzen duen moduan jokatu eta, beraz, ez luke karguan jarraitu behar horrelako gertakariak onartzen baditu", adierazi du Aintzane Oiarbide EAJko bozeramaileak.

Debagoieneko AHT Gelditu Elkarlana, Angiozarko Herri Batzarrak eta Bergarako Gazte Asanbladaren izenean aurkeztutako mozioa eztabaidatzen ari zirela etorri zen polemika. Hainbat azpiegituretako lanak geldiaraztea eskatzen zuten testuak, AHT, erraustegia, Jaizkibelgo superportua, Zubietako makro-espextea eta autobideak tartean.

Herritar batzuen pankartak

Udal Gobernuaren botoekin onartu zuten mozioa. PSE-EE eta EAJ mozioaren kontra azaldu ziren. Aintzane Oiarbidek zera adierazi zuen boto esplikazioan: "Uleritzen dugu angiozartarrak haserre egotea AHTrekin. AHTren aldekoak gara, baina ez dugu sekula defendatu baldintza horietan igerotzea Angiozartik, sarraskia

delako. Angiozartarren eragiten zuten proiektuaren alde egin genuen eta horrekin lotuta Lamiategi elkarteak egindako lana goraiatu nahi nuke". Mila Elortzak ere hartu zuen hitza: "Orain dela 20 urte hasi ginen AHTren kontra lanean, hain zuzen EAJk Udalean, Diputazioan eta Jaur-laritzan agintzen zuenean. Angiozarrera joan besterik ez dago AHTren ondorioak ikusteko. Inondik inora errentagarria ez den proiektu bat, AHT, egunetik egunera azkarrago doa".

Herritar batzuek *PNV Diruzaliak* eta *PNV Txikitzaile* zioten pankartak erakutsi zituzten eta Aintzane Oiarbidek horrelako irainak bilkuran onartzen ote zituen galdetu zion alkateari, "bakegintzan eta politikagintzan zabaldu bide berriari mesederik ez diotela egiten". Pankartok adierazpen askatasunaren isla zirela erantzun zion alkateak.

EAJk salatu egin du alkatearen jarrera. Oiarbideren hitzetan, "herritarren aurrean agertzeko eta iraindutako zinegotziei barkamena eskatzeko zein babesa emateko eskatzen dugu".

EAJko udal taldearen bozeramailearen iritziz, "Bilduk eta, bereziki, alkateak, argi utzi behar dute bide politikoez eta errespetuarekiko hartu duten jarrera. Prentsaurrekoan esatearekin ez da nahikoa, ekintzen bidez erakutsi behar dute". Jeltzaleen bozeramaileak EA eta Aralar taldeei eta, bereziki, bi alderdi horietako zinegotziei eskatu die "gertakari horien aurkako jarrera hartzeko eta, era berean, salatzeko; izan ere, udalbatzarrean ez ziguten EAJko zinegotziori babesik eman". Azkenik, Aintzane Oiarbidek honakoa azpimarratu du: "Ez dugu onartuko horrelako beste gertakirik Bergarako Udalean".

Odol ateratzea egingo dute etzi ambulatorioan

Aurten ere hamabostean behin egingo dituzte odol ateratzeak ambulatorioan, 18:00etatik 20:30era; etzi, eguaztena, urteko hirugarren hitzordua izango da. Azkenekoak, urtarrilaren 25ekoan, 70 odol ateratze egin zituzten eta 11 odol emaile berri joan zen. Elkarreko arduradunak oso pozik azaldu dira jasotako erantzunagatik. Zuzendaritzan pare bat aldaketa egin ostean, hauek dituzue elkartearekin harremanetan jartzeko telefono berriak: Antonio Herzog: 669 10 89 77 edo 943 76 36 90. Eta Dulce Rodriguez idazkaria: 628 07 97 72 edo 943 76 22 36.

Zine emanaldiak hamabostean behin gaztetxean

Bergarako gaztetxean berriro ekin diote zine emanaldiak antolatzeari. Aurrerantzean, hilean bi emanaldi egingo dituzte, hamabostean behin.

Hurrengo emanaldia otsailaren 12an izango da. *El tercer hombre* (1949) klasikoa eskainiko dute. Carol Reedek zuzenduta, Joseph Cotten, Trevor Howard eta Orson Welles dira protagonista nagusiak. Graham Greene idazlearen nobelan oinarritutako lana da. Gaztetxeako zine emanaldiak antolatzeko, egubakoitzero izaten dira bilera irekiak, 19:00etan.

Aratusteetako ikuskizunetarako sarrerak salgai gaur eta bihar Udal Pilotalekuan

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoen 'Zazpikoloroa' Aratuste-zapatuan

E.M. | BERGARA

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen *Zazpikoloroa* azken ikuskizuna Aratuste-zapatuan ikusteko aukera izango da Udal Pilotalekuan. Bi emanaldi egingo dituzte: 16:00etan eta 18:30ean. Gaur, astelehena, eta bihar, 18:00etatik 21:00etara, Udal Pilotalekuan salduko dituzte sarrerak, 5 eurotan. Bakoi-tzak gehienez sei sarrera hartu ahal izango ditu. Aratuste-domekan, otsailaren 19an, Zirtaka taldeak *Maddi Pirata* eskainiko du pilotalekuan, 17:00etan. Neska-mutikoak pirata jantzita joatea eskatu dute; sarrerak gaur eta bihar izango dira salgai, 3 eurotan.

Mozorroren afarria azokan

Aratuste-zapatuan mozorroren afarria izango da Oxirondo azokan, 21:30ean. Txartelak 15 euroren truke daude eskuragarri.



Eskoriatzan aurkeztu zuten Zazpikoloroa, joan den azaroan. | GOIENA

Bestetik, otsailaren 17an, Udal Musika Bandak eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak Aratusteetako ohiko kontzertua eskainiko dute, Udal Pilotalekuan, 22:30ean. *Mamma mia!* filmeko soinu banda egokitu du Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariak.

Bazkaria erretiratuetan

Bestalde, San Joxepe elkarteak Aratusteetako martitzenerako bazkaria iragarri du. Otsailaren 21ean izango da. Izen-ematea erretiratuaren egoitzan egin daiteke. Argibideak bertan edo 943 76 21 40 telefono zenbakian.

OHARRAK

HIIKA IKASTAROA**OTSAILEAN JARDUNEKIN**

Jardunek antolatuta, otsailaren 13tik 23ra hika ikastaroa emango du Juan Martin Elexpuruk; bi orduko zortzi saio izango dira astelehenetik eguenera, 18:30etik 20:30era. Argibideak Jardunen edo 943 76 08 19 zenbakian.

ORTU EKOLOGIKOAREN GAINEKO IKASTAROA

Udaleko Kultura Zerbitzuaren eskutik, ortu ekologikoaren gaineko oinarritzko ikastaroa izango da San Juan auzoko elkartearen, otsailaren 7an, 9an, 13an eta 14an, 17:00etatik 21:00etara. Argibideak kultura etxean, 943 77 91 58 telefonon.

MARIAREN LAGUNDIKO IKASLEEN ZOZKETA

DBHko 4. mailako ikasleen zozketan 2.578 izan da saritutako zenbakia. Txartelaren jabeak Mariaren Lagundira (943 76 25 40) dei dezake otsailaren 29a baino lehen.

Gurasoendako berbaldia hilaren 15ean

Udaleko Prebentzio Zerbitzuak gurasoei zuzendutako hitzaldi sorta amaitzeko, otsailaren 15ean *La importancia de los hábitos de alimentación en la infancia* izenburuko hitzaldia izango da kultura etxean, 18:00etan.

Umeak zaintzeko zerbitzua jartzeko gertu azaldu da Udala, gurasoek hitzaldira joateko aukera izan dezaten. Hala ere, gutxienezko baldintza batzuk bete behar dira aipatutako zerbitzua jartzeko; tartean, umeen gutxienezko eta gehienezko kopuruari eta umeen adinari begiraruta.

Edozein argibidetarako 943 77 91 26 telefono zenbakira edo aloidi@bergara.net helbide elektronikora jo daiteke. Esan bezala, hilaren 15ekoan da joan den urtarrilaren 19an abian jarritako hitzaldi sortaren laugarren eta azken hitzordua.



Patxi Marinak sukaldaritza begetarianoari buruzko ikastaroa emango du Artatsen otsailaren 29tik martxoaren 28ra. | GOIENA

Kutxa Ikasgelekin hainbat ikastaro egiteko aukera datozen asteotan

Aipatutako jardueraren bidez, bizi-kalitatea hobetzeko asmoz, prestakuntza osatzeko eta zaletasunak ugaritzeko aukera ematen die Kutzak bezeroei

EDU MENDIBIL | BERGARA

Kutxa Ikasgelekin eskutik, Bergaran hainbat ikastaro egiteko aukera izango da datozen asteotan. Aipatutako jardueraren bidez, prestakuntza osatzeko eta zaletasunak ugaritzeko aukera ematen die Kutzak bezeroei. Bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duten jarduerak eskaintzea da helburua.

Neguan eta udaberrian Bergaran izango den eskaintzaren berri eman dute. Garapen pertsonaleko trebetasunak, sukaldaritza eta dantza jorrazteko

aukera izango da.

Garapen pertsonala

Hain zuzen ere, honakoak dira Bergaran antolatutako ikastaroak: Ekialdeko eta Mendebaldeko masajeak Jose Luis Abuireren eskutik apirilaren 18tik maiatzaren 23ra (12 ordu); Jose Luis Domingok *El Realismo. Un paseo por la narrativa del siglo XIX* izenburuko ikastaroa emango du apirilaren 17an hasita (15 ordu); Felix Aresek, *Historia de la ciencia* izenekoa otsailaren

12tik aurrera (10 ordu); grafiologia Iruñe Ibarrarekin landuko dute martxoaren 16an hasita (12 ordu); Patxi Marinak sukaldaritza begetarianoaz azalduko du Artatsen otsailaren 29tik aurrera; eta, azkenik, spinning eta sabel dantza eskolak ere iragarri dituzte.

Edozelan ere, ikastaro bakoitzaren azalpen zehatza jasotzeko eta eta izen-ematea egiteko 902 54 00 40 telefono zenbakira (08:00etatik 14:30era) jo dezakete interesatuek.

Lapurtuko hurrei buruzko mozioa

E.M. | BERGARA

Joan den asteleheneko osoko bilkuran, mozio baten bakarrik jarri ziren ados udalbatza osatzen duten alderdi guztiak: hain zuzen, lapurtutako hurrei buruz Batzar Nagusietan egindako erakunde adierazpenari babes eman zioten aho batez. Berdintasun Politiken, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren batzordean hasi dituzten lanekin jarraitzeko konpromisoa hartu zuten Batzar Nagusiek, harik eta egitateak argitu arte.

Gipuzkoa, kaltetuena

Gipuzkoa da kaltetu gehien dituen lurraldea Euskal Autonomia Erkidegoan. Jakingo duzueenez, 50eko hamarkadatik 90eko hamarkadara bitartean administrazio-irregularitasun batzuk izan zirela-eta, jaioberrien bidegabeko jabetzeen edo adopzio irregularren susmoa dago. Kaltetuen elkarte batzuk gonbidatu zituzten joan den irailean Gipuzkoako Batzar Nagusietara, argudioak eta kezak azal zituzten. Ordutik hona, hainbat gertakari izan dira, hala nola gorpuak hilobitik ateratzea eta ospitale eta kliniketako ikerketak.

Osoko bilkura luzea

Asteleheneko gai-zerrendak 23 puntu zituen, eta luze joan zen batzarra: 2 ordu eta laurden pasatxo. Herriar gutxi batzuek jarraitu zuten bilkura.

Biodantza, yoga eta eskulanak, urte berriko aukerak

Biodantzari dagokionez, astelehen arratsaldeetan izango dira eskolak Mariaren Lagundian, 18:30etik 20:30era. Umeen-dako saioak ere izango dira, martitzenetan, 17:15etik 18:15era. Argibideak 626 66 12 92 (Mentxu) telefonoan.

Shamadi Yoga elkarteak urteak daramatza eskolak ematen: hatha-yoga, radja-yoga, erlaxazioa eta arnasketa lantzen dute eta laster nidra-yoga erakusten hasiko dira. Izen-ematea: 629 23 57 53.

Azkenik, Xanti Arrietak zeramika eskolak ematen ditu. Gaztetxoan eta helduen taldeak, aste barruan edo zapa-tuetan. 656 77 85 91 (Xanti).

Nutrizioa haurtzaroan: ikastaroa martxoan, eguaztenetan

Udalak 2-3 urteko haurren gurasoei zuzendutako nutrizio ikastaroa antolatu du martxoarako. Eskolak eguaztenetan izango dira, 18:00tik 19:30era, gaztelekuan. Bergarako Mireia Alberdi dietista-nutrizionista izango da irakaslea, eta parte-hartzaileek ondorengo gaiak jorrazteko dituzte: elikadura osasuntsua, haurren loditasuna, ohiturak finkatzearen garrantzia, elikagaien ezagarririk, jangela zerbitzua, errazioak, litxarreriak, janari azkarra... Ikastaro teoriko-praktikoa izango da, sukaldaria ere erabiliko dutelako. Izen-ematea otsailaren 13tik 24ra kultura etxean. Argibideak 943 77 91 60 telefonoan.



LOKATZA

Lokatza: zozketaren irabazlea

Lokatza Ziklismo Eskolak Gabonetan egindako zozketan 8.268 izan zen saritutako zenbakia eta Maria Dolores Arantzabalek eskuratu du saria: mendiko bizikleta eder bat eta 1.000 euro. Kintoen afarian elkartu eta Pello Garitanori erosi zion saritutako zenbakia Maria Dolores Arantzabalek. Goiko argazkian, irabazlea Lokatzako Pello Garitanorekin eta i2 bizikleta dendako Jose Manuel Martinekin.



BIZIKASI

Uxue Alberdi, Miguel Altunako ikasleekin

Uxue Alberdi idazle eta bertsolariak hitzaldia egin zuen aurreko eguaztenean Miguel Altuna institutuan. Sekulako ikusmina piztu zuen Alberdiren hitzaldiak, eta areto nagusia bete egin zuten ikasleek. Bere idatziei buruz eta bizipen/idazmenen kontakizunetan murgildu zen bertsolari elgoibartarra. Berebiziko garrantzia eman zion Alberdik egunerokotasunean oinarritutako pasadizoei. Heriotzaren aurrean dugun beldurraz, sexu bereizketaz, intimitateaz eta bakoitzak bizitza ulertzeko duen moduz jardun zuen. Bukatzeko, abestutako koplak batekin agurtu zen Alberdi, ikasleen txalo artean.



Mikel Martin, Ane Irigoien, Ainize Arrazola eta Lur Paramos, Alemaniara egindako bidaian. | ZUAZOLA-LARRAÑA INSTITUTUA

Oñati, Danimarka, Polonia, Alemania eta Turkia, eskutik

Zuazola-Larraña Institutuko ikasleek Comenius programan parte hartzen dihardute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Zuazola-Larraña Institutuko DBHko 2. eta 3. mailako ikasleak Comenius programako kide dira. Europako Batasun Ekonomikoaren beka programa bat da Comenius, Europako herrialdeetan ikasten duten ikasleek arteko mugikortasuna sustatzeko. Helburuetako bat ingelesaren erabilera bultzatzea da.

Oñatiarrekin batera Danimarka, Alemania, Turkia eta Poloniako ikasleek dihardute.

Eager to learn, eager to share (ikasteko gogoz, banatzeko gogoz) da proiektuaren izena eta bi ardatz nagusi ditu: ikasleek irakaskuntza-prestakuntza prozesuaren analisia egin eta bost eskolek erabiltzen duten metodologia konparatzea; bestetik, elkartrukea

egiten dutenean, ikasleek etxeetan egingo dute egonaldia.

'Job-shadowing'

Zuazola-Larraña Institutuko bi irakasle Danimarkan egon ziren ikasturte hasieran –irailean–, proiektua abian jartzera. Orduan zehaztu zituzten elkartrukeko datak, ikasle kopurua eta egin beharreko lanak.

Azaroan irakasle bat Alemaniara egon zen *Job-shadowing* delakoa eginez. "Gure irakaslea hango irakasle baten itzal bihurtu zen. Eskolaren egunerokotasuna eta beste irakasleek lana aurrez aurre ezagutzeko aukera izan zuen", esan digu Lukene Igartua ikasketaburuak.

Hurrengo pausoa urtarirean eman zuten. Bi irakasle eta lau ikasle Alemaniara egon ziren. "35 bat ikasleko talde txoa osatu genuen, eta elkarrekin askotariko ekitaldiak egin genituen, ikastetxe barruan eta kanpoan", esan digu Igartua.

Bideoak grabatu

Alemaniara egindako bidaiaz gain, beste hainbat lan ere egin dituzte ikastetxean. Lehen hiruhilekoan ikasle bakoitzak bere familiari buruzko bideo bat grabatu zuen. Era berean, beste herrialdeetako ikasle bideoak ikusi zituzten. "Harrituta geratu ziren ingelesez bost era ezberdinetara entzun zutenean, baita hango ikasleek zuten eruditegi ohiturekin", esan digute.

Comenius programan parte hartzeko ezinbestekoa da ingelesez berba egitea. Hizkuntza hori aintzat hartuta, ingelesezko testuekin lan egin dute. Zuazolakoe euren lanak beste herrialdeetara bidali zituzten, eta alderantziz, eurek Danimarkan, Polonian, Turkian eta Alemaniara egindakoak jaso zituzten. Skype bidez ere konexioak egin dituzte. "Alemaniara egon garenean bideo batzuk grabatu dituzte euskarazko oinarriko esaldiekin. Gu ere hasi gara beste hizkuntzak erabiltzen", kontatu digu Igartua.

Maiatzean Poloniara joango dira, eta azaroan etorriko dira lau herrialdeetako ikasleak eta irakasleak. 2013an Turkiara eta Danimarkara joango dira.

Merkatu librea eta iraukortasuna Zero Zaborrekoen tailerrean

Oñatiko Zero Zabor taldeak beste tailer bat egingo du eguaztenean, hilaren 8an, kultura etxean, 18:30ean. Parte-hartzaileak mahai baten inguruan bilduko dira eta merkatu librearen eta iraukortasunaren inguruko testuak irakurri eta iritziak emango dituzte. Orain arteko tailerretan egindako moduan, testua irakurri eta iritzia eman gura ez duenak ere parte har dezake.

Zero Zabor taldearen asmoa da guztion artean kontzeptu batzuk barneratzea eta bertatik irten daitezkeen interpretazio ezberdinak elkarrekin kontrastatzea.

Bizikleta foroa martxan jartzeko lehen bilera bihar

Bizikleta foroa martxan ipini gura du Udalak, eta bilera irekia egingo du bihar, martitzena, hilak 7, 18:00etan, udaletxean. Aurretik bizikleta plana garatzen parte hartu zuten kideei gonbidapena bidali dute, baina ekarpenak egin ditzaketen herritar guztiei luzatu diete deia. Bilaren helburua da aurrez hasitako lanari jarraipena ematea, eta hurrengo urtetarako egitasmoak eta lehentasunak adostuko dituzte.

Gainera, bizikletaren erabilera sustatzeko landu daitezkeen neurriak zehaztuko dituzte. Herritarrek eta kolektiboek gura beste ekarpen egin ditzakete.

Oñatiko duatloian izena emateko epea zabalik

Helbide honetan eman behar da izena martxoaren 5a baino lehen: www.triatloi.org

M.B. | OÑATI

Oñati Triatloi Taldeak antolatzen duen duatloia martxoaren 10ean jokatu dute eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea: gaurtik martxoaren 5era arte. Interesatuak www.triatloi.org atarian sartu eta han egin beharko dute inskripzioa. 20 euro ordaindu beharko da izen-emate bakoitzeko. Ordainketa txartelarekin egin ahal izango da. Izen-ematea ontzat emango dute ordainketa ziurtagiriarekin batera.

Euskadiko Triatloi Federazioak babesten duen proba izanik, ezinbestekoa da 2012ko federatu txartela eguneratuta izatea.

Gehienez, 466 parte-hartzaile onartuko dituzte. Dorsal guztiak banatzen direnean, izen

-ematea itxi egingo dute, oraindik epea bukatu barik badago ere. Ez dituzte korrikalari gehiagorik onartuko.

Iazko proba berberak

Proba 15:30ean hasiko dute neskek. Emakume gutxi badago, guztiak batera irtengo dira 15:45ean. Iaz egindako moduan, lehenengo proba herrian 10 kilometro korrika egitea izango da. Ondoren, bizikleta hartu eta 40 egingo dituzte (Oñati-Bergara-Antzuola-Deskarga-Legazpi-Oñati). Azken proba berri korrika: bost kilometro.

Probaren gaineko informazio gehiago gura dutenek www.txantxiku.net ataria begiratu edo oinatikoduatloia2012@gmail.com helbidera mezua bidal dezakete.



Arantzazu Ibarro, automaileguak egiteko makinarekin. | TXOMIN MADINA

QR kodeak erabiltzen hasi dira jada liburutegian

Bestalde, automaileguak egiteko makina ipiniko dute abian datozen egunetan

M.B. | OÑATI

Hasi dira liburutegiko liburuetan, DVDetan eta CDetan QR kodeak erabiltzen. Lauki itxurako puntukako barra-kodeak dira QRak, eta produktuaren gaineko informazio osagarria jasotzeko balio

dute. "Idatzizko informazioa izan daiteke, edo ikus-entzunezkoa, baina, betiere, multimedia. Adibidez, pelikula bat bada trailerra agertzen da eta CDa bada, bideo-klipa. Liburuaren kasuan, idazlearen bibliografia edo liburuari

buruzko bideoa", esan digu liburutegiko arduradun Arantzazu Ibarrodok.

Zer behar dugu QR kodeak erabiltzeko?: "Smartphone bat beharrezkoa da, Internetarako konexioarekin. Liburutegian wi-fi daukagu eta arazo barik konektatu gaitezke. Gainera, QR kodeak irakurtzeko aplikazioa behar dugu. Internetetik erraz jaitz daitezke, eta doan. Telefonoarekin QRa eskaneatu egiten da eta zuzenean loturara eroaten gaitu", esan digu Ibarrodok.

Proba modura hasi dira QR kodeak erabiltzen. "Guk dakigula, behintzat, Muskizen bakarrik dituzte kodeak. Gu bigarren liburutegia gara. Esperientzia berria izango da, eta ikusiko dugu nolako erantzuna duen".

Automailegua

Bestalde, laster hasiko dira automaileguak emateko makina erabiltzen. "Egun, liburutegiko langileok egiten dugu mailegu prozesua. Aurrerantzean, liburuak hartzeko eta itzultzeko makina egongo da", esan digute. Dena den, langile bat egongo da informazioa ematen.

ESKORIATZA

Gorka Azpitarte presoaren aldeko ekintzak deitu dituzte egunotarako

- ▶ Abian da Vivonne espetxeko zuzendariari gutunak igortzeko kanpaina
- ▶ Udalean mozioa sartzearekin batera, zapatuan ibilaldia egingo dute

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Gorka Azpitarte eskoriatzarrak eta harekin batera Frantziako Poitiers Vivonne espetxean dauden presoek borrokan segitzen dute, euren kontra hartutako zigor neurriengatik protesta egiteko. Eskoriatzako presoaren alde-

ko taldeak espetxe horretan bizi duten egoeraren berri ezagutarazi nahi du, eta, horretarako, hainbat ekintza antolatu ditu datozen egunotarako.

Batetik, espetxeko zuzendariari eskutitzak bidaltzeko kanpaina jarri dute abian: aste osoan

Inkernu tabernan egongo dira betetzeko orriak. Gutun horretan euskal presoaren bisitak bikoitzak izan daitezela eskatzen da, kontuan hartuta bisita horietara joateko senideek 1.100 kilometrotik gora egin behar dituztela, horrek dakarren gastu eta arris-

kuekin; horretaz gainera, Vivonnen dagoen Eneko Zarrabeitia presoari bisita batean beste preso baten senideak agurtzeagatik ezarritako zigorra bertan behera uzteko ere eskatzen da, eta oinarriko eskubideak errespetatuak izan daitezela.

Egoera salatzen mozioa

Bestetik, Udalean mozioa aurkeztea ere aurreikusi du taldeak. Aste honetan du hori aurkezteko asmoa, hileko hirugarren eguean egingo den osoko bilkuran azter dadin. Azpitarteren eta gainerako presoaren egoera sala dezan eskatuko zaio udalbatzari mozio horretan.

Hirugarrenik, Poitiersera joateko ibilaldia deitu dute astebururako; eskualde mailan egin dute deialdia. Izena eman gura dutenek bi bide dituzte: Inkernu tabernan apuntatu edo irrintzia@gmail.com helbidera idatzi. Abadiñotik (Eneko Zarrabeitia presoaren jaioterria) irtengo da autobusa, zapatuan, 00:00etan. Hara iristean, presoak bisitatuko dituzte, eta jarraian, agerraldia egingo dute espetxe kanpoan.

Herriko erretiratuek mahai-joko txapelketa egingo dute otsailean

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Olazar erretiratuen elkartearen eskutik, mahai-joko txapelketa egingo dute otsailaren 16an eta 17an. Izena eman gura duten bazkideek egubakoitzera arte, otsailak 10, dute aukera, martitzenetan eta eguenetan, 11:00etatik 12:30era, elkartearen egoitzan.

Olazartik jakinarazi dute briska, tute, mus, domino eta beste-lako hainbat mahai-jokoren txapelketa egingo dutela, eta opariak egongo direla. Horrekin batera,

gogorarazi dute joko guztiak bikoteka izango direla.

Taberna, itxita

Bestalde, erretiratuen taberna itxita dago osteraren ere joan den eguaztenaz geroztik. Udaletik jakinarazi digute hilaren 17ra arte ez dutela zabalduko. Azaro hasieran Txukunberri enpresak aretoaren kudeaketa utzi zuen, eta Udalak aldi baterako langile bat kontratu zuen. Bitartean, taberna ustiatzeko lehiaketa deitu zuen.

Legediaren arabera egin dira 2009 eta 2010 ekitaldietako kontuak

M.B. | ESKORIATZA

Udaletik jakinarazi dute kontu-ikuskapenak egiten dituen Zubizarreta Auditores enpresa independenteak Udaleko 2009 eta 2010 ekitaldietako kontuak ikuskatu dituela, eta horrek ondorioztatu duela mugimendu ekonomikoak eta kontratazioak indarrean dagoen legediaren arabera egin direla.

Gaineratu du gardentasuna helburu izanik eta aurreko agintaldian egindako kudeaketari buruz eskoriatzarrei kon-

tuak emateko asmoarekin, aurreko agintaldiko udalbatzarrak esandako bi ekitaldietako ikuskapena eskatu zuela iaz apirilean.

Emaitzak agintaldi honetan ezagutarazi dituzte. Udalaren eta Telesko udal telebistaren kontuek Udalaren finantza egoeraren eta ondarearen irudia islatzen dute. Dena dela, ikuskapen txostenean, hobe daitezkeen hainbat puntu jasotzen dira, eta horiek kontuan hartzeko eskatzen zaio Udalari.

Patxi Garateren lanak Bergarako Aroztegi aretoan daude ikusgai

Egubakoitzean inauguratu zuen Patxi Garate *Magu* artista eskoriatzarrak *Keinua eta letraren artean* erakusketa Bergarako Aroztegi aretoan. Hilaren 19ra arte bisitatu ahal dira zeinu edo sinbolo grafikoaren inguruko lan pikturiko-grafikoak, paperean inprimatutakoak eta mihisean egindako lanak, honako ordutegian: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era, zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30ean eta domeketan, goizez.

ARETXABALETAKO

Ipuin, bertso, sentimenduzko gutun eta film laburretan pentsatzeko garaia da

Loramendi euskara elkarteak 23. literatura lehiaketa antolatu du

M.B. | ARETXABALETAKO

Aretxabaletako Loramendi euskara elkarteak 23. Literatura Lehiaketa deitu du. Lanak hilaren 24a baino lehen eroran behar dira elkarteak udaletxe zaharrean duen egoitzara, gutun-azal baten barruan aurkeztuta; kanpoan, lanaren izenburua, gaitzizena, maila eta kategoria adierazi behar dira eta barruan, beste gutun-azal bat sartu behar da bakoitzaren datu, telefono, e-posta eta ikastetxearekin.

Urtero moduan, hainbat kategoriatan dago banatuta literatura lehiaketa: LHko 3, 4, 5 eta 6. mailatan daudenentzako, bertso eta ipuina sailak izango dituzte; eta DBHko 1, 2, 3 eta 4. mailetakozko gutunak, bertsoa, komikia eta umorezko film laburra.

Bakoitzarendako oinarri zehatzak gertatu dituzte euskara elkartearen. Dena dela, parte-hartzaile guztiak bi baldintza bete beharko dituzte, derrigorrez: batetik, Aretxabaletan bizi edo ikasi beharko dute; eta bestetik,

pertsona bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

Sariak martxoaren 31n

Loramenditik nabarmendu dute parte-hartzaile guztiak oparia jasoko dutela, eta, horrekin batera, ohartarazi du DBHn ziklo bakoitzean kategoriako bi sari banatuko direla, betiere maila

betetzen bada. Horrela izan ezean, okerreanean, saririk ez dela banatuko jakinarazi dute. Loramenditik gaineratu dute aukera dagoela saria emateko mailarik ez erakutsi arren aipamenezko sari bat ere emateko. Sari banaketa martxoaren 31n izango da, 19:00etan, Arkupeko Zeraia aretoan.



lazarako literatura lehiaketa irabazi zuten gaztetxoak. | MIRARI ALTUBE

Hondakinen gaineko erakusketa dago gaurtik domekara bitartean Arkupeko erakusketa aretoan

Panel eta ikus-entzunezko bidez informazio zabala eskainiko diete aretxabaletarrei

M.B. | ARETXABALETAKO

Aretxabaletako Arkupeko erakusketa aretoak Debagoieneko Mankomunitateak hondakin gutxiago sortzeko asmoz antolatu duen erakusketa hartuko du gaurtik domekara bitartean. Erakusketa horren helburua da hausnarketa eragitea, gaur egungo ohiturak eta egoera aldatzeko aukerak azaltzeko.

Hain justu, besteak beste, hondakinen sorreraren prebentzioari buruzkoak ezagutzeko

aukera izango dute Arkupen batzen direnek, panel eta ikus-entzunezko bidez informazio zabala eskainiko dute-eta.

Beira birziklatzeko karpa

Erakusketa gain, beira birziklatzeko kanpaina ere abian izan du azken asteotan Mankomunitateak. Ondo birziklatzen ikasteko informazio karpa ibili da azkenaldian Debagoienean, baita Aretxabaletan ere; urtarilaren 21ean izan zen. Orain erakusketa dugu herrian.

OHARRAK

ITURRIAK ITXITA

Aretxabaletako Udaletik ohartarazi dute herriko iturri guztiak itxita egongo direla egunotan, iragarrita dauden tenperatura baxuak direla-eta.

Bada, tenperatura horiek ostera ere igo bitartean ez dute urrik emango. Hain zuzen ere, izotzarekin arazorik ez izateko hartu zuten joan den astean erabaki hori.



Etxaguen auzoa eraberritzea "beharrezko" ikusten du Udalak; lanak nori esleitu erabakitzeke prozesuan dago orain. | A.T.

ARAMAIO

Etxaguen auzoa eraberritzeko lanak nori esleitu erabakitzen dihardu Udalak

Egubakoitzeko plenoan landu behar zen gaia baina bertan behera geratu zen azken orduan idazkariak baja hartu zuelako; bihar egingo da, 19:00etan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Etxaguen auzoko azpiegituren eraberritzea "beharrezkoa" ikusten du Udalak aspalditik. Udalaz gain, noski, auzotar gehienak ere gogotsu daude auzora hobekuntzak hel daitezen. Etor Goikoetxea egungo auzo alkateak honakoa adierazi zuen 2011ko abendu hasieran: "Gurea izango da okerrren dagoen auzoetariko bat".

Udalak ere premia handia ikusten du Etxaguen auzoan eta horri gehitu behar zaio Diputazioaren dirulaguntzak mantentzeko epe batzuk bete beharra. Horregatik iazko abendu hasieran egindako tramiteak bizkortu egin behar izan zituzten eta orain, lanak zein enpresari esleitu erabakitzeke prozesuan dabilta. Lehiaketara 37 enpresa aurkeztu ziren eta orain horietatik puntuazio altuena jaso duenaren

ezaugarriak eta baldintzak aztertzen dabilta. Mecuma S.L.U. da enpresa hori eta lehiaketara aurkeztu zirenean 681.650 euroko aurrekontuarekin egin zuten. Udalak, baina, prezio horren justifikazioa eskatu zion enpresari eta orduko kopurua da 699.411 eurokoa. 18.000 euro inguruko aldea dago beraz, eta Udalak alde hori justifikatzeko eskatu du.

Hainbat lan egin beharra

Bestalde, lanon epea murriztuko duela dio enpresak, izan ere, zortzi hilabetetan zena bost hilabetetan egingo dutela diote, eta beraz, gastu orokor guztiak jaitziko lirake. Hau guztia kontuan hartuta, Udalak ondorioztatu du Mecuma enpresak aipatutako desbiderapen ekonomikoa justifikatzen badu eta kontratua onartzen badu obra bost hilabeteko

epean amaitzen duela, ontzat eman daitekeela eskaintako proposamena. Ondoko eraberritze lanak jasotzen dira Etxaguen eraberritzeko egitasmoan: bide publikoak, ur edangarriaren distribuzio sarea, elektrizitate kanalizazioak, argiteria publikoa, telefonia eta gas azpiegiturak, kaleen zolaketa eta hondakin-uren eta euri-uren sarea.

Egubakoitzeko plenoa, bihar

Etxaguen auzoaren eraberritzeko esleipen prozesuaz gain, bestelako gaiak ere landuko dira biharko osokoan (19:00). Izan ere, hilaren 3ko plenoa bertan behera geratu zen azken orduan idazkariak baja hartu zuelako. Bada, besteak beste, Garoñako zentral nuklearraren eta Gipuzkoako azpiegitura erraldioen aurkako mozio bana izango dira mahaia ganean.

ANTZUOLA

Peru gertutik ezagutzeko aukera izango da eguenean Orlanen

Josune Martinez antzuolarrak Perun bizitako esperientzia gerturatuko die herritarrei

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Josune Martinez gazte antzuolarrak hitzaldia egingo du eguenean, otsailaren 9an. *Antzuolarrak munduan zehar* izeneko hitzaldian, Perura egindako bidaia eta bertan bizitako esperientziak argazkitan erakutsiko ditu Martinezek.

"Perun egon naiz hiru hilabetez; lehenengo bi hilabeteetan, hezi-

keta sexualari eta ugalkorrari buruzko praktika komunitarioak egin ditut". Azken hilabetea, aldiz, eta praktikak bukatu ondoren, Peru bere osotasunean ezagutzeko asmoz bidaia bat egin zuen antzuolarrak. Orain, haren asmoa da praktika horietan ikusi eta ikasi duena kontatzea, jendarean zabaltzea. Argazki errepor-

taje lagundutako hitzaldia hilaren 9an, eguena, izango da, 18:30ean, Orlanen.

Erretiratuendako Aratusteak

Otsailaren 21ean, martitzena, ospatuko dituzte Aratusteak erretiratuaren elkartean.

Egitarau polita prestatu dute. 17:00etan mozturiko lehiaketa egingo dute eta ondoren merienda eta kina egingo dira. Izen-ematea otsailaren 8an eta 9an egin behar da, 16:00etatik 18:00etara bitartean, elkartean bertan; 4 euro ordaindu behar dira. Elkartean jendea animatu nahi du mozturrotuta joan dadin Aratuste eguneko jaira.

ELGETA

Beiraren karpa Herriko plazan izango dugu bariku arratsaldean

Wazemank saioko hiru aktorek, berriz, 'Bodologuak' antzezlan egingo dute Espaloian

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Eguraldiak aukera ematen badu barikuan, hilak 10, Debagoieneko Mankomunitatearen Beiraren karpa Herriko plazan izango dugu 16:30etik 18:30era.

Beira birziklatzeko zein prozesu jarraitzen den, birziklatzeak zein onura dakartzan, edukiontzi berdean zer sartu behar dugun eta zer ez... Mankomunitateko hezitzaileek hainbat kontu erakutsiko dizkigute Herriko plazan jarriko duten karpa horretan. Ditugun bestelako zalantzak argitzeko ere bali dezakegu aukera. Mankomunitatea herriz herri egiten ari den sentsibilizazio kanpaina da honakoa.

'Bodologuak' Espaloian

Egun berean, 22:30ean, Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu izango ditugu Espaloia kafe antzokian. Bodologuak izeneko antzezlan komikoa egingo dute. Sarrerak salgai daude dagoeneko antzokian bertan. Sarrera 12 euro da; bazkideendako 10 euro.

Kantsatzeke batzarra

Elgetan mendi elkartea sortzeko lanean diharduen herritar taldeak, berriz, biharko, martitzena, egin du hitzordua udal liburutegian. 20:00etarako deitu dute batzarra. Asmoa da eman beharreko hurrengo pausoak zehaztea, eta lanak denon banatzea.



Mankomunitateak beiraren karpa duela bi urte Elgetan. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Martxoaren 8a gai duen kartel lehiaketa, deituta

Bideberri mankomunitateak antolatu du, eta aurkezteko epea hilaren 21ean bukatuko da

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Iaz legez, kartel lehiaketa deitu du Antzuola, Elgeta eta Gatzaga osatutako Bideberri mankomunitateak Emakumeen Nazioarteko Eguna begira. Hiru herriotako edonork parte har dezake, eta otsailaren 21eko 13:00ak baino lehen aurkeztu behar dira hiru herrieta-ko udaletxeren batean.

Hona hemen irudiak bete beharreko baldintzak: neurria gehienez 50x70 zentimetrokoa –formatu digitalean ere aurkez daiteke–; teknika libre da, baina derrigorrez testu bat izan behar du (librea) euskaraz; eta horrez gain, honako esaldia ere bai: *Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna 2012*. Gainera, Bideberri mankomunitatearen logotipoa sartzeko lekua utzi behar da. Testu librea

dela eta, diseinuari besteko garrantzia emango diote epaimahaiko kideek.

Irabazleak 350 euro jasoko ditu eta bigarren geratzen denak, 150 euro. Oinarriak Udalaren webgunean daude: www.leintz-gatzaga.com.

Pilota txapelketa ere deituta

Federatu gabeko pilotari beterranoendako pilota txapelketa deitu dute. Leintz aldeko –Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzaga– eta Oñatiko pilotari beterranoendako da, eta martxoaren 4an hasita domeka goizetan izango dira partiduak, hamabostean behin. Izena emateko azken eguna otsailaren 19a da (15 euro ordainduta pilotari bakoitzak) eta Mauri Zubillagari deitu behar diote interesatuek (605 72 40 96).

IRABAZLEA
Astilleroko + Balentziaga
museorako sarrera

Izen-abizenak:
Veronica Berrocal Martin
Herria: Oñati

OTSAILEKO SARI NAGUSIA



NESCAFÉ
Dolce
Gusto

Krups kafe-makina

- Presioa: 15 bar
 - 1,3 litroko ur-ontzia, ateratzekoa
 - Bi urteko garantia
- Neurriak: 21,4 x 31,5 x 33

EROSKI

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05

e-postaz: kluba@goiena.com

SMS bidez: bidali KLUBA kafetera [bazkide zenbakia] 215800 zenbakira

Parte-hartzaile
guztien artean
zozketatuko da.

SMSaren kostuz: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

KAMISETEN ZOZKETA*



Aita
Zonbia
Naiz

'Aita, zonbia naiz' filmaren
kamisetak

- 7 eta 12 urte bitarteko umeentzat.
- 2012 Goya Sarietan ANIMAZIOZKO PELIKULA ONENA kategorian finalista suertatu da.

Parte hartzeko

Deitu
943 25 05 05
telefonora deituta!

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko dira.

2012an atera etekina txartelari

AQUARIUM

AQUARIUM

Donostia, 943 44 00 99

- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da)

AVIA

AVIA MECA GASOLINDEGIA

Arrasate, 943 79 13 39

- %2 gasolindegian erregeia erosit.
- %2 dendako produktueta

BEGI ONDO

BEGI ONDO OPTIKA

Aretxabaleta, 943 79 98 21

- -%15 produktu guztietan. Kontsulta doan.

GAHIR

GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA

Eskoriatza, 943 71 43 41

- %50 deskontua lehenengo kontsultan.

Esko Sport

ESKO SPORT KIROL DENDA

Eskoriatza, 943 71 52 96

- -%10 produktu eta zerbitzu guztietan

GAES

GAES ENTZUMEN ZENTROA

Arrasate, 943 71 27 93 / Bergara, 943 76 94 55

- %10 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

Geuzteir

GUZTIZ EDER ENTZUMEN ZENTROA

Oñati, 943 78 01 46.

- Termason (zelulitisaren aurkako tratamendua, tinkatzea eta birmoldatzea). Hamar saio hartuz gero, %10eko deskontua.
- Aurpegiko azala berritzeko eta orbanak kentzeko, Glycobest inhibitzaile despig-mentatzaile programa: %7ko deskontua.
- Bestelako zerbitzuetan %5eko deskontua.

IKER

IKER SUKALDEAK

Arrasate, 943 79 00 43 / Oñati, 943 53 35 48

- Sukalde osoa erosit, mikrouhin-labea opari.

lastai

LASTAI

Gasteiz, 945 35 85 59

- Helduentzako atsedean arloan, %5eko deskontu gehigarria.
- %5eko deskontua haur-kotxe eta automobilerako segurtasun-aulkietan.
- %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobilerako segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehungaietan.
- %10eko deskontua denboraldiko haur-arropan. (Beharpenetan eta eskaintza berezietan izan ezik)

LILURA

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

Bergara, 943 76 31 71

- -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrendoa (besapekoak opari).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan. Bazkidearentzat eta lagunarentzat

JAIXAK

JAIXAK

Bergara, 943 76 31 45

- %10eko deskontua 20 eurotik gorako erosketetan.

MULTIOPTICAS

MULTIOPTICAS

Arrasate, 943 79 29 95 / Bergara, 943 76 15 75

- %15 deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

NAREN

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta, 943 08 21 89

- -%15 zerbitzu guztietan.

RENAULT AUTOBERRI

RENAULT AUTOBERRI

Arrasate, 943 71 24 72

- -%5 konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
 - -%25 saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
 - Ordezkapeneko autoa, 20 euro.
- Erosketaren momentuan goian aipatutako deskontua baino handiagoa badugu, bazkideari deskontu handiena eskainiko diogu.

TXURI URDIN

TXURI URDIN IZOTZ JAUREGIA

Donostia, 943 46 44 00

- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan (ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo opporraldia)
- -%20 zapatu eta domeketan (ez bada zubia edo opporraldia)
- -%10 zubi eta opporraldian.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

Donostia, 943 01 24 78

- %10 deskontua.

goienakluba 2012

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com
Urteko kuota: 50 €.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



ELURRETAKO LASTERKETAK

Itoitz Armendaritzek emaitza bikaina lortu eta seigarren amaitu du Pirena

Azken etapan ezin izan zuen bosgarrena harrapatu baina Europako onenekin amaitu du eskoriatzarrak

JULEN IRIONDO | ARRASATE

"Oso pozik"; halaxe zegoen Itoitz Armendaritz musher eskoriatzarrak Pirena amaitu berrian. Bi asteko lasterketa bikainaren ostean seigarren amaitu du Armendaritzek azken sailkapenean; Plateau de Beillen jokatu-tako egubakoitzeko azken etapari bosgarren sailkatua harrapatzeko ilusioarekin ekin eta lortu ez arren, emaitza handia da Eskoriatzakoak lortutakoa, aurrez espero baino askoz hobea.

Bigarren aldiz hartu du parte Pirenan -lehenengoz bere txakurrekin- eta Europako onenen artean sartu du bere burua: "Datorren urtean bueltatzeko asmorik ez nuen; txakur batzuk kendu eta 8-9rekin geratzea pentsatzen nuen, baina emaitza honekin itzuli egin beharko naiz", zioen Armendaritzek.

Azken etapan 10 segundora zuen bosgarren sailkatua, baina harrapatu ezin eta denbora galdu zuen gainera: "Etapamotzegia zen azkenekoa niretako; 10-12 kilometro gehiago edukitzea komeni zitzaidan". Europako eta Espainiako txapelketak izango ditu hurrengo zitak.



Itoitz Armendaritz, bigarren mailako sailkapen baten podiumean. | GOIENA

Gaur, astelehena, Goiena telebistan

Itoitz Armendaritz izango da protagonista nagusia *Harmailatik* saioan. Xabier Urtzelaik luze jardungo du Eskoriatzako musherrarekin elkarrizketan, Pirenaren eta, oro har, gure artean hain ohikoa ez den kirol horren gainean. Iluntzeko 20:45ean izango da *Harmailatik* saioaren lehen emankizuna, eta 22:50ean bigarrena. Irudi ederrak ikusteko modua era izango da saioan.

SASKIBALOA

Defentsan gaizki ibili ostean, Natra Oñatik 114-76 galdu zuen partidua

AMAI TXINTXURRETA | OÑATI

Natra Oñatik ezin izan zion aurre egin EBako sailkapenean bigarren doan Cafes Aitona taldeari.

Lehenengo bi laurdenetan partidua nahikoa orekatuta egon zen eta ondo moldatu ziren txantxikuak, baina hirugarrenean "apurtu" zen lehia Xabi Igartua entrenatzailearen hitzetan. Ordu-tik aurrera txantxikuek ezin izan

zituzten aurkariaren erasoak gelditu.

Defentsan gaizki

Defentsan ez ziren fin ibili oñatiarrak eta hirugarren laurdenean erabaki zen partidua. Donostiarrek eraso gehienetan lortu zituzten puntuak. Beraz, partiduaren azkeneko laurdenak ez zuen ezertarako balio izan, ordurako parti-

dua erabakita zegoen-eta.

Cafes Aitona talde indartsua zen oñatiarrendako, izan ere, donostiarrek dagoeneko hamar partidua irabazi dituzte eta lau besterik ez dituzte galdu. Oñatiarrek ostera, bi irabazi dituzte eta hamabi galdu. Datorren astean sailkapenean azkeneko postuetan dagoen Torrelavegaren aurka jokatuko dute.

Mondragon Unibertsitatea

MUK ere jipoi galanta jaso zuen Santurtzi liderraren kantxan; 104 eta 56 galdu zuten.

FUTBOLA

Bittor Alkiza hizlari Aloñaren mahai-inguruan

Egun Realaren harrobiko arduradun denarekin batera Jon Urtzelai futbolari ohiak eta Iker Egaña prestatzaileak -biak oñatiarrak- jardun zuten prestakuntza integrala hizpide hartuta, aretoa bete-beteta zela.



JOSETXO ARANTZABAL



Begarako jokalaria jaurtiketa egiteko gertu. | JOSETXO ARANTZABAL

ESKUBALOA

Garaipen garrantzitsua bergarrek Basauriren kontra, 31 eta 29

JULEN IRIONDO | BERGARA

Sailkapeneko atzealdeko borrokarako garaipen inportantea lortu zuen zapatuan Soraluec BKEk Basauriren kontra; sei puntuko aldea dute orain bergarrek bizkaitarrekiko.

Partiduaren lehenengo hiru laurdenetan nahikoa ondo ibili ziren etxeokak; zenbait minu-

tuz defentsa bikainarekin, bos-pasei goleko aldea izan zuten markagailuan. Azken hamabost minutuetan, ordea, jokoa nahastu eta bi golera hurbildu zen Basauri. Azkenean, 31 eta 29.

Ford Mugarri sendo

Liderrak huts egin ez eta 17-27 irabazi zion Gure Auzuneri.



Oñatiko Azkoagain futbol zelaia elurtuta, zapatuan. | ANDER MONEDERO



Ainhoa Lete garaitzeko penaltia jaurtitzen. | I.G.

FUTBOLA

Mondrako neskek irabazi, jardunaldiko partidua bakarrean

IRATI GOITIA | ARRASATE

Añorga, aurkari zuzena, hartu zuen etxean Mondrak domeka arratsaldean eta Ezkurraren neskek ondo egin zituzten etxe-ko lanak. Izan ere, 2 eta 1 irabazi zuten.

Partidu gogorra izan zen. Mondra irabazten hasi zen Ainhoa Alonsok lehen zatiko hamargarren minutuan eginko golari esker, baina lehia amaitzeko zazpi minutu falta

zirenean, berdinketaren gola egin zuen Añorgak. Ondoren, arrasatearrek izan zituzten markagailuan berriz ere aurretik jartzeko hainbat aukera, baina ezin asmatu ibili ziren. Azkenean, epaileak Mondraren aldeko penaltia adierazi zuen eta garaipena etxean gelditu zen.

Horixe izan da asteburuan jokatu den futbol partidua bakarra. Besteak bertan behera gelditu dira, zelaien egoeratik.

MENDIKO ESKIA

Aitor Otxoa | Eskiatzailea

"Soldadutzan ikasi nuen eskiatzen; probetxua atera nion, behintzat"

- ▶ Euskaldunen artean hirugarren sailkatu zen Otxoa Altitoy proban
- ▶ Laugarren garaipena nahi du Regil Kopan, eta Pierra Menta ona egin

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Batzuek patatak zuritzen igaro zuten soldadutza, beste batzuek gabeko guardiak egiten. Aitor Otxoa (Oñati, 1972) eskiatzen ikasteko aprobetxatu zuen Iruñean egin behar izan zuen derrigorrezko egonaldia, eta baita ikasi ere. Berak garrantzia kendu dio anekdotari, eta guk izenburu nagusira eraman. Astelehenean *Har-mailatik* saiora etorri behar zuen, baina piper egin zuen, Aloñara entrenatzera joateko. Horra ordaina. Bromak alde batera utzita, Oñatikoak hiru Regil kopa irabazi ditu, eta iazko txapela defendatzea tokatzen zaio aurten. Baina, entrenamendu saioak Pierra Menta proba ezagunera bideratuta ditu, eta seguru asteburua bikain aprobetxatu duela.

Zelan hasi zinen eskiatzen?

Kuriosoa da, inork ez dit galdera hori sekula egin, eta kontua da soldadutzan ikasi nuela eskiatzen. Gaztetan mendian asko ibiltzen ginen, aitarekin... baina eskiatzen soldadutzan ikasi nuen. Iruñean egin nuen soldadutza, baina bi hilabete egin nituen Candanchun. Batzuetan pistetan ibiltzen ginen, eta beste batzuetan mendian. Jendeak esan ohi du soldadutzak ez zuela ezertarako balio, eta nik suerte hori izan nuen, zaletasun eder bat bilatu nuen bertan.

Altitoy lasterketa egin zenuten joan den astean, eta euskaldunen artean hirugarren sailkatu. Kontraste ona, Marokotik etorri, eta zuzen Pirinioetako mendiko eskiko lasterketa batera.

Bai, lan kontuengatik Marokon nongoen, eta handik zuzen joan nintzen Pirinioetara, Biarritzetik. Baina, Marokon ere euripean izan ginen, tenperatura nahiko freskoekin, horrenbestez... Gehiago da kulturalki dagoen kontrastea. Hori bai, ez da lasterketa batera ondo deskantsatuta joa-



Aitor Otxoa, joan den astean, Altitoy lasterketako irteera puntuan, zapatuan. | ARANTZAZU EZKIBEL

teko aproposena.

Dena dela, pozik egoteko moduko lana egin zenuten.

Bai, nahiko gustura geratu ginen [Zizurkilgo Balen Tolosarekin osatu zuen bikotea]. Zapatuko etapa gogorra izan zen, lau igogorra gogor, tarte teknikoak, elurra ez zegoen egoera onenean... Eta pena, sailkapenean bigarren gindozelako baina azken korridorean kale egin genuelako. Kranpoi bat hautsi nuen, eta materialarekin arazoren bat edo beste izan genuen, baina egia esan, tarte horretan eskiatzaile gehienek izan zuten zerbit. Kontuak kon-

tu, laugarren iritsi ginen helmugara, eta domekan hirugarren postura egin genuen salto -sailkapen orokorrean 15. izan ziren.

Domekan elur baldintzak erabat aldatu ziren.

Bai, ordu gutxitan 40 zentimetro elur bota zituen eta antolatzaileek domekarako zituzten asmoak aldatu zituzten. Mendian hasi barik herrian hasi zen lasterketa [Luz Saint Sauveur] eta etapa txukuna izan zen. Hor esperientzia izatea garrantzitsua zen, esaterako, eskiei ile gutxiko fokak jartzen, aldapa gora egiteko erraz-

tasun handiagoa izateko [eskiei mendian gora egiteko azpian jartzen zaien funda modukoak dira fokak, irrist ez egiteko].

Zelan doa denboraldia?

Espainiako Txapelketan [Espot-en] jantzi genituen eskia lehenengoz, eta beterranoen mailan bostgarren izan nintzen. Euskadiko kronoigoeran [Arette-n] beterranoetan lehenengo izan nintzen, eta Boi Taull-en 23. postuan sailkatu nintzen. Ondo, ezin gara kexatu. Dagoeneko lau lasterketa egin ditugu, eta urtetik urtera geroago eta eskiatzaile gehiago dagoela ikusita... Nahikoa lan

Regil kopan txapeldun

Andres de Regil mendi zeharkaldia martxoaren 21ean egingo dute Europako mendietan (Asturias), eta aurtengo edizioa Espainiako Txapelketarako baliagarria izango da. Horrek esan nahi du Aitor Otxoak eta Balen Tolosak zailago izango dutela iazko garaipena errepikatzea, puntako eskiatzaileak izango direlako. Otxoak hirutan irabazi du hitzordu hori, Iban Letamendirekin 2010ean, eta haren anai Arkaitz Letamendirekin 2005ean.

mailari eusten.

Aurten ere Pierra Mentara joateko asmorik bai?

Hori nahiko nuke, guretako denboraldiko hitzordu garrantzitsuen izaten delako. Pierra Menta lau eguneko lasterketa da, eta izugarri gustatzen zait. Frantzia egiten dute [Areches-Beaufort-en] eta paraje ederrak zeharkatzen ditu lasterketak. Bertan izena ematea, baina, ez da horren erraza. Guk zortea dugu, Euskadiko mendi federazioaren bitartez dortsalak lortu izan ditugulako, baina egia da frantziar eta italiar asko kanpoan geratzen direla. Hamar urte daramatzat lehian, eta urtero joan gara Pierra Mentara; ea aurten ere dortsala tokatzen zaigun.

Etxe inguruak zurituta daude, aprobetxatuko duzue hori.

Entrenatzeko izugarri eskertzen da, bestela bizikletan edota roller-ekin entrenatzen dudalako. Baina, Arkaitz Letamendik eta biok Pierra Mentan emaitza onena egin genuen urtean Aloñan hilabetez izan genuen elurra, eta ia egunero ibiltzen ginen; ondo entrenatu ahal izan ginen. Sekulako aldea egoten da.

"Pena Altitoy, zapatuan, azken korridorean kale egin genuela"

"Hamar urte hauetan urtero joan naiz Pierra Mentara, ederra da"

"Geroago eta jende gehiago dabil lasterketetan, ona da hori"

"Etxe ondoan eskiatu ahal izatea izugarri eskertzen da entrenatzeko"



Zapatuko etapako irteera, Altitoy. | ARANTZAZU EZKIBEL



Aitor Otxoa. | ARANTZAZU EZKIBEL



Oñatiko koadrila, lasterketa hasteko gertu. | ARANTZAZU EZKIBEL

Musikak emozioak pizten ditu eta harremanak lantzeko oso egokia da

Haurren eta gurasoen arteko harremanak hobetzeko baliagarria da musika

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Miren Beitiak musikoterapiari buruzko lehenengo artikulua argitaratu berri du *Guraso.com* atarian. "Musikak emozioak pizten ditu, umore ezberdinak biziaz: goxotasun momentuak, egonezin momentuak, momentu azkarrak edo motelak, alaiak do tristeak... Gureak diren emozioak, ez dizkigutenak kanpotik ezartzen". Musikak bizipenak eskaintzen dituela dio Beitiak eta bizipen horien aurretik eta ondotik emozioak. "Barnean daukaguna azalarazteko aukera eman dakiguke musikak, entzuten ari garena gustuko dugun ala ez alde batera utzita".

Harremanak lantzeko

Haur eta gurasoen arteko harremanean musikak egoera ezberdinak sor ditzakeela uste du Beitiak. "Goxotasun egoera bat, adibidez, abesti lasai bat abesten bada oheratu aurretik". Kontrako emozioa ere sor dezake musikak. "Deskarga momentua gorputz mugimendua erabiltzen badugu egonezin bat deskargatu nahi dugunean". Adituak, baina, argi dauka musika emozioak eta harre-



Haurra danborra gogoz jotzen. | BASYKES

manak lantzeko erabili nahi badugu era sortzaile batean egin behar dugula; "arauak eta mugak alde batera utzita". Hala, umeei abesteko gomendatzen du Beitiak, eta ume bat abesten hasten bada entzuteko, arreta eskaintzeko "denok une berdina elkarbizitze-ko".

Musika gure gizartean

Bizi garen kontsumo gizarte honetan musikak duen garrantziaz jabetu nahi gaitu Beitiak. "Kon-

tsumo gizartean musikaren eraginak garrantzia handia dauka eta askotan helburu zehatz batzuetarako erabiltzen da", ohartarazten gaitu. "Gehien kostatzen zaiguna erritmo bizian doan gizarte honetan gu eta gure haurren arteko harremana erritmo natural batean lantzea da", diosku. Musikari denbora eskaintzeko gomendatzen digu, momentutxoak aukeratzea. "Zaindu eta errespetatu momentutxo horiek".

Gezurak esaten baditu, saiatu ulertzen zergatik

Hezitzaileon lehenengo helburuak behar du gezurra esatea ohiko jokaera ez bihurtzea

L.Z. | ARRASATE

Txikienak gezurretan hasten direnean, gehienetan helburu maltzurrik gabeko gezurrak dira; fantasiarekin lotutako gezurrak, alegia. Baina gezur horien atzean bestelako intenzionalitate bat ikusten badugu, neurriak hartu

behar ditugu lehenbailehen. Lehenengo, egitekoa da gezur horren zergatia zein izan argitzea. Frustrazioa, atentzioa deitu nahia edo zigorraren beldurra egon daitezke atzean. Haurrak imitazioz ere joka dezake gurasoak sarri gezurretan aritzen bazaizkio.

Gurasoen jarrera

Gezur batek ezin du sekula gurasoen irribarrea eragin. Batzuetan oso okurrenteak dira, baina haurrak ulertu behar du gezurra ez dela egokia. Gezurrak ondorioak eragin baditu, jakinarazi umeari, eta saihestu umeari gezurrak esatea. Galdera zailak egiten baditu egokiagoa da 'ez dakit' esatea. Haurren auto-konfiantza landu, eta eman egia esateko aukera nahiz eta horrek zigorra eragin. Onartu egia esan izanagatik izan duen adorea. Eta berrikusi zigorrak larregikoak diren; gezur askoren arrazoia dira.

Gurasoendako prestakuntza saioak Aretxabaletan

Kurtzebarri eskolak Aretxabaletako Udalarekin antolatutako bi hitzaldi egingo dira asteon: otsailaren 7an eta 9an *Drogen gehiegizko kontsumoa* San Juan de Dios ospitaleko adituekin eta hilaren 15ean *Alkoholaren kontsumoak aztertzen* Alkoholiko Anominoak taldeko kideekin. Biak Arkupen, 18:00etatik 19:30era.

Haurren elikaduraren gainera hitzaldia hilaren 15ean Bergaran

Bergarako Udaleko Prebentzio Sailak antolatuta, hilaren 15ean *La importancia de los hábitos de alimentación en la infancia* hitzaldia egingo dute Etxadiko kideek Bergarako kultura etxean. Hitzaldia 18:00etan hasiko da. Aurrez eskatuz gero, antolatzaileek zaintza zerbitzua eskaintzen dute. Argibideetarako, 943 77 91 26 telefono zenbakira deitu.

Ehigek 'Erljioa eskola ordutegitik kanpo' kanpaina du abian

Ehige gurasoen elkarteak eskola publiko laikoaren aldeko kanpaina abiarazi du. "Lehen Hezkuntzako gurasoen %70ek eta Bigarren Hezkuntzako %80k ez dute Erljioa aukeratzeko", diote Ehigeok, eta erlijioan hezteko beste leku batzuk ere badaudela ohartarazi dute hasi berria duten sentsibilizazio kanpaina.

Andoni Colás | Psikologoa

"Liskarrak normalak dira, eta nola konpondu erakutsi beharko genieke haurrei"

Haurren arteko liskarrak izan zituen hizpide Eskoriatzan Andoni Colas psikologoa

L.Z. | ARRASATE

Luis Ezeiza ikastetxeak gonbidatuta egin zuen Eskoriatzan haurren liskarren arteko hitzaldia Andoni Colas psikologoa. Gomendio interesgarriak eman zituen.

Nola ekidin haur txikien arteko liskarrak?

Lehenik eta behin, jakin behar dugu haurren arteko liskarrak gauza normala direla; beharrezkoak dira haurren sozializatorako. Liskarrak ekiditen baino konpondu erakutsi beharko genieke haurrei. Nik bi liskar mota bereizten ditut: anai-arreben artekoak eta adin bereko umeen artekoak. Etxean, gurasoek esku hartzen dugu; kalean, berriz, guraso gehiago gaude, eta hori da arazoa. Umeen arteko liskarrak laster pasatzen dira; asko haserretzen dira, baina gutxi irauten du haserreak. Haurren arteko liskarrak gurasoen arteko ekartzen badu, ordea, horrek soluzio zailagoa du. Zentzuz jokatu behar dugu.

Zer da zentzuz jokatzeko?

Liskarrak konpontzen erakutsi behar diegu haurrei, eta, sarri, liskarra elikatu egiten dugu gurasoek. Haur batek ez daki emozioak kontrolatzen, eta liskar baten aurrean agresibitatearekin erantzungo du; ostikada, kolpea... Gurasoon lana da liskar horiek beste modu batera konpon daitezkeela erakustea, eta horretarako erreminta egokiak ematea.

Lehenengo gomendia, orduan, beste gurasoekin ez haserretzea?

Hori da. Gure haurra bidegabe jo dutela ikusi dugunean haserretu egiten gara, eta batzuetan atentzioa ematen diogu beste haurren gurasoari. Ez da bidea. Harengana joan eta eskatu beharko genioke arazoa konpontzen laguntzeko. Esan: "Nola konponduko dugu gure haurren arteko liskarra?". Gurasoak ez badu modu egokian erantzuten, haurren irakaslearengana jo dezakegu, eta azken neurria izan daiteke gure umeari esatea haur horrengandik banantzea; haur horrekin ez jolastea. Baina haur horri beste ostikada batekin erantzutea esatea ez da liskarra konpontzea, baizik eta liskarra elikatzea. Gurasoek hezi egin behar ditugu haurrak; zaindu, egin behar ditugu, eta ez kontrako.



Andoni Colas. | MIRIAN BITERI

Haurrak zigortzea eraginkorra dela pentsatzen duzu?

Zigorra baliagarria da eraginkorra den heinean, eta oso gutxitan dira eraginkorrak. Umearen nortasunak ere zerikusi handia du kontu horretan; batzuk ez dira batere larritzen. Nire ustez portaera aldatzeko neurri hobekak badaude, baina kontuan hartu zigorrak beti berehalakoa, neurrikoa eta zigortutako portaerarekin zerikusia duena behar duela. Beti esaten dut zigorra buruarekin ipini behar dela, ez tripekin.

Eta anai-arreben arteko liskarrak konpontzeko ze aholku emango zeniguke?

Harreman hori oso berezia da, karga emozional oso handikoa

"Haurren arteko liskarrak gauza normala dira, beharrezkoa"

"Haurren arteko liskar batek ezin du gurasoen arteko liskar bat ekarri"

delako. Etxean liskar batean ariko dira, baina kanpoan elkar babestuko dute. Hainbat esperimendu egin dira gai horren inguruan eta neurrikerik eraginkorra etxeko guztiek konpromiso bera hartzea da: "Etxe honetan ez dira liskarrak onartuko eta beti moztuko dira". Oso garrantzitsua da beti mozte, eta gurasoek ere haurrak errespetatzea.



KULTURA



Los Fenomenos de la Naturaleza gaztelekuan. | JOSETXO ARANTZABAL



150 lagun elkartu ziren zapatuko bazkarian. | ANDER MONEDERO



Monstruoak izeneko antzezlanaren egubakoitzean. | JOSETXO ARANTZABAL



Kukutzaren aldeko pankarta Udaletxean. | ANDER MONEDERO



Zirko ikuskizuna Santa Anan. | J.A.

Zirkua, graffitiak, antzerkia, musika eta aparteko giroa Kukutzaren astean

- ▶ Zapatuko ekintzak eguraldiak baldintzatu arren, jaiak aurrera egin zuen
- ▶ Antolatzaileak pozik aste osoan zehar izandako parte-hartzearekin

ANDER MONEDERO | OÑATI

2011ko irailaren 21ean bota zuten Bilboko Errekalde auzoko Kukutza III gaztetxea. Nahiz eta gaztetxea bota, bertako kideek proiektuarekin aurrera egitea erabaki zuten eta aste honetan, Bilboko gaztetxearen espirituak magia eta kolorez bete du Oñati. Herri-

tik sortutako eta herriarentzat eginiko kultura, autogestioan oinarritutakoa eta kultura eredu desberdin baten aldeko apustua egiten jarraitzen dute eta oñatiar askok eredu parte hartzaile horren alde apustu egiten dutela argi geratu da. Manu Egaña, Oñatiko Udaleko kultura zinegotziaren

esanetan: "Kukutza gaur hemen egotean aldarrikapen festa bat da, herriaren sormen maila izateko eta autonomia maila hori izateko lan egingo dugu. Gainera, nabarmentzekoa da herritarrek proiektu hau aurrera eramateko izan duten inplikazioa".

Kukutzaren astea 'Kukutza

Gaztetxea' liburuauren aurkezpenarekin hasi zuten astelehenean, eta astean zehar hainbat ekintza izan dira, besteak beste, autogestioaren inguruko hitzaldiak eta egipziar dantzen ikastaroa.

Egubakoitzean, *Monstruoak* izeneko antzezlanaren egubakoitzean, *Monstruoak* izeneko antzezlanaren institutuko aretoan. Poesia errezi-

taldia, baina, bertan behera geratu zen eta baita ere, zapatuan plazan egin behar zuten rokodromoa eta zirku tailerra.

Kukutzaren aldeko herri bazkarian, ordea, 150 pertsona elkartu ziren. Bazkal ostean, giro aparta izan zen, zuzeneko musika eta guzti. Arratsaldean, graffitiak egin zituzten Bidebarrietan eta zirku emanaldia izan zen Santa Anan. Jaiak bukatzeko, Los Fenomenos de la Naturaleza talde bilbotarrak eta Skasti taldeek kontzertua eskaini zuten Gaztelekuan.

Kukutzakoak ere gustura

Aritz Gardoki Kukutzako kideak jasotako elkartasuna nabarmendu zuen eta gaztetxeak aurrera eramateko eta beraien artean elkarlana sustatzeko ekimen polita dela esan zuen.



IKER ACEDO
OÑATI

"Ekintzak betetako astea izan da, pena da eguraldiak ez duela lagundu. Giro polita ekarri dute Kukutzakoek eta parte-hartze handia izan da".




AITOR OTAMENDI
OÑATI

"Gaur eguraldiak ez du lagundu eta ezin izan dugu rokodromoa plazan egin. Bazkarian zutik bazkaldu dugu, jendearekin nahasteko era polita izan da".



VIKY, IDOIA, SAI OA ETA MAIDER
OÑATI

"Oso egun polita izan da. Jende asko bidu gara pilotalekuan bazkaltzeko eta bazkal osteko giroa aparta da. Musika, dantza eta hitz egiteko aprobetxatu dugu eta gero zirko emanaldira joango gara. Gauean, beriz, kontzertuetara joango gara. Nahiz eta gaur eguraldiak ez lagundu, kultura ekintza interesgarri bateriko astea izan da".



IDOIA ASTIGARRAGA
OÑATI

"Zutik bazkaldu dugu, bertan izan garen guztiok nahasteko era polita izan da. Pena da eguraldiarengatik poesia emanaldia bertan behera geratu zela".



Twin Tones, egubakoitz iluntzean Arrasaten. | JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA

Western eta surf doinuak berotzeko

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Nahiz eta Siberiako hotzak etxean geratzeko gonbitea egin, Arrasateko Amaia Antzokian bildu ziren lagunek doinu beroez gozatzeko aukera izan zuten Twin Tones talde mexikarrekin. Hain justu ere, tenperatura hotzaren eraginez, kontzertua Amaia sarrean egin beharrean areto nagusian egin zuten.

Talde mexikarrak *Trio de mercenarios* izeneko lana aurkeztu zuen, Twin Tones taldearen laugarren lana. Lan honetan, surf doinuak alde batera utzi gabe, western doinuak landu dituzte eta nabaria da Ennio Morricone-

neren eta western generoaren musikagileen eragina. Twin Tonesen lan berria, lasai asko, Sergio Leoneren spaghetti western baten soinu banda izan zitekeen eta hori erakutsi zuten egubakoitz iluntzean Arrasateko Amaia antzokian.

Egubakoitzeko emanaldian ez zen publiko asko egon, baina mexikarrei ez zitzaion asko inportatua. Maila handiko kontzertua eskaini zuten; taldearen lan berriko eta aurretiko diskoetako abestiak uztartu zituzten. Emanaldia- ren hasieran, *Guns Don't Argue*, *Indio Black*, *Per Il Gusto Di Uccidere* edo diskoari izena ematen

dion *Trio de Mercenarios* abestiak jo zituzten. Gero, taldeak dituen beste bi diskoetako abestiak jo zituzten: *La Escopeta del Diablo*, *Buena Suerte Forastero*, *Último tren a El Paso*... Aipatzekoa da egubakoitzeko emanaldian talde mexikarrak, tronpeta erabili beharrean, zeharkako txirula erabili zuela eta horrek kontzertuari beste ukitu bat eman zion: surf, garage eta western doinuetatik haratago, 60. hamarkadako Jethro Tull bezalako taldeen ukituak izan zituen kontzertuak.

Bukatzeke, baina, doinu motelak alde batera utzi, eta erabateko ildo progresiboa zuen pieza

FITXA

MUSIKA

TWIN TONES

Estiloa: Western, surf

Non: Amaia Antzokia.

Eguna: Otsailak 3, egubakoitza

Iraupena: 80 minutu.

rockero bat jo zuten, eta bertan izan ziren ikusleak zur eta lur utzi zituzten.

11 egunetan 10 emanaldi

Twin Tones otsailaren 1ean iritsi ziren Madrilera eta hilaren 11n bukatuko dute inguruotako bira. Tourraren hasierako kontzertua Radio3-ko Diego RJk zuzentzen duen *El Sótano* programan eskaini zuten eta, gaur izan ezik, egun guztiaren egingo dituzte emanaldiak. Gero, Italiara doaz.

Freedom Boys taldearekin punk eta oi! doinuak Inkernun

Eskoriatza eta Aretxabaletako gaztetxoek osatzen duten taldeak bete egin zuen Inkernu taberna



Freedom Boys egubakoitzean Inkernun. | JOSETXO ARANTZABAL

A.M. | ESKORIATZA

Freedom Boys taldeak ibilbideko hirugarren kontzertua jo zuen egubakoitz iluntzean Eskoriatzako Inkernu tabernan. Eskoriatzako eta Aretxabaletako lau gaztek –Unanue, Santama, Aitzol eta Garai– osatzen dute taldea, eta energia eta gogoz beteriko kontzertua izan zen.

Taldeak, aurretik, Eskoriatzako gaztelekuan eta Aretxabaletako Andramaixetan jo du eta kontzertuak pasa ahala oholtza gainean gero eta gusturago dardela nabaritzen da.

Freedom Boys taldearen hirugarren kontzertuak ikusmin handia sortu zuen, batez ere, beraien lagun, inguruko, eta punk eta oi! zaleengan. Izan ere, taberna leporaino betetzea lortu zuten. Kontzertuari dagokionez, ordu-bete inguru iraun zuen eman-

dia eskaini zuten eta bertsiok jositako emanaldia izan zen: Rip, Des-kontrol, Kañeria 13, 2 Minutos, Arkada Social...

Baina gazte talde honek egin dako abestiak ere jo zituzten: *Gure Iraultza* edo taldearen ikur den *Betiko lagunak* abestia. Energiak beteriko abesti honetan, lagunez, gaueko istorioez eta gustuko duten musikaz hitz eginen dute. Oi! musika, garagarra eta lagunak dira taldearen ikur- rretako batzuk.

Kontzertua bukatzeko, Rip talde arrasatearraren *Mundo Muerto* bertsiok egin zuten. Horrela jarraituz gero, etorkizun handia dute gazte hauek; izan ere, Freedom Boys taldeko kideak 15 urteren bueltan dabilta eta jotzen duten musika bizi egiten dutela nabaritzen da. Segi horrela Freedom Boys!

Mirrix Katuaren musikala otsailaren 12an Santa Anan

A.M. | OÑATI

Mirrix Katua izenburua duen ipunia abestu eta antzeztuko du Ganbara Txikitxo abesbatzak hilaren 12an Oñatiko Santa Ana aretoan. Abesbatza oñatiarrak hirugarren urtez jarraian taularatuko du musikala. Bertan, Mirrix katuaren eta katu kuadrilla baten egunerokoa kontatuko dute.

Musikalaren lehenengo atalean, Leonor, Bryan, Vladimir eta gainontzeko katuak, jatorri desberdinetakoak, zabortege batean elkarrekin bizi dira. Herri-mina uxatzeko, bakoitzak bere herrialdeko kantuak erakusten dizkie gainontzeko lagunei. Bigarrean, berriz, Mirrix katuaren istorioa kontatuko dute. Mirrix katu artoa eta alproja da eta inguruko animalia guztiak kikilduta ditu. Egun batean, txakur handi batzuekin topo egin eta ihes egin beharra suertatzen zaio. Ihesean doala, mendira iritsi eta galdu egiten da. Bertan, Lutxiano barraskiloarekin topo egiten du eta elkarrekin hirirako bidearen bila abiatzen dira; baina, bertan, zauritutako artzain txakur bat aurkitu eta berekin bizitakoak kontatzen ditu musikalak.

Ainhoa Urtzelai Ganbara Txikitxoko kidea arituko da Mirrix katuaren paperean eta bererarekin batera Mikel Freire eta Gorka Aranburu, txakurra eta barraskiloaren paperean.

Mirrix Katuaren musikaren emanaldia otsailaren 12an izango da, Oñatiko Santa Ana antzokian arratsaldeko 18:00etan. Sarrerak otsailaren 6tik 9ra bitartean egongo dira salgai 5 euroren truke, Santa Ana antzokiko leihatilan.

Vomito punk taldea beteranoa ostegunean Arrasateko Gaztetxean

Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan Vomito taldeak kontzertua eskainiko du otsailaren 9an Arrasateko gaztetxean. Talde irundarrak 2011an Pottencial Hardcore zigilu madrildarrarekin kaleratutako *Paralizando 13* izeneko diskoak aurkezten dihardu. Lan berria, Paralisis Permanente talde madrildarraren bertsiok osatuta dago, baina ez dira faltako talde irundarraren klasikoak: *Ratas de ciudad*, *El ejercicio del Crimen*, *Radio Terror* edo *La Circulación en el laberinto*.



Patxi Garate azalpenak ematen bere erakusketa ikustera joan zirenei. | JOSETXO ARANTZABAL

Patxi Garatek margotutako zeinu eta sinboloz bete da Bergarako Aroztegi aretoa

- ▶ Egubakoitz arratsaldean ireki zuen erakusketa
- ▶ Elementu horien garrantzia aldarrikatu nahi izan du

IRATI GOITIA | BERGARA

Patxi Garatek bere lanekin Aroztegi aretoan sortu duen zeinu eta sinboloen mundura sartu aurretik, argibide batzuk eman nahi izan dizkio ikusleari. Hala, Sigfried Giedion, Juan Eduardo Cirlot eta Dan Sperber-en hitzek ematen diote ikusleari ongi-etorria erakusketan sartu aurretik. Sinboloek historian izan duten garrantzia azaltzen da guztien berbetan. Hain zuzen, horixe islatu nahi izan du Garatek berak

ere *Keinua eta letraren artean* izeneko proiektuan: "Egungo gizartearen protagonismoa galdu dute, baina izan duten garrantzia aldarrikatu nahi nuen lan honekin".

Sinpletasuna eta abstrakzioa Ukitu abstraktuko lanak dira Garatek aurkeztutakoak, sinpleak: "Sinpletasuna asko gustatzen zait; marra batekin esan badezakezu nahi duzuna, zergatik erabili lau edo sei?".

Bi material erabiltzen ditu Garatek erakusketa honetan; papera eta oihala: "Urtebete pasa eskatu nuen aretoa, lanak erakusteko oso egokia irudi zitzaidan. Zutabeek bitan banatzen dute gela; aproposa bi materialez osatutako proiektu honentzat".

Izengabeko lanez osatutako proiektua da berea; hala, ikuslearen esperientziaren arabera da pertzepzioa.

Erakusketa ikusgai izango da otsailaren 19a bitartean.

Juan Mari Agirreurreta pasaiatarrak irabazi du itzulpengintzako Jokin Zaitegi beka

Tomas Transtömer suediarren poema bilduma itzuli beharko du iraila baino lehen

IRATI GOITIA | ARRASATE

AEDk eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten Jokin Zaitegi sariketarako irabazlea: Juan Mari Agirreurreta.

Epaimahaia Luigi Anselmik, Santi Leonek eta Joseba Ossak osatu dute. Azpimarratu dute Agirreurretak fideltasun osoz islatu duela bere itzulpenean Tomas Transtömer idazlearen idazkera estilo soila. 5.000 euroko saria jasoko du orain irabazleak lan osoa itzultzeko.

Agirreurreta irakaslea da lanbidez, baina esperientzia du itzulpengintzan. 2010ean Victor Hugoren nobela bat itzuli zuen. Hainbat sari ere irabazitakoa da, tartean, Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketa eta Arrasateko palindromo txapelketa.

"Gozatu egingo dut"

Agirreurretak adierazi digu oso pozik dagoela: "Albiste jaso

dudanean ezin nuen sinetsi, beka eskuratzea oso zaila iruditzen zitzaidan". Gaineratu digu lanari ekiteko gogotsu dagoela: "Egin behar dudana oso polita da eta gozatu egingo dut".

Suediera ez dakien arren, itzulpen zehatza egiteko nola moldatu den azaldu digu: "Suediera jakin ez arren, oso baliagarria izan zait. Izan ere, idazleak bere hizkuntza nola erabiltzen duen aztertu dut, esaterako, letra larriak noiz erabiltzen dituen edo harridura ikurak noiz jartzen dituen. Suediera oinarri bezala erabil du eta gero beste hiru hizkuntzetan (ingeleza, gaztelania eta frantsesa) baliatu naiz. Helburua zen lehenik poema ongi ulertu eta gero euskaraz ahalik eta modu freskoenean idaztea, euskaldun baten belarrira arrotza geratu ez zedin".



Juan Mari Agirreurreta. | GOIENA



Epaimahai gazteko kideak eta Jarduneko Maitane Arizabaleta. | J. ARANTZABAL

Aste honetan ezagutuko ditugu amodiozko gutun irabazleak

Epaimahai gazteak erabaki du jada zein den 26 urtez azpiko lanik onena

I.G. | BERGARA

Jardun euskara elkarteak antolatzen duen Amodiozko Gutunen Lehiaketara 65 lan aurkeztu dira aurtengoan; iaz baino bederatzigutun gehiago. Euskal Herri oso-tik jaso dituzte, Debagoietatik 21. Hala ere, AEBetatik ere bidali dituzte gutunak.

Irabazleak aste honetan

Asteon ezagutuko ditugu zeintzuk diren lehiaketako irabazleak.

Epaimahai gazteak hartu du bere erabakia dagoeneko. Lau

ikaslez osatuta dago: Laura Axpe eta Maitane Mujika Ipintza institutukoak, eta Maialen Marauri eta Irantzu Casanellas Aranzadi ikastolakoak.

Eurek aukeratu dute 26 urtez azpiko gutun onena zein den; egubakoitz arratsaldean bildu ziren epaia erabakitzeke kultura etxean. Irabazleak 150 euro jasoko ditu.

Epaimahai nagusia, bestalde, eguaztenean zen elkartzekoa, baina elurra zela-eta, biharko atzeratu zuten zita. Beraz, bihar

erabakiko dira gainontzeko irabazle guztiak.

Epaimahai nagusia ondorengo hauek eraten dute: Idoia Galan iazkoa irabazleak, Andoni Tolosa musikariak, Oihane Perea bertsolariak eta Pello Añorga idazleak. Eurek aukeratuko dituzte lehenengo eta bigarren sariak eta baita Bergarako gutunik onenarena ere.

Sari ematea otsailaren 14an, San Balentin egunez, egingo da Bergarako kultura etxean, iluntzeko 19:00etan.



Begiristain Iturriotz baserria IKAZTEGIETA
607 36 57 43
begiristainsagardotegia@gmail.com
www.begiristainsagardotegia.com

Eskaintza

- Urtariletik ekaina bukaera arte zabalik, sagardoa txotxetik. Zuzeneko botila sagardo salmenta urte guztian. Etxez-etxeko banaketa.
- Sagardotegiko menua. Arkumea burduntzian enkarguz. Afariak asteartetik zapatara, bazkariak eguenetik igandera
- Webgunean sagardotegira bazkidetzeko aukera.
- **“Tolare” sagardotegia**



Iruki Otaola hiribidea, 3 atzealdean.
EIBAR / 943 20 68 44
irukieibar@hotmail.com / http://irukieibar.com

Eskaintza

- Eibar erdialdean.
- Aparkalekua doan.
- 200 lagunentzako tokia.
- Egutero zabalik, baita egubakoitz eta zapatu gauean eta jai bezperatan ere.
- Parrilla eguneko menuan ere.
- Prezio merkeak eta giro atsegina.



Ipintza Ipintza baserria / Santio Zaharra 12
ASTIGARRAGA / 688 81 17 24
ipintza@ipintza.com / www.ipintza.com

Eskaintza

- Astigarraga erdigunean.
- Egutero zabalik, igande gauean izan ezik.
- Urte osoan sagardoa txotxetik.
- 150 pertsonarentzat lekua.
- Eserita.
- Aparkalekua.
- Sagardo botila salmenta.
- **“Tolare” sagardotegia**



Iturrieta Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 80 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



**EGIN
TXOTX!
sagardotegietan**



Larre-Gain Larre-gain sagardotegia
HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

Eskaintza

- Janaria sagardotegiak jartzen du.
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta.
- Astegunetan, gauean bakarrik zabalik. Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik Domeketan, eguerdira arte zabalik. Astelehenetan, itxita.
- **“Tolare” sagardotegia**



Oiharte Irukarate-gain auzoa (Mutiloa bidea)
ZERAIN
943 50 10 13 / 686 29 91 58
www.oiharte.com

Eskaintza

- 120 lagunendako lekua, zutik edo eserita.
- Martitzenetik zapatara gauez. Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerdian zabalik.
- Sagardoa botilan salgai.
- Sagardotegiaz gain nekazaritza turismoa.



Unzueta Zabala z/g
ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan.
- Sagardotegiko menua: 29 €
- Berezitasuna: txuleta.
- 70 lagunendako tokia.
- Parking eta terraza.



Zabala Garagartza baserria / ADUNA
(Andoain eta Billabona artean)
943 69 07 74

Eskaintza

- Urtariletik maiatz hasiera arte zabalik.
- Egubakoitz, zapatu eta domeka eguerdian enkarguz.
- Bertako janaria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2004an, 2006an eta 2010ean irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan.
- **“Tolare” sagardotegia**

GURE MUSIKA TALDEAK



Arrasateko Dirty Brothers taldeko kideak. | DIRTY BROTHERS

"Abesti gehienak dira gureak eta orain arte egin duguna baino gogorragoa da diskoa"

- ▶ Euren sentimenduak eta bizipenak islatu dituzte letretan
- ▶ Doinuei dagokienez, desberdintasun handiak daude abesti batetik bestera

MIREN ARREGI | ARRASATE

Egun Ilunak da Dirty Brothers taldearen disko berria. *Gure bidea* lehen diskoa kaleratu eta bi urtera dator honakoa. Aurrekoa baino gogorragoa da eta ia abesti guztiak dira eurek sortuak. Asier Sala, Jon Olaziregi, Jokin Azpiazu, Jon Alkorta eta Aitor Aginagalde daude diskoan. **Zuek grabatu duzue, ezta?** Salak egin ditu teknikari lanak eta Lazkanoren Aretxabaletako estudioan grabatu dugu. Horrek askatasun izugarria eman digu, gura izan dugun debora guztia

hartu dugu grabazioa egiteko; moldaketak egin ditugu bururatzeko zitzazkigun heinean, ez gara diskoetxe baten menpe egon, eta hori gauza handia da.

Egun ilunak izenburuarekin, zer adierazi gura izan duzue?

Oso nekeza izan da bidea. Duela ia urtebete hasi ginen grabazioak egiten. Egun ilunak izan dira asko eta asko; hala ere, aurrera egin dugu.

Gure bidea lehen diskoak zuek sortutako sei abesti zituen, eta oraingo honek hamahiru ditu.

Aurrekoan bertsoak ziren gehie-

nak, baina orain, bertsoak bi bakarrik dira. Gure tokia aurkitu dugu, gure abestiak dira gehienak eta doinuak gogorragoak dira. Akustikoetatik abiatuta, askotariko doinu eta generoak landu ditugu.

Beraz, zaila da diskoa musika estilo zehatz baten barruan kokatzea.

Ez da erraza gure musika katalogatzea. Denetariko estiloak landu ditugu, reggaea, ska, punka, punk-rocka, akustikoa... Desberdintasun handiak daude abesti batetik bestera.

Kolaborazio asko izan dituzue, baita Berlingo ere.

Berlingo Frontkick taldeko Stephan baxu-jotzailea etorri zen halako baten Arrasatera, eta guk diskoaren grabazioa hasi genuen orduan. Bat-bateko zerbait izan zen; hona etorri eta galdetu genion ia abesti baten kolaboratu nahiko zukeen. Politza izan zen. Bestetik, Magu, Hodei, Igor Sala eta Oihanak ere kolaboratu dute gurekin.

Diskoa orain kaleratu bada ere, badakit kontzertuetan dagoeneko aurkeztu dituzuela hainbat kantu. Diskoko lau bat abesti eskaini izan ditugu, bai. Ez da diskoaren aurkezpen ofizialik egin, baina kontzertuetan zaleek entzun dituzte abesti batzuk. Gainera, gustatu egin zaizkie, eta asko eta asko diskoa noiz kaleratuko zain egon dira.

Orain arte egin duzuen baina gogorragoa da disko berria. Hori izango da hemendik aurrera jarraituko duzuen bidea?

Akustikoak eta bertsoak izan ziren abiapuntua, eta esan daiteke orain beste bide bat hartu dugula... Horrek ez du esan nahi ez dugula bertso kontzerturik edo kontzertu akustiko gehiagorik egingo. Bururatzeko zaiguna edo unean-unean sentitzen duguna egiten dugu. Aberastasun hori dugu, nolabait esateko. Ideia da ildo bat jarraitzearena, baina ez dugu beldurrik gura duguna egiteko gura dugunean. Jendeak gauza bat eskatu arren guk beste bat egin gura badugu, egin egingo dugu.

ZERTZELADA



'EGUN ILUNAK'

Estiloa: Rock, punk, pop, country...

Egilea: Dirty Brothers (Arrasate).

Argitaletxea: Mondra Underground Sounds.

Iraupena: 48,12 minutu.

Anaien jenio eta barietate handiagoa

Dirty Brothers baliabide gutxiarekin agertokiak hartzeko proiektu gisa sortu zen, baina fintzen joan da. Gogoan dut debuteko lanarekin sorpresa hartu nuela freskotasanagatik. Orain etxekolanak egin dituzte (Irakasleek ez lukete sinistuko!) eta emaitza zabalagoa da. The Clash tatuatuta daramate eta Johnny Cash alboan dago, baina kantu hauek gorputz handiagoko dute, koroak gehiago zaindu dituzte, melodia gehiago dago eta punka (hitzen eta jarreraren jenio handiagoa), Berlingo rocka, ska-rocka eta Arabako mesetako rocka ere ageri dira, gehienetan melodia itsaskorreki.

IKER BARANDIARAN

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Prezio berria. Aukera paregabera. Eguzki dorrean etxebizitza salgai. Eraberitua, guztia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bikomun, egongela eta sukaldia. Hiru igogailu eta gas naturala. 20 metro koadroko garaje itxia aukeran. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 650 01 05 15

Atxondo. 75 m². 3 logela, sukaldia, egongela, komuna, balkoia. Oso eguzkitsua. Kanpora ematen du etxe guztiak. Berogailua. Berriztatua eta altzariz hornitua. Deitu konpromiso barik eta ikusi. 180.000 euro. Tel.: 655-73 74 47.

Atxondo. 200 m²-ko txaleta salgai. Sukaldia, bi egongela, lau logela, hiru bainugela (bata logela baten barruan), trastelekua. Altzariz hornitua. Berogailua, zoru erradiantea eta aspirazio zentrala. Terraza eta 4.000 m²-ko terrenoa. Prezioa: 900.000 euro (negoziagarriak). Tel.: 615-70 12 23.

Berriz. Pisu salgai herri erdian. 71 m²: egongela, sukaldia, 3 logela, komuna eta ganbara. Bihorma-armairu, berriztua eta eguzkitsua. Aurrealde margotu berria, eta komunitateko gasturik gabe. 193.000 euro. Tel.: 679-86 17 30.

Berriz. Berriz erdian pisu berria salgai. 80 m². Oso kokapen ona. Guztiz jantzita dago. Sukaldia, egongela, komun handia, 2 logela (bat zurezko ganbaratxoagaz, balkoiagaz, despentsa txiki batez). Berogailua, zoru erradiantea da. Oso eguzkitsua da. 607-52 24 26.

Bolibar. Etxe zaharra salgai bolibarren. 34 m² x 3. Teilatu berria eta proiektuagaz. 3 gela eta 40 m²ko terraza. 150.000 euro. 660-35 80 67

Durango. Pisu salgai Muruetorren. 90 m². Sukaldia eskegitokiarekin, egongela, balkoia, 3 logela, 2 komun (bat logela barruan). Guztiz berriztua (ateak, leihoak, horma-armairuak...) eta jantzia. Eguzkitsua, bista eta kokapen ederrekoa. Ganbara eta garajea. 686-13 89 09.

Durango. 98 m²-ko etxebizitza oso eguzkitsua; 3 logela, sukaldia-jangela, egongela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 m² eta 8 m²-koak) eta baita terraza komunitarioak ere. Altzariz bete eta guztiz jantzia, berogailuaren galdara jarri berria, hormako lau armairu, aluminiozko leihoak, atek eta zoru aldatuta. Garaje eta igerilekuarekin. Tel.: 655-70 46 84.

Elorrio. Elorrio. Zentrikoa den 90 m²-ko pisu salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, egongela, garaje partzela eta trastelekua. Tel.: 657-79 39 38.

Elorrio. 76 m²-ko etxe berria. Erdigunean. Sukalde ekipatua, 2 logela, 2 komun eta 10 m²-ko trastelekua. Garajea aukera erosteko aukera. Prezioa: 38 milioi. Tel.: 634-45 72 01.

Elorrio. Salgai estreinatzean dagoen 162 m²-ko terraza duen atikoa (73 m²). 2 logela, egongela bat, sukaldia eta 2 bainugela. Igogailua eta trastelekua. Oso kokapen ona, eguzkitsua eta bista zoragarriekin. Aukera paregabea!. Deitu telefono hauetara:

615-75 59 85 (goizez) eta 636-22 49 02 (arratsalde).

Errenteria/Oretea. Osopisu argitsua. Bistekin. Kotxea apartatzeko lerroa eta barbakoa egiteko txokoa. Etxea pintatu berria eta leiho berriekin. Oso ondo komunikatuta bai Errenteriruntz bai Donostiaruntz ere. Telefonoak: 669-71 01 16 edo 629-24 55 04.

Eskoriatza. Duplexa salgai. 120 metroko. Berri-berria. Jantzia. Prezio onean. 679 16 24 96

Gasteiz. 57 m², egoera onean, kalefakzioa eta ura elektrikoak dira, hegoaldera begira. 1. Solairua, 5 ate pisu bakoitzeko, igogailua, eraikinak 20 eta 30 urte bitartean ditu, 2 logela, 2 komun (biak bainerarekin), sukaldia (garbigailua, mikroondasa, etab.) balkoia, moketalogetan, parketa egongelan eta baldosak gainontzekoan, banakako garajea, itxia, eskiak gordetzeko tokia, piszina eta belardia urbanizazioaren barnean, aurrean plaza bat dauka, kolunpioekin etab, hormak margotu berri eta zoru aldatuta. Jantzia. Telefonoa: 665-75 78 07. Posta: marian.formigal@gmail.com.

Iurreta. Pisu bat salgai Arriandin, Iurretan. 78.000 euro. Tel.: 685-72 80 42.

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorenzo auzoan. 60 metro koadro eta bi logela. Prezio negoziagarria. 699-78 47 49.

Ormaiztegui. Etxebizitza salgai. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. Etxe bildua eta argitsua. Bi logela. 160.000 negoziagarriak. 659-75 40 83.

Otxandio. Apartamentu jantzia salgai trastelekuarekin. Igogailua. Tel.: 675-71 72 83.

102. EROSI

Durango. Baserri bifamiliar osoa erreformatzen dizut, baserri erdiaren truke, durangaldean. Beste proposamenen bat badaukazu, kontutan hartuko dut. 618-93 62 14.

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Bi logelako eta terraza handia duen etxebizitza ematen da errentan. 665 72 18 59

Atxondo. Atxondon pisu alokatzen da. 3 logela, 2 komun eta sukaldia-egongela. 680-42 77 02.

Bergara. Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, bikomun, sarrera, egongela eta sukaldia. Hornitua eta jantzia. 607-32 74 32.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun. 663 77 14 50 edo 671 14 99 63

Donostia. Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det donostian, antzigu auzoan bertan. Persona batentzako egokitua, bi planta dauka eta kotxea sartzeko aukera dago. Eguzkitua da eta lasaia. Prezio 500 euro. 609-48 11 24.

Durango. Logela bat alokatzen dot 3 logelako pisu batean. Emakume nahiago. Tel.: 600-45 83 16.

Elorrio. Pisu alokagai herri-gunean. 3 logela, 2 bainugela. Trastelekua. Amueblatua. 600 euro hilean. 634-45 72 01.

Elorrio. Banako etxea alokagai Elorrian. 125 m²-ko etxea, 100

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00 arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarria egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

Debagoienetik kanpo iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- Bergara:
- Lorentxokan pisuak estrenatzeko. 3 logela. 240.481€.
 - PREZIO BEHERAPEN HAUNDIAREKIN!
 - Lorentxoko 73 m². 2 logela. 227.450€. Aukera ezin hobea
 - Urteagan pisuak estrenatzeko. 195.000€
 - Bidekurutzetan pisuak estrenatzeko. 1, 2, 3 eta 4 logela.
 - Masterreka 104 m². 3 logela. Estrenatzeko. Trastelekuarekin. 294.495€.
 - Martoko 140 m². Duplexa. Berria. Aukera ona.
 - Justo Garate Plaza. 80 m². 3 logela. Ia berria. Garajea aukeran.
 - Simon Arrieta 90 m². 3 logela. Balkoia, igogailua, kalefazio eta trastelekuarekin.
 - Zabalategi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
 - Ibargarai 54 m². Garajearekin. Aukera ona. 234.395€
 - Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailua eta kalefazioarekin. Prezio ona.
 - San Lorenzo 67 m². Garajearekin.
 - Zubiarre 51 m². 102.000€
 - Herri Logunok 60 m². 2 logela. Oso ondo. 160.771€
 - Zabalategi 54 m². Balkoiarekin. 96.000€
 - San Pedro 65 m². 2 logela. Erabat berriztua. Kamarotearekin. 122.606€
 - Burdinata. 104 m². Garajearekin. Oso prezio ona.
 - Martoko 70 m². 2 logela. 110.000€.
 - Bolu 140 m² duplexa. Terraza eta garajearekin. Aukera ona
 - Ibargarai 74 m². Igogailua eta garajearekin.
 - Burdinata 53 m². Apartamentua, oso ondo.
 - Masterreka 70 m². 2 logela. Igogailua eta garajearekin.
 - Bidekurutzetan 60 m² obra egiteko. Oso prezio ona.
 - Zubiarre 82 m². Igogailua eta kalefazioarekin. 150.253€.
 - Zubieto 240 m², ortuarekin.

Antzuola:

- Baserria 200 m². 3 logela. Berria. Garajea. Lur sailarekin.
- Buzintzurin apartamentua estrenatzeko. Aukera ona.
- Buzintzurri, Sagasti, Antigua, Zurtegi, Behoko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierro eta Errekalde. Etxe onak.

Sorluzue:

- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Elgeta:

- Torrealedea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.

Arrasate. Pertsona bat behar da 4 gela eta 2 bainu gelako pixua osatzeko, etxea oso eguzkitsua da, oso ondo dago eta 3 langile bizi dira bertan. 653-71 44 57.

Bergara. Logela ematen da errentan pertsona bakar edo bikotearentzat. Deitu telefono honetara: 699-09 46 26.

Berriz. Logela alokagai baserri batean. Estreinatze eta leku paregabean. Aukeran, nahiago emakumea. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 619-66 58 57.

Berriz. Logela alokagai baserri batean. Estreinatze eta leku paregabean. Aukeran, nahiago emakumea. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 619-66 58 57.

Eskoriatza. Pertsona bat behar dugu plaza dagoen etxebizitza osatzeko. Guztiz eraberitua. Leire. 685-73 60 57.

Iurreta. Gelak alokatzen dira Maspe kalean, abendutik aurrera. Tel.: 687-58 66 37.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. 15 m²ko garaje itxia salgai ozaetan. Prezio negoziagarria. 655-72 63 13, 943-76 50 71.

Berriz. Garaje itxia salgai. 42 m². Ate automatikoagaz. Ura eta argiaren instalazioak, iaztik. Komuna eta bodega txiki bat. 2-3 kotxe. Txokoa sukaldagaz. Tel.: 615-75 21 36.

Berriz. Learreta-Markina kalean garajea salgai. Eskola aurrean. Sarrerak errepidera ematen du. 30 m². Deitu telefono honetara: 663-39 75 88.

Durango. Garajea salgai. Montorretan, Simply supermerkatuaren ondoan. 2 lerro, autokarabana sartzeko toki aproposa. Tel.: 652-76 81 31.

Eskoriatza. 15 metro koadroko garaje itxia salgai Intxaurtueta 23an. 679 16 24 96

Otxandio. Garaje itxia salgai Otxandion, pertsiarekin. 675-71 72 83.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje bat alokatzen da Arrasaten. Larreako etxeen atzetik (Usaetxe enparantzan). 60 euro hilabetean. Sergio. Deitu telefono honetara: 678-53 82 48. soliveira@hotmail.es

Berriz. Gabiola kaleko 5. behean. Garaje itxia. 2 kotxe. Kaleko sarrera oinez sartzeko eta atzeko partetik kotxearekin. 660-12 50 70.

Berriz. Berrizen, Legaño auzoan garajea alokagai. Handia eta toki lasaian. 25 m². Kotxea zain beste hainbat gauza sartzeko. 663-39 75 88.

Durango. Kotxe partzela alokagai Askatasun etorbidea 11n. 94-681 39 32.

Durango. Garaje itxia alokairuan Sasikoa inguruan. 75 euro. Deitu telefono honetara: 688-80 70 92.

Otxandio. Garaje itxia alokatzen da Otxandion. Tel.: 675-71 72 83.

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garaje baten bila nabil, Bergarako edozein zonatan. 618 90 23 66

3. LOKALAK

301. SALDU

Elorrio. Elorrian 170 m²-ko lokala alokagai edo salgai. Oso toki onean, erdialdean. Eskapate handiekin. Edozein negozio ipintzeko aproposa. Deitu telefono honetara: 94-658 21 01 (dendako ordutegian).

Gasteiz. Azken erabilera: Tailer mekanikoa. Garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia ditu. Bulegoko altzariak eta garajeko atea. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun ditu, bat mugikortasun urriko pertsonen moldata. Hiri erdiguneko komunikazio onak ditu. Autobus geltokiak hurbil daude. Alokatzeko ere posible da: 800euro/hil. Deitu telefono honetara: 665-75 78 07 (Ana).

305. BESTELAKOAK

Oñati. Lokala daukat partekatzeko moduan. Guztiz hornituta dago. Erdigunean. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 651 70 17 41

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Euskaraz hitz egiten duen emakume bat behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 637 77 45 57 edo 678 64 15 18

BERGARA

Neska behar da harategirako. Euskara beharrezkoa. 615 78 45 75

402. ESKAERAK

Abadiño. Persona nagusien zaintzarako, garbiketarako edo umeen zaintzarako lan bila. Oрдuka, gauzez edo asteburuetan. Sukaldatu, plantxa egin... Ospitalean, garbiketan eta nagusien zaintzan esperientzia. Tel.: 696-75 35 30.

Aramaiio. Aramaioko neska gaztea, haur hezkuntzan diplomatu, goizetan haurrak zaindu eta eskolara eramateko prest. 645-73 22 72.

Arrasate. Emakume arduratsua etxeko lanak edota pertsona nagusiak zaintzeko prest. 656-77 53 37.

Arrasate. Neska gertu etxe zain atariak garbitzeko. Erreferentzia onak ditut. 610-82 02 17.

Arrasate. Arrasateko esperientzadun 28 urteko mutila gertu barrako zerbitzari, furgonetako gidari banatzailea, motozikleta gidari banatzailea, banatzailea orokorrean, pintore eta arotza laguntzailea, komertzio dependiente moduan lan egiteko. 677-61 95 92.

Arrasate. Gizona gertu edozein lanetarako: garbiketarik lokaletan, tabernetan zerbitzari edo bestela. Baita asteburuetan ere. 693-40 88 86.

Arrasate. Neska gazte euskalduna etxeak garbitzeko edota umeak zaintzeko prest, esperientzia handikoa. Deitu telefono honetara: 618-41 24 79.

Arrasate. Emakume euskalduna. Umeak zaindu eta eskolara eramango nituzke. Oрдuka plantxa egiteko ere prest nago.

Interesatuok deitu honako zenbakira: 626-29 98 43.

Arrasate. Aretxabaleta edo Eskoriatza. Andre arduratsua lanerako gertu: garbiketak edo nagusiak zaintzen. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. 682-31 97 37.

Arrasate. Neska gertu gaixoak eta edadetuak zaintzeko. Esperientziakin daukat egoiztan geriatria laguntzaile gisa. Gauak ospitalean egiteko prest. Etxe garbiketak ere bai. Deitu telefono honetara: 693-40 88 86.

Bergara. Eskarmentu handiko emakumea, geriatria ikasketaduna, orduka, etxean bertan bizi izaten zein asteburuetan lanerako gertu. Urte asko daramatzat hemen eta legezko paperak ditut. 617-12 61 44.

Bergara. Goizetangarbitaketa lanekin edo nagusiak zainduko nituzke. 680-77 06 46.

Bergara. Emakumea gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo garbiketak egiteko. Deitu telefono honetara: 610-34 97 88.

Bergara. Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko goizez zein arratsalde. 605-51 96 89.

Debagoiena. Etxeko lanak eta garbitasunak egingo nituzke. 646-10 21 66.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketak eta abar. 638-59 04 71.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketak eta abar. 638-59 04 71.

Debagoiena. Mutil arduratsua gertu nagusiak zaindu, atari zein elkartek garbitu edo bestelako lanerako. 685-42 72 80.

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo taberna, bulego eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. 943-10 96 89 / 671-18 50 83.

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke etxean bertan bizi izanda. Erizain laguntzaile naiz. Etxeko lanak ondo egiten ditut. Baserrietan ere lan egingo nuke. Erreferentziak ditut. 618-93 59 29.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusi zein umeak zain-

tzeko orduka edo asteburuetan ere bai. 606-54 89 90.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Deitu telefono honetara: 690-71 94 45.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu umeak zaindu, orduka garbitasun lanekin edo nagusiak zaindu zein laguntzeko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943-71 53 74 / 695-73 87 95.

Debagoiena. Neska euskalduna gertu umeak eta nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Informeak ditut. Esperientziaduna. 603-14 59 17.

Debagoiena. Sukaldelaguntzaile, garbiketaria eta abarrak egingo nituzke. Gozoz gertu aditua naiz. Orduka zein egun osoz. 686-66 80 63.

Durungaldea. Interna edo orduka lan bila dabilen neska. Nagusien edo umeen zaintzan edota garbiketalanerako. Pertsona nagusien zaintzan esperientzia. 689-98 72 06.

Debagoiena. Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota klasepartikularrak emateko. Magisteritzan diplomaturia eta hezkuntza berezian espezialista. 600-39 47 77.

Debagoiena. Denetarik garbiketak egingo nituzke. Maite. 696-88 93 73.

Debagoiena. Mutil gaztea lan desberdinak egiteko gertu. Mekaniko lanak, garbiketaria, pertsona nagusiak zaindu... 645-54 43 25.

Debagoiena. Elgeta, Bergara edo Arrasate. Emakume euskalduna gertu lanerako. 606-50 02 67.

Debagoiena. Esperientziadun automotzio mekanikaria lanerako eskaintzen da. Hidraulika-neumatika eta pisudun makinak ezagutza, besteak beste. Antonio. 656-69 80 70.

Debagoiena. Neska euskalduna edozein lanerako gertu. 673-41 99 69.

Debagoiena. Neska euskalduna umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketaria lan egiteko gertu. Esperientziaduna. Informeak ditut. Disponibilitate osoa. 671-35 22 60.

Debagoiena. 40 urteko emakumea gertu nagusi zein umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 620-43 85 40.

Debagoiena. Bertako neska gertu nagusiak zaindu eta etxeko garbiketak egiteko. Eskarmentu handikoa. 696-84 19 51.

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Deitu hona: 651-38 85 38.

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke. Legezko paperak eta gidatzeko baimena daukat. Eskarmentu eta erreferentzia onak. 603-14 59 17.

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke asteburuetan, jaiegunetan edo etxean bertan. Gauz ere bai. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Deitu telefono honetara: 638-13 97 28.

Debagoiena. Neska arduratsua eta atsegina garbiketaria, ume zein nagusien zaintza edo bestelako lanerako gertu. Etxean bizi izaten edo orduka. Magaly. 615-06 28 04.

Debagoiena. Sukalde laguntzaile, garbiketaria edo nagusiak zaintzen jardungo nuke. 691-03 25 02 / 943-54 09 41.

Debagoiena. Haur hezkuntza ikasia eta esperientzia duen neska euskalduna goizez zein arratsalde haurrak zaintzeko prest. 680-34 29 60.

Debagoiena. Emakumea eskeintzen da etxeko garbiketaria orokorrak egiteko, esperientziaduna. Lanean hasteko prest. Deitu zenbaki hona: 672-88 01 01.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketak egin, nagusiak zaindu zein tabernetan lan egiteko. Egun osoz zein orduka. 605-41 88 20.

Debagoiena. 42 urtetako emakumea lanerako prest, arraindegian lan egiteko eta janiak manipulatzeko karnetak ditut. Pertsona nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko prest. Automobilak daukat. Deitu hona: 678-98 30 32.

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke: nagusiak zaintzen edo denetarik garbiketaria lanetan. 699-09 46 26.

Debagoiena. Emakume esperientziaduna eta arduratsua, etxeko lanak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Deitu hona: 680-12 73 16.

Debagoiena. Zaintzaile. Haur hezkuntza ikasi duen 22 urteko neska prest haurrak zaintzeko. Interesatuok zenbaki honetara deitu: 688-88 39 57.

Debagoiena. Asteburuetan zerbitzari lanak egingo nituzke jate txer batean. Esperientzia eta ingelesa. 649-57 70 59.

Durungaldea. Ipuin kontaketa eta monologo humoretsuak eskaintzen dira. Tabernetan, ezkontzetan, juergetan, ... Tel.: 651-36 97 69. Roman

Durungaldea. Etxeko laguntzaileak gara. Pertsona nagusiak zaintzeko prest gaude: etxeko lana, zainketak, errezetak kudeatzea, gauak ospitalean, aseok... Durungaldean eta Bilbao. Deitu telefono honetara: 690-28 60 71.

Durungaldea. Interna edo externa modura lan bila. Ume edo nagusien zaintzan edota garbiketaria lanerako. Orduka, asteburuetan edota gauz ere. Erreferentzia eta esperientziarekin. Deitu telefono honetara: 679-71 64 42.

Durungaldea. Neska euskalduna asteburuetan umeak zaintzeko prest, bai egunez zein gabez. Tel.: 628-24 36 02.

Durungaldea. Emakume arduratsua lanerako prest, pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko edota garbiketaria lanerako. Erreferentziaduna. Mugitzeko arazorik ez. Tel.: 660-64 20 98.

Durungaldea. Umeak edo nagusiak zaintzeko prest, externa edo interna. Esperientzia eta erreferentziak. Deitu telefono honetara: 638-20 34 50.

Durungaldea. Umeak edo nagusiak zaintzeko prest, externa edo interna. Esperientzia eta erreferentziak. Deitu telefono honetara: 689-30 85 82.

Durungaldea. Emakume arduratsua ume edo nagusien zaintzan edota garbiketaria lanerako prest. Interna, externa edo orduka. Erreferentziak eta esperientzia. 659-73 92 65.

Durungaldea. Goizez, arratsalde zein gauz lan egiteko prest. Garbiketaria lanerako edota gauz pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 690-68 73 95.

Durungaldea. Interna edo orduka umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeak garbitzeko lan bila. Tel.: 646-20 72 71.

Durungaldea. Nagusien zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Esperientzia eta erreferentziak. Goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:30ak arte. 633-03 86 09.

Durango. Goizetan umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest nago. Haur hezkuntza eta hezkuntza berezian diplomaturia: neure kotxea daukat. 695-75 23 25.

Durungaldea. Umeen edo nagusien zaintzarako edota garbiketarako lan bila. 14:00etatik 20:00etara. Esperientzia eta erreferentziak. Deitu telefono honetara: 638-43 79 01.

Durango. Bulegoen, etxeen, portalen... garbiketarako edo nagusien zaintzarako lan bila. Jardunaldi erdian, aukeran goizez, astehenetik zapatu eguerdian. Esperientzia. Tel.: 676-54 66 91 (Lola).

Durango. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusien zaintzarako lan bila. Interna edo externa. Tel.: 683-47 28 05.

Durango. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusien zaintzarako lan bila. Interna. 632-11 77 23.

Durango. Garbiketaria edo nagusien zaintzarako lan bila. Etxean edo portalen garbiketaria, ospitaleko edo etxeko zaintzak... Jardunaldi osoa edo erdia, gauz, orduka... Esperientzia. Tel.: 690-68 73 95.

Durango. Garbiketaria edo nagusien zaintzarako lan bila. Etxean edo portalen garbiketaria, ospitaleko edo etxeko zaintzak... 16:00etatik 20:00etara. Esperientzia. Tel.: 646-92 52 15.

Durango. Nagusien, umeen zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Jardunaldi osorako, asteburuetan, ... Erreferentziak eta esperientzia. Deitu telefono honetara: 681-21 82 30.

Durango. Nagusien zein umeen zaintzan edo garbiketarako lan bila. Interna, externa, orduka edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 619-15 58 04.

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Debagoiena. Ordenagailua ondo erabiltzen ikasi nahi duzula? Internet, web orriak egin eta abar. Eskola partikularrak zure ordutegira egokituta. Edozein adin. Merke. 679-74 00 61.

Gitarra eta baxu klaseak. Gitarra eta baxu klaseak ematen ditut, Durango. Tel.: 616-31 02 49 edo 94-620 05 98. karsaso4@hotmail.com

Durango. Umeak zaintzeko edo partikularrak emateko prest. Magisteritzan diplomaturia. Ingelesko eta euskerazko titulazioekin. Esperientzia. Deitu hona: 657-71 61 71.

Durango. Ingeniaritzako ikaslea LH, DBH eta batxilergoko ikasleei eskola partikularrak emateko prest. Deitu telefono honetara: 666-20 78 45.

Villabona. Ingelesko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeko edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituladuna. Telefonoa 664-16 02 68 eta posta elektronikoa continental56@hotmail.com

6. MOTORRA

601. SALDU

125eko motorra salgai. Yamaha ybr 125 salgai. Kotxe karnetaz eraman ahal da, 10.000 km eta egoera ezin hobean dago. Deitu eta probatu. Tel.: 676-90 01 05.

Autokarabana salgai. Autokarabana salgai. 2009 urtekoa. 6 plaza. Egoera onean. Tel.: 652-76 81 31.

Autokarabana salgai. Autokarabana Benimar sport 310 salgai. 50.000 km. Hiru urtekoa eta 6 pertsonentzako lekua. Ekipamendu osoa eta oso ondo zaindua. 31.000 euro. Tel.: 676-61 71 54 edo 676-98 33 06.

Autokarabana salgai. Autokarabana salgai. 2002. urtekoa. 100.000 km. 21.000 euro. Tel.: 607-86 32 24.

BMW f 650 gs 2004 33.000km. Gutxi erabiltzen dudalako, BMW f650gs saltzen dot, oso ondo zainduta. Abs, kalefakzioa eskuetan, pantaila altua, warning, Givi maletategia (bi kasko gordetzeko), 3.000 km dituzten erruberrak. IAT-a 2013ko uztaile arte. 44-45eko botak eta XLeurriko kaskoa opari. Tel.: 665-71 29 31.

Smart kotxea salgai. Smart fortwo coupe passion salgai. 62 zp. 48.000 km. la berria eta oso egoera onean. Tel.: 676-61 71 54 edo 676-98 33 06

Suzuki sj 410 salgai. Suzuki sj 410 hardtop (Samurai) salgai. Gasolina. 1.000 cc. 45 zaldi. IAT-urteru. Tel.: 667-48 51 66 edo 667-48 54 36.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

20 ardi salgai Seguran. Seguran 20 ardi salgai, mutur beltzak. Batzuk arkumeak izateko eta beste batzuk izanda. Deitu: 696-22 00 99.

Ahutzak. Salgai, bakoitza bi antxumerekin. 180 euro. 678-25 52 35.

Ahutzumeak salgai. Ahutzume bi saltzen dira Mallabiko Elgetzu baserrian. Tel.: 606-70 91 18.

Artzai txakurra salgai. 3-4 urteko euskal artzai txakur mantsua salgai. Deitu hona: 692-81 90 35. Amaia

Behorak. Bi behor salgai, prezio onean. Deitu telefono honetara: 695-73 67 61.

Txakurkumeak. Malinois belgiar artzai txakur kumeak salgai. 667-74 65 27.

703. EMAN

Arratoi txakurra opari. 7 hilabeteko arratoi txakur emea opari. Beltza eta bizia da eta oso polita da. 655-71 39 27.

Artzai txakurra opari. Bi hileko artzai txakurra oparitzen dugu. Nahi duenak deitu 94-681 43 24 telefonora.

Txakur kumeak opari. Azaroan jaiotako txakurkumeak oparitu nahi ditut. Amalabradorra da. Txakur bat, marroia, arra da. Eta besteak, beltza, emea. Tel.: 638-98 59 30

Txakurkumeak ematen dira opari. Ama Setter Ingles arrazakoa. Hiru hilabete dituzte. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 685-72 46 86 / 943-79 96 55.

Txakurkumeak ematen dira opari. Ama Setter Ingles arrazakoa. Hiru hilabete dituzte. 685 72 46 86 edo 943 79 96 55

704. BESTELAKOAK

Txakurra aurkitu dut Zerainen. Txakurra aurkitu nuen igande arratsaldean zerainen. Spanier breton arrazakoa. Deitu: 655 86 00 20

8. DENETARIK

801. SALDU

"PSP Go"-a. salgai. Berria. Prezio interesgarria. Deitu: 943 77 00 26

Abadiño. Lursaila salgai Matienan (Abadiño), Arzubia kalean, 2.000 m², erreka ondoan eta bide ertzean. Apropo ortua hartzeko. Hainbat fruitu arbolaz hornitua. Matienatik hiru minututara oinez. Deitu telefono honetara: 658-75 65 12

Altzariak salgai. 1,50m-ko haritzeko ohea saltzen da, bi ohe-mahairekin batera: 400 euro. Koltxo berria: 100 euro. 6 kajoidun sinfoniera: 150 euro. Banak markako apal rustikoak: 400 euro. Mahai rustikoak: 100 euro. Tel.: 610-41 55 11

Behoko sua, kristalduna, salgai. Behoko sua, kristalduna, salgai. Erdi berria. Haize beroa botatzeko zuloekin. 66x80x50cm. Deitu telefono honetara: 619-48 50 58.

Bergara. 16.000 metro koardroko lursaila salgai, 30 urteko pinuekin. Automobilaz bertara iristeko modukoa. Deitu telefono honetara: 653 71 66 87

Bernedo. Lursaileraikigarria Urturin salgai dago, Bernedon. Gasteizetik 40km-tara dago, eta Izkiko golfetik 3 minututara baino ez. 308m² eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk dituzte; baita golfeko hotela ere. Deitu telefono honetara: 665-75 78 07 (Ana).

Bikiendako firstwheels karro urdina. Bikiendako firstwheels karro urdina. Oso gutxi erabilia. Bi jesarleku, bi kapazo, plastikoa, bi zakutxo zuri (pikezkoak) eta moskitoen-dako sareak. la berria. Begiratu web-eko argazkiak. 390 euro.

Deitu konpromiso barik. Tel.: 659-3472 81.

Compaq ordenagailua. salgai. Oso egoera onean eta prezio interesgarria. 662 58 52 29 edo 943 20 81 17

DVDa. LG DVD berria salgai. Prezio interesgarria. Deitu 943 77 00 26 telefonora.

Egongelarako aulkiak salgai. Zure egongelarako zoragarriak diren 5 aulki saltzen dira. Oso egoera onean eta prezio ezin hobean: 60 euro bostak. Tel.: 615-72 62 52.

Eskiak salgai. Eski alpinoko eskia saltzen ditut. Dynastar markakoak, look fijazioekin. Kantoak zorrotz berri eta enzerratuak daude. 1,90 neurrikoak dira (pertsona altu samarrentzako). Eskiatzen hasteko aproposak. 50 €. Harremanetarako: aitz2gain@yahoo.es.

Eskiatzeko materiala. 10-12 urteko umearentako praka, 36 neurrikoa, eta snow taula salgai, 1,25 neurrikoa, lokailuekin. 656 78 64 64

Esnea ateratzeko gailua salgai. Esnea ateratzeko gailua salgai, medela swing markakoa, merkatuko onena. Egoera onean. Automatikoa. Honekin batera avent markako esnea ateratzeko gailu manuala oparitzen da. 60 euro. Tel.: 607-86 32 24.

Furgonetako jarlekuak salgai. Traffic furgonetako atzeko jarlekuak salgai. Hiru plazakoa da. Erabili gabea. 400 euro. Argazkiak ditut. Tel.: 650-73 51 56.

Gitarra elektroakustiko berria salgai. Gitarra elektroakustiko berria salgai debagoienan. Tanglewood model premier twissas. 1012929 seriekoa. 620-64 96 37.

Hozkailu konbinatua salgai. Hozkailu konbinatua salgai. Hile baten bakarrik erabilia. Martxoan erosia. Ecron markakoa. No frost eta 2 urteko garantiarekin. Saltzeko premia. 300 euro, negoziagarriak. 691-35 40 31.

Lasterka egiteko zinta salgai. Lasterka egiteko zinta salgai. Pro-form 360 pultsazio. 400 euro (negoziagarriak). Tel.: 688-64 05 05.

Mendi eskiko botak. Mendi eskiko botak debagoienan. Scarpa avant mendi eskiko botak saltzen ditut egoera onean. 75 euro. 43 zenbakia. Kontaktatzeko deitu zenbaki honetara: 652-72 66 97.

Mountain bike-a salgai. Mountain bike horia salgai. 3 plato eta 8 pinoi. 6tik 10era urteko ume batentzat. 75 euro. Tel.: 94-682 07 67 (Igor).

Piano elektrikoa salgai. Yamaha Clavinova clp 150 piano elektrikoa salgai. Kontaktua: 650-17 22 85 edo stratokaster@gmail.com

Paratxokea. Volkswagen golf 3 autoaren aurreko paratxokea salgai. 50 euro. Deitu telefono honetara: 665-74 51 80.

Taxi lizentzia. salgai Arrasaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 76 36 85

Trabesiako botak. Trabesiako botak salgai. Nordica TR10. 42-43 oinarentzako. Hiru fijazio lotura. 90 euro. Harremanetarako: aitz2gain@yahoo.es.

Umeak eramateko. Umeak eramateko jane etxeko kapazoa, Maxi cosia eta aulkixoa salgai debagoienan. Oso ondo zaindu-

ta. 199 euro. Deitu telefono honetara: 653-72 22 54, mary-seal15@hotmail.com

Xurgagailua (aspiradora) salgai. Bigarren eskukoa, ia erabili gabekoa. Akaroen aurkako eta kontsumo baxukoa. Deitu telefono honetara: 659-62 02 49.

Solariuma. Gorputz guztiko Philips HB solarium tolesgarria sagai. Egoera onean. 3 lanpara Philips Cleo HPA Flex-Power ditu, azalerako filtroa, bi tenporizadore. 1200 eurotan baloratua. 500 euroan salgai. Negoziagarria. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 685 72 46 86 edo 943 79 96 55

802. EROSI

Bizikleta. 4 urteko mutikoarentzat bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke. 649 00 53 42

Lursaila. Lursaila erosiko nuke Bergara edo inguruko herrietan.

Zentsura Twitter-en herrialdeko legeen arabera

Lekuko legeei men eginda, mezuak ezabatu ahalko dituzte tokian-tokian

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Herrialdearen arabera, mezu batzuk ezabatu egingo ditu aurrerantzean Twitter-ek. Hala, nazismoa goraiatzeko duen mezu bat Espainian irakurri ahal izango da baina Alemanian ala Frantzian ez, esate baterako, hango legeek debekatu egiten baitute esplizituki. Nazioarteko zabalkundea handia dela eta – horixe erabili dute arrazoi moduan – herrialdearen arabera galarazpenak ezarriko ditu Twitter-ek. Hain zuzen, *mikroblogintza* guneko arduradunek diote mundu mailan ezabatu beharko lituzketela edu-

kiok dituzten tuitak, Frantzian eta Alemanian legea betetzeko. Aurrerantzean, baina, murrizketak modu berriarekin, soilik adierazpen horiek debekatu dauden herrialdeetan desagertuko lirakete mezuok. Beraz, maila lokalean galarazita legokeen tuit bat, soilik leku horretan izango litzateke ikusezina, ez gainontzeko herrialdeetan.

Twitter-etik argitu dute mezua ezabatu baino lehen jakinaraziko diotela erabiltzaileari eta arrazoa azaldu. Arrazoen artean, noski, copyright urraketak ere badaude eta, hain zuzen, legea dela eta

sarean egiten diren edukia ezabatzeko eskaerak monitorizatzeaz arduratzen duen *ChillingEffects.org* erakundearen zerrendari begiratu gero, Twitterreko salaketa guztiak modu bateko ala beste ustezko egile-eskubide urraketak erakusten dituzte. Era berean, Twitter-ek emandako azalpenak ulertuta, diktadurak ala oso erregimen zorrotzak daukaten herrialdeetan zuzenean aplikatuko lukete zentsura, legeei kasu eginez gero, tuitak berehala ezabatuta. Zehazki zelan eta nondik bideratuko duten oraindik ez dute argitu.

Tableten erabilpenak tortikolia ekar dezake, ikerketa baten arabera

J.B. | ARRASATE

Ez eskuetan helduta, ezta altzoan ere. Tableta mahaiaren gainean erabili behar da, ikusmen angelu egokia ematen duen euskarri batekin, ikerketa batek dioenez. Harvard School of Public Health erakundeak eta Microsoftek 15 boluntariorekin egin dituzte azterketak eta tableten erabiltzaileen artean lepo eta sorbaldeetako mina atzeman dute. Ondorioz eta ironikoki, gomendatzen dute tableta mahaiaren ordenagailu bat balitz bezala erabiltzea.

iPad2 eta Motorola Xoom gailuak erabili dituzte frogak egiteko eta erabiltzaileak lanean eta jolasten ipini dituzte eta ikusi dutena da pantailarekin bat egiteko erabiltzaileek lepoa behar baino gehiago jaisten dutela normalean. Mahai gainean ez bada, 20 minutu baino

gehiago ez erabiltzea da gomendatzen dutena, hortik aurrera hartzen baita mina, argitu dutez. Jarrera berdinean zenbat eta denbora gehiago egin, are eta handiagoa da mina eta ondorioz sor daitezkeen arazoak. 2015erako 300 milioi *tablet* saldua egotea espero da, hain zuzen ere.

Ergonomia

Ikerketa honekin sustatzaileek gura dutena da behar izanez gero, tableten erabilerarekin lotutako ergonomia ezaugarriak berrikustea. Hala ere, erabilpen denboran ei dago arazoa eta ez hainbeste tabletak berak eskatzen duen jarreraren. Hala ere, ikerketan gomendatzen dute tabletak "beti euskarri egoki batekin eta mahaiaren gainean erabiltzea, berez daukaten xar-ma galtzen badute ere".



Tableta eskuan duela, hondartzan. | LAVANGUARDIA.COM

10 tuitetik 7k asperdura eragiten ei dute

Tuiteatzeko egunik egokiena domeka ei da

J.B. | ARRASATE

Carnegie Mellon, MIT eta Georgia Tech zentroetako ikerlariek ondorioztatu dute 10 tuitetik 10ek aspertu egiten dutela eta ez dutela inolako erantzunik jasotzen. Ikerketa horren arabera *timeline* osoko mezuetatik soilik %36 irakurtzen dituzte gustura erabiltzaileek, %25 ez zaizkie atsegin

egiten eta %39k indiferentzia eragiten diete. Beraz, ez da ohikoena tuit batek arrakasta izatea eta soilik hamarretik hiru dira jasotzailearen gustukoak.

Zein da egunik onena?

Bestalde, Dan Zarrella delako adituak sare sozialetan mezuak botatzeko unerik onenen bilake-

ta egin du eta haren arabera, mezuak partekatzeko unerik onenak, ustearen aurka, jarduera gutxien dagoen momentuak dira. Facebooki dagokionez, egunak omen dira egunik onenak eta twitterren, aldiz, domekak. E-posta bat bidaltzeko unerik onena zein den ere aztertu du Zarrellak eta jarduera gutxien eguztenetan egoten da posta elektronikoa dagokionez. Egilearen esanetan, hain zuzen, jarduera gutxien dagoen uneetan bidali beharra dago mezuak, ahalik eta arreta gehian izan dezan. Marka komertzialei egiten die gomendioa batik bat, arreta jasotzeko.

Euskarazko lehen liburu interaktiboa, App Storean

'Kili-Kili' dauka izena, haurrek euskara ikasteko

J.B. | ARRASATE

iPad, iPhone eta iPod Touch-erako euskarazko lehen liburu multimedialak *Kili-Kili* dauka ize-

na eta salgai dago honezkero App Store-ean 2,99 euroren truke. Haurrei euskara irakastea da liburuaren helburua ipuinean



Liburu elektronikoaren eszenetako bat. | KILIKILI.NET

agertzen diren gauza eta egoeren hitzak azalduz. Haurrei euskarazko lehen hitzak erakustea nahi da ipuin erraz eta irudi koloretzuekin. Ale bakarra daukate momentuz deskargatzeko moduan eta 13 pantailaz osatzen da kontakizun guztia. Ume txiki bat eguneroko egoeretan kokatu eta inguruko objektuen izenak erakusten zaizkie haurrei: etxe-ko gauzak, jatekoak, animaliak, gorputzeko atalak... Etxean, parkean eta hondartzan aurkezten dute pertsonaia nagusia. Interfazea erabat ukigarria da.

Hafo enpresa

Proiektuaren atzean Hafo izeneko enpresa dago eta zehatzago esanda Jose Maria Martinez Burgos. Ekintzaile gaztea da bera eta bereziki bideo-jokoen munduan dihardu lanean. Bera da, hain zuzen, Bilboko Alhondegian urtero antolatu ohi dute bideo-jokoen eta teknologien jaialdiaren aholkularia eta koordinatzailea eta proiektu honetako Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuko diru-laguntza eta babesa jaso du. Momentuz Applen gailuetarako bakarrik eskura daiteke.

Firefox nabigatzailearen hamargarren bertsioa deskargatzeko moduan dago jada

Nabigatzailea sei astetik behin berritzeko konpromisoa hartu eta dagoeneko hamargarren bertsioa kalean dago Mozillaren nabigatzaileak. Eguneraketa honetan gehigarrietan sakondu eta aukerak gehitu dizkiete. Webguneetarako APIak eta hurrengo orrira joateko botoia ere gehitu diote ohiko nabigatzaileari. Hurrengo urrats handia, baina, Firefox 12arekin etorriko da.

Hiru milioi erabiltzaile dauka Spotify-k eta geratu barik hazten jarraitzen du

Uztailean iritsi zen Spotify Estatu Batuetara eta hazkundera ondorioz ikaragarria izan da. Kontuak aterata 3 milioi erabiltzaile dituztela esan dute enpresako arduradunek, 12 herrialdeetan zehar. Kontuan hartzekoa da joandako urteko martxoan heldu zela lehen milioira Spotify eta urte honen hasierarako dagoeneko 3 milioiak gainditu dituztela diotela arduradunek, %20a ordainpeko zerbitzuan, gainera.

Ordenagailuetako plaka nagusien prezioak gora jarraituko du urte amaierara arte

Kobrearen kostuaren igoerak eta Txinako lan-eskuaren garestitzeak ordenagailuetako plaka nagusien prezioak igoko ditu eta analistek zehazki, diote %5etik %10era artekoa izango dela iguera hori. Garestitzea gainera iaz hasi zen, Japoniako ezbeharrarekin, eta ordutik ez dira lehengora itzuli prezioak. Prezioak igo bai baina ekoizleek ez omen dute asmorik ekoizpena aldatzeko eta ohiko martxan jarraituko du merkaturatzeak.

TELE-BEGI

AINHOA VITORIA



Emite 1 kate berria

Interneti esker tresna ugari ezagutu ditugu, baina, batez ere, gure ohituretan eragin handia izan du. Telesailak eta telebista saioak edozein momentutan ikus ditzakegu Interneti esker. Hala ere, telebista kateak osorik Interneten ikustea falta zitzaigun eta ez dugu luze itxaron behar izan. Hementxe dugu Emite 1. Interneten ikus dezakegun telebista katea.

Bertan, estilo ezberdinetako saioak daude: moda, edertasuna, musika, sukaldaritza jorrazten dituzten saio motzak edota nazioarteko telesail arrakastatsuak.

Horrez gain, Emite 1ek badu berezitasun interesgarri bat. Edozeinek bere saioa proposa dezake. Zerbaiten inguruko saio bat egin nahi duzu?

Zure proposamena bidali eta, agian, Emite 1eko programa berria zurea izan daiteke. Kateak bere publikoa protagonista bihurtu nahi du. Publikoak eta kateak elkarri eragitea eta beraien arteko *feedback*-a sekulakoa da. Etorrizuneko berrikuntza izan daiteke hori: Ikus-entzuleak kateari bere ekarpena egingo dio eta, ondorioz, katearen partaide sentituko da. Emite 1 kateak horixe du helburu; lanean jarraituko du.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 6



Itoitz Armendaritz kirolaria gurean

20:45

Armendaritz muskerak Pirenako lasterketaren inguruko esperientziak kontatuko dizkigu *Harmailatik* saioan.

12:25 Magazinea

13:25 Onein

13:55 Kantari

14:28 Beranduegi t.v.

14:45 Berriak

15:15 Berbetan

15:42 Ur eta lur

16:12 Hamaika.bit

16:45 Berriak

17:15 Bizitegia

17:45 28.Klip

18:09 Altxor txokoa: Miren Fernandez

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Harmailatik

21:30 Beranduegi t.v.

22:50 Harmailatik

23:35 Gipuzkoa Kultura

MARTITZENA, 7



Herrira ekimen berria hizpide

19:45

Herrira mugimenduari buruz hitz egingo digu Nagore Gartzia bozeramaileak Arritxu Barruso eta Eneko Azkaraterekin.

12:30 Magazinea

13:30 Harmailatik

14:15 Kantari

14:45 Berriak

15:15 Beranduegi t.v.

15:36 Harmailatik

16:19 Onein

16:45 Berriak

17:15 Bizitegia

17:45 Harmailatik

18:30 28. Klip

18:54 Berriak

19:21 Kantari

19:48 Magazinea

20:48 Erreportajea: Arantzazu

21:18 Magazinea

22:50 Harmailatik

23:48 Gipuzkoa Kultura

EGUAZTENA, 8



Arantzazu: erreportajea

16:12

Arantzazuko historia ezagutzeko aukera izango dugu eguaztenean emitituko dugun Arantzazuri buruzko erreportajea.

12:20 Magazinea

13:20 Berbetan

13:50 Beranduegi t.v.

14:09 Kantari

14:44 Berriak

15:14 Gipuzkoa Kultura

15:44 Onein

16:12 Erreportajea: Arantzazu

16:52 Berriak

17:22 Bizitegia

17:49 Ikusmira: Arkeologi museoa

18:12 Harmailatik

18:55 Berriak

19:20 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Altxor txokoa: Miren Fernandez

21:19 Magazinea

22:19 Berbaz

23:19 Magazinea

EGUENA, 9



Alex Mendizabali elkarrizketa

22:14

Alex Mendizabal musikari donostiarra *Gira Bira Tur* izeneko bira egiten dabil, eta gertutik ezagutuko dugu *Gipuzkoa kultura*-n.

12:30 Magazinea

13:30 Hamaika.bit

13:55 Kantari

14:20 Bizitegia

14:45 Berriak

15:15 Onein

15:42 Berbaz

16:42 Berriak

17:12 Kantari

17:42 Berbetan

18:12 Harmailatik

18:09 Beranduegi t.v.

18:29 Ikusmira: Arkeologi museoa

18:54 Berriak

19:19 Kantari

19:44 Magazinea

20:44 Hamaika.bit

21:14 Magazinea

22:14 Gipuzkoa Kultura

22:44 Erreportajea: Arantzazu

23:24 Magazinea

00:24 Altxor txokoa: Miren Fernandez

EGUBAKOITZA, 10



'Euskararen Espektakulua'

22:18

Aretxabaletako Arkupegin egin zen *Euskararen Espektakulua* izango dugu ikusgai, Oihan Vegak aurkeztuta.

12:30 Magazinea

13:30 Gipuzkoa kultura

13:55 Kantari

14:22 Onein

14:47 Berriak

15:14 28.Klip

15:38 Bizitegia

16:08 Leku txiki bat

16:38 Berriak

17:11 Esatea libre

18:21 Beranduegi.tv

18:41 Berriak

19:16 Kantari

19:48 Magazinea

20:48 Gipuzkoa kultura

21:18 Magazinea

22:18 Euskararen espektakulua

23:28 Magazinea

ARRASATE IRRATIA

'Zirkua amets' haurrendako ipuina zozketan

Egubakoitzeko zozketan etxeko txikiendako ipuin bat zozketatuko dugu: *Zirkua amets*. Zozketan parte hartzeko bi bide dituzue: telefonoz dei dezakezue 943 25 05 05 zenbakira edo e-mail bat idatz dezakezue *irratia@goiena.com* helbidera. Parte hartu eta zorte on.

Hilekoaren zikloa berbagai eguazteneko sexologiaren tartean

Sexologia Zerbitzuko Maialen Elizburuk xehetasunak eman go dizkigu eguaztenean, 10:30ean, hilerokoaren zikloaren gainean. Tabu izaten jarraitzen duen gaia da hilerokoa, Elizbururen ustez, eta emakumeei informazioa gaztetatik eman behar zaiela kontatuko digu.

Eguraldiaren eta errepidearen azken ordukoak 107.7an

Azken egunotan egin dugun moduan, Arrasate Irratian eguraldiaren eta errepidearen azken ordukoak zeintzuk diren azalduko dizuegu. Informazio hori emango dizuegu *Igo autobusera!* irratia saioan, 10:30ean, 107.7ko uhinetan. Beraz, Arrasate Irratiak azken ordukoen berri emango dizue.

TELE-ALBISTEAK

Patricia Gaztañaga ETBra itzuliko da gaur 'Voy a mil' saioarekin

Astelehenetik egubakoitzera eskainiko dute lehiaketa saioa, 14:00etan, ETB2 katean

AMAI TXINTXURRETA | ARRASATE
Gaur, astelehena, ETB2k *Voy a mil* lehiaketa estreinatuko du. Hamar urte ETBtik kanpo egin ondoren, Patricia Gaztañagak lehen aldiz aurkeztuko du lehiaketa. Carlos Sobera eta Jorge Fernandez aritu izan dira ordu tarte horretan lehiaketa aurkeztu, eta Gaztañagak ere ohiko eskema hori berreskuratuko du: lehiakide bakarra atrilaren aurrean eta denboraren aurka borroka eginez.

Voy a Mil saioaren izenburuak badauka bere esanahia: egunero

1.000 euro jarriko dituzte jokoan; probek ezartzen duten abiadura ere izugarria izango da eta saioak 80ko hamarkadako irudi eta espirituari eutsi dio.

Bi talde edo koadrila

Lehiaketan bi talde edo koadrila izango dira aurrez aurre. Talde bakoitzak helburu ludikoa du 1.000 euroko eguneroko saria irabazteko. Modua oso erraza da: hamar proba gainditu behar dituzte, guztiak hamar eta 100 segundoren artean kronometratuta. Atril bakarra izango da



Patricia Gaztañaga izango da aurkezlea. | FORMULATV.COM

ETB2k eguerdiko lehiaketa saioa berreskuratu du bi urteren ostean

'Date el bote'-ko zuzendari izan zen Iñaki Ruiz izango da zuzendaria

platoan eta bi taldeetako kideak txandakatuz joango dira. Helburua izango da jokatzeko txanda ez galtzea. Txanda galduz gero, dirua ez irabazteaz gainera, beste taldeak bildutako guztia lapur dezake.

Lehenengo saioa

Guztira, hamar proba egingo dituzte saio bakoitzean eta lehiaketako proba guztiek 1.000 euro balio dute.

Lehenengo saioan, bi kirol taldeetako jokalariek lehiatuko dira. Helburu guztiz ezberdinak dituzte. Batetik, errugbiko Atletico San Sebastian taldeak Europan barrena jokatzeko den Sei Herrialdeen Txapelketako partidu bat ikustera joan nahi du. Bestetik, Hibaika arraun taldeko neskek trainerua erostea edo material berria dute xede irabazitakoarekin. Trainerua erosten badute, mutilena ez dute gehiago erabiliko.

Ikus-entzuleak entretenitzea eta ondo pasatzea dute helburu saioarekin, eta espero dute aurreikuspenak betetea.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Iradi Belategi
Otsailaren 12an, 5 urte.
Zorionak, printzesa!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna lagunekin. Patxo handi bat!



ARRASATE
Oier Axpe Garro
Otsailaren 12an, 4 urte. Zorionak, Spider! Oso-oso ondo pasatu zure urtebetetzea. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



ARETXABALETA
Manex Arriaran
Oianguren
Otsailaren 12an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Bi urte jada! Zelan pasetan dan denbora! Ea txokolata handi batekin ospatzen dugun eguna! Muxu potolo-potolo asko etxeko guztien partetik!



ARRASATE
M. Carmen Fernandez Simon
Otsailaren 12an, urtebetetzea. Zure alaben eta Udalpeko lagun partetik, zorionak!



OÑATI
Arantzazu Aranburu Diaz
Otsailaren 10ean, 20 urte. Atxazu! Zorionak, guapa! Zapatuko pintxo eta tragua erdibana ala? Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko danon partetik, eta Ugarkal-detik be patxo potolo-potolua, batez be Lideren partetik.



OÑATI
Maialen Regueiro Larrea
Otsailaren 9an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu eta muxu handi bat etxeko partetik.



ARRASATE
Intza Ezpeleta Sanpedro
Otsailaren 9an, 4 urte. Zorionak, polit hori! Heldu da azkenean zure eguna eta 4 urte bete duzu! Zelako handia zaren! Orain arte moduan jarraitu, mendizale! Lide, aitatxo eta amatxo.



OÑATI
Ane Txintxurreta de la Fuente
Otsailaren 9an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako, familiaren partetik.



BERGARA
Beñat Garitano Garmendia
Otsailaren 9an, urtebete. Zorionak, politxo! Ondo pasatu zure lehenengo urtebetetze egunian eta patxo handi bat etxeko danon partetik.



OÑATI
Maider Molinero Larrea
Otsailaren 8an, 7 urte. Zorionak, Maider! Besarkada eta muxu handi-handi bat etxeko partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



BERGARA
Malen Arando Salaberria eta Jokin Arando Beristain
Malenek otsailaren 8an, 4 urte eta Jokinek 11n, 40 urte. Zorionak etxeko sorgiñari eta aitatxori. Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze eguna eta jaso patxo potolo bi June eta amatxoren partetik.



BERGARA
Arantxa eta Arkaitz
Otsailaren 8an amamaren eguna eta 19an Arkaitzena. Zorionak bixoi bihotz-bihotzez. Eta izan goguan, zuegaittik ilargiraino jun eta han pare bat buelta emungo giñuzkela. Segi horrela urte askuan! Antzuola, Donostia, Durango, Andoain, Legazpi, Hernani, Apata, Baiona eta Bergararik muxuak.



ARRASATE
Naia Ijurra Goñi
Otsailaren 8an, 11 urte. Aurten bi zerbaki igualak, eh! Oso ondo pasatu eguna eta muxu handi bat etxeko partetik!



ARETXABALETA
Irati Oskoz Barrena
Otsailaren 7an, 7 urte. Zorionak, sorgintxo! Aurten zazpi kandela tartan. Ondo-ondo pasatu zure eguna eta orain arte bezala jarraitu, alai-alai. Mila muxu Ekaitz, amatxo eta aitatxoren partetik.



BERGARA
Ibai Ayukar Inza
Otsailaren 7an, 31 urte. Zorionak, Ibai! Pasatu dozu hiruko barrera, eh! Ondo-ondo pasatu eguna eta hurrengo urtian gehixu eta hobeto. Familia guztiaren partetik (etxekoak, Zubiaurre, Bolu eta Ibargarai) muxu handi-handi bat. Batez ere amama Teresaren partetik.



BERGARA
Andoni Gallestegi Agirre
Otsailaren 7an, 16 urte. Zorionak eta urte askotarako. Muxu handi bat zure gurasoen partetik.



OÑATI
Naroa Legazpia Larrea
Otsailaren 7an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure egunian eta muxu asko Jon, aitatxo eta amatxoren partetik.



ELGETA
Gaizka Agirreurreta Litago
Otsailaren 6an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu potolo bat familia guztiaren partetik!



BERGARA
Jon Crespo Zubia
Otsailaren 5ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure egunean eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



BERGARA
Urko Agirrezabal Gabilondo
Otsailaren 5ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Konturatzen zarenerako berriz ondartzan jolastuko dugu. Aupa Sportacus! Ondo pasatu merendolan eta zorionak bereziki Olaitzen partetik.



ARRASATE
Eider eta Garazi Prieto
Eiderrek 9 urte urtarrilaren 26an eta Garazik 5 urte otsailaren 4an. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen egunean, familia eta lagun partetik.



OÑATI
Maialen Mendizabal Altzelai
Otsailaren 4an, urtebete. Zorionak zuri, zorionak beti... Maitte zaitugu! Patxo handi bat aitatxo, amatxo, Irati eta familia guztiaren partetik!



ANTZUOLA
Lierni Errasti Urteaga
Otsailaren 4an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiako partetik. Ondo pasatu, politoi!



ARRASATE
Xromin Frutos Uribesalgo
Otsailaren 4an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! 9 urte jada gure mutilak! Ondo pasatu eta patxo pila etxeko partetik.



BERGARA
Emilio Uzin Rementeria
Otsailaren 4an, 67 urte. Zorionak, aitxita! Oraindik ere sasoi betean! Espero dogu egun ona pasako dozula familiako artean. Orain bezain alai segi! Muxu potolo-potolo bat familiako partetik baina batez ere Izar, Ekaitz, Oier eta Eleneren partetik.



ARRASATE
Alicia Navarro
Otsailaren 4an, 32 urte. Zorionak eta oso ondo pasatu zure eguna. Manu eta Julen.



ARAMAIO
Lur Ezpeleta del Rey
Otsailaren 3an, 8 urte. Zorionak, politxo! Gure paleontologo onenari muxu potolo bat! Aitatxo eta amatxo.



ARRASATE
Sua Lamadrid Garcia
Otsailaren 2an, 3 urte. Zorionak! Lur, aitatxo eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Izzar Uribetxebarria Azpitarte
Otsailaren 2an, 9 urte. Aurten toketan jatzu 9 urte eixia. Etxeko partetik zorionak, maittia. Eguna gozatu eta disfrutatu urtia.



OÑATI
Helene Jauregialzo
Urtarrilaren 29an, 14 urte. Zorionak, Helene! Jada 14 urte, eh! Leire eta Haizearen partetik ondo-ondo pasatu eguna eta disfrutatu topera! 14 patxo handi!

Zorionak!

Internet
Sar zaitetz goiena.net atarian eta Zorion agurra bidali botolia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.
Posta elektronikoa
Mezu bat bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Etor zaitetz GOIENako ordezkari batara.

JAIOTAKOAK



Paul Barbarias Mateo

Arrasate 3,230Kilo. Urtarrilaren 23a. Gurasoak: Ander eta Irune. Argazkian, Paul eta ama.



Alain Davila Caballero

Arrasate 2,610Kilo. Urtarrilaren 28a. Gurasoak: Nuria eta Juan Antonio. Argazkian, Alain, aitarekin.



Oier Lopez Naranjo

Antzuola 1,180Kilo. Urriaren 21a. Gurasoak: David eta M. Dolores. Oier, sehaskan.



Unax Zuazo Oianguren

Aretxabaleta 4,180Kilo. Urtarrilaren 31. Gurasoak: Stella eta Iñigo. Argazkian, Unax, amaren besoetan.



Ametz Alcaraz Caballero

Eskoriatza 3,720Kilo. Otsailaren 2a. Gurasoak: Miryam eta Roberto. Argazkian, Amets, guraso eta arrebarekin.



Maren Sanchez Gordo

Eskoriatza 3,720Kilo. Otsailaren 1a. Gurasoak: Itxaso eta Juanjo. Argazkian, Maren, sehaskan lo.



Eki Palacin Aldea

Oñati 3,770Kilo. Urtarrilaren 31. Gurasoak: Rakel eta Iker. Argazkian, Eki, sehaskan lo.



Ibai Urkia Berezibar

Aretxabaleta 2,740Kilo. Otsailaren 1a. Gurasoak: Miren eta Iker. Argazkian, Ibai, amarekin.



June Ferreira Laskurain

Aretxabaleta 3,420Kilo. Otsailaren 1a. Gurasoak: Izaskun eta Helder. Argazkian, June, gurasoekin.

BABESLEA



Garibai 6 ARRASATE
Tel.: 943 79 97 86

MARKA AUKERA ZABALA



AI, ENE!

Ahate erraldoiarekin jolasean

Txikitan bainatzeko orduan askok izan duten ahate txoan oinarrituta dago originala, behintzat, baden dutxako gortina hori.

www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Estralurtarrek abduzitu egin ninduten... Baita nire senar ohia ere"

FRAN DRESCHER | AKTOREA

La Niñera telesailarekin egin zen ezagun Drescher, baina urteak pasatu dira arrakasta hartatik. Akaso, garai bateko ospea berreskuratu nahian esango zituen hitzok; ez dakiguna da haren senar ohiari graziarik egin dioten aktorearen adierazpenek.

www.larazon.es

EGURALDIA



Max. 9°

Min. 4°

Euria barra-barra egingo du. Elur-kota 800 m egongo da gero-ra 1100 m ingurura igotzeko.

euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-02-06

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Aritz Aranburu Oñatiar odoleko surflari zarautzara olatuen gainean, edo barruan, ikustea da ohikoena. *Cracks del surf* programan ere aurkituko dugu laster irakasle lanetan. | TXOMIN MADINA

"Ofizio eta afizio honek emandako politena bidaiatzea da"

1. Eman iezagazu inbidia apur bat. Nondik nora ibili zinen 2011n?
Brasilen, Australian, Europan, Hego Amerikan, Kalifornian, Hawaiiin... izan nintzen. Hainbeste bidaiatzeak badu alde negatiborik, baina gauza onek orekatzen dute; ez gaude kexatzeko moduan!

2. Lehenengoz igoko naiz surf taulara. Zein da aholku nagusia?
Ez etsitzea, hori da garrantzitsuenena. Denetan bezala, hasieran kosta egiten da, baina pazientziarekin hartu eta gogoia jarrita, lehenago edo geroago denok lortzen dugu taula gainean tente jartzea.

3. Olatu baten barruan zaudenean, zer pasatzen zaizu burutik?
Hori da gustatzen zaiguna, tuboa egitea, eta lortzean denbora geratu egiten dela dirudi. Horren bila ibiltzen gara eta lortutakoan konturatzen zara esfortzu guztiak merezi izan duela; ahalik eta gehien gozatzen duzu.

4. Beldurrak badu lekuri itsoan?
Bai; nork bere mugak dauzka, eta muga horiek gainditzen direnean beti izaten dira susto txikiak. Baina argi dago urrutira heltzeko, mugak gainditzeko beti pasatu behar direla ezusteko horiek.

5. Gaez ere surfeatu duzu.
Esperientzia ezberdina da. Argidun taulekin ibili naiz eta kanpotik oso polita ikusten da. Uretan jende gutxiago dagoenez, gainera, olatu gehiago dago bakoitzarentzat!



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Jatekoa, mundu guztiarendako"

"Hasteko, Oñatin olatuak jarriko nituzke... Eta beste alde batetik, bidaietan ikusi ditudan gauza guztiak ikusi ostean, mundu guztiari jaten emango nioke. Leku liluragarrietan egon arren, horietan ere denetarik ikusten duzu".

6. Surflari izateak badu iraungitze datarik?
Ahal den artean, ni beti surflari izango naiz; hezurrek uzten badidate, behintzat, bai. Kirol honetan sartzen bazara, ez da pasatzen den moda bat izaten.

7. Laster irakasle lanetan ikusiko zaitugu telebistan...
Oso esperientzia polita izan da. Niretzako gauza berria izan da eta ondo pasatu dut. Ez nengoen ohitura irakasle lanetara, eta, egia esan, zorte handia izan dugu: surflariak oso esker onekoak izan dira eta *feedback* ona eman dute.

8. Afizio nagusia ofizio bihurtu duzu. Ofizio ez den beste afiziorik?
Ofizio eta afizio honek eman didan gauza politena bidaiatzea izan da: kultura ezberdinak ezagutzea, jende ezberdinarekin erlaxatzea. Ikastolan gauza batzuk ikas daitezke, baina bidaiatzeak beste gauza batzuk irakasten ditu, ikastolakoak bezain garrantzitsuak.

9. Elkarrizketa daiteke surflari bat lige kontuez galdetu barik?
Betiko topikoa da. Surf edozeinek egiten du; ligatzeko balio duenak berdin ligatuko du surflaria izan edo ez, eta alderantziz. Ez dut uste abantaila denik.

10. Munduan zehar sarri; baina Oñatin, azkenekoz, noiz?
Eguberri egunean; egun horretan, behintzat, urtero joaten naiz. Nahiko nuke sarriago joan, baina dudan egutegi itxiarekin...

BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



1. aste.
1. ez

Astez aste; oraingoan haize freskoa: Gandolfi korsikarrak proposatu eta Gre.net lapurtarrak defendaturik, Frantziako Asanblada "naziionalan", euskal presoek, etxetik ahalik eta hurbilen "atxikiak" egoteko eskubide dutela onartu dute; Lo.pez bizkaitarrak, hortan ados egonik, gainera, uste du, ezker abertzalea legezatu egin behar dela; "eznahikotasunak" jota darraite baina, "bada zerbait" esanda konformatu behar. Ea euskaldun.ok, "hitzeko jendea" direla konfirmatzen den.

Atez-ate; *0 zabor* filosofiaz, ni ere ados nago eta nabil; baina *0 edukinontzi* filosofiaz ulertuta; Izan ere, zaborra, geurea izanik, ez dugu ezkutatatu behar auzoko edukinontzietan; produktuen ekoizpen, salmenta eta kontsumoan gutxituz hasi eta gero konpostatuz edota berziklatuz baizik; Debagoienan *0 zabor*.

Eta; Urumea ibaiak, itsasoarekin bat egiten duen gunean omendu genuen Txillardegia; Victoria Eugenia antzokian, zutik, Eusko Guda-riak abestuz; eskerririk asko, Txillardegia, mundua, bizitza, gizakia eta bereziki Euskal Herria eta euskara gure begiekin begiratzeko, ezagutzeko eta maitatzeko, zure betaurrekoak uzteagatik.



Eraman dotoretasuna zure etxera



Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51